goiena
DEBAGOIENDARROK DIOGUNA

2012-10-05
EGUBAKOITZA
524. ZENBAKIA
12. URTEA
DOANEKOA
GOIENA.NET
TOKIKOM

# Euskaraz hitz egiteko laguntza

Mintzapraktikarako dei egin dute | 5



Euskara elkarteetako kideak. | G. ARANA

Zapatuan hasiko da Bergaran nazioarteko organo zikloa | 16



San Migeletako hitzordurik herrikoienak Oñatin | 21



Maritxu Kajoik dotoretasuna eta miraria ekarriko ditu Arrasatera | 11

EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK 2012



# PROGRAMA POLITIKOA EUREN AHOTIK

Mahai-ingurua egin dute EH Bilduko, EAJko, PSE-EEko eta Ezker Anitzeko ordezkariek Garaia Berrikuntza Gunean | 2

Xabier Isasi (EH Bildu), Maria Eugenia Arrizabalaga (EAJ), Mikel Arana (Ezker Anitza) eta Jon Azkue (PSE-EE). | LEIRE KORTABARRIA

## SINADURAK

Nortasun digitala: hil ala bizi | 8
GOIO ARANA

8 | Hurrengo lehendakaria
ENEKO AZKARATE

Salbu gaude | 26
ANDERE ARRIOLABENGOA

40 | Jubilatu okupatua
MIKEL IRIZAR

ASTEKO GAIA 2 | DEBAGOIENA 5 | ELKARRIZKETA 7
IRITZIA 8 | HERRIAK 11 | KIROLA 28
KULTURA 31 | ZURE IRAGARKIAK 35
TELEBISTA-IRRATIA 36 | EZKONTZAK 37
ESKELAK 37 | NON-ZER 38

# "Ia sorreratik dago UNED Bergaran, eta horrek berezi egiten du"



**Iñaki Espartza** | Bergarako UNEDeko zuzendaria | 7

# Liga ondo hasi duten Aretxabaletak eta Bergarak derbia

Domekan jokatuko dute, 16:30ean, Ibarran | 28

Ford B-MAX berria
Alboko zutaberik gabe, auto barrura sartzea askoz ere errazagoa da



Ford gama. Batez besteko kontsumoa: 4,0-6,4l/100 km. $CO_2$ 104-149 g/km
Go Further
MUGARRI AUTOAK
Araba Etorbidea, z/g. ARRASATE



Ordezkari politikoak, eztabaida saioa grabatzen, Goiatz Arana eta Ainhoa Ibañez aurkezleekin. | LEIRE KORTABARRIA

# Lehendakari balira zer egingo luketen esan dute politikariek

▸ Goiena telebistak lau alderdi nagusietako ordezkariak batu ditu

▸ EAJk, EH Bilduk, PSE-EEk eta Ezker Anitzak programak azaldu zituzten

LEIRE KORTABARRIA | ARRASATE

Urriaren 21ean izango dira Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeak. Goiena telebistak eztabaida saio berezian batu zituen lau alderdi nagusietako ordezkariak. Zerga politika, antolakuntza administratiboa, euskara, lurraldetasuna, krisia... izan zituzten berbetarako gai.

**Ze iritsi duzue zerga erreformaren gainean?**

**Maria Eugenia Arrizabalaga:** Planteatuta daukagu berrantolaketa bat, baina sistema orokorrean ikusita. Krisitik irtetea da lehentasuna, baina ez da neurri bakarrarekin lortuko. Erakunde publikoen defizita oso arazo larria da, baina gertatzen da gure sistema ekonomikoa erabat moteltzen dabilelako. Ekonomia erreala, erakunde publikoei eta denoi eragiten diguna, suspertzen saiatu behar dugu.

**Xabier Isasi:** Zerga politika aldatu beharra dago eta Gipuzkoako Foru Aldundia bide horretatik doa. Zerga sistema ekitatiboa –diru sarrera berdinek berdin kotizatu behar dute–, justua; eta progresiboa –aberastasun handien gaineko zergak– planteatzen dugu. Eraginkortasuna ere bilatu behar da: gure ustez, oraindik ere iruzurraren alorrean lan handia egin behar da.

**Jon Azkue:** Urte askoan gabiltza honen gainean, Jaurlaritzatik are gehiago. Dudarik gabe, sistema ez da justua: lan-errentak gehiago dira ez direnak baino. Aberatsari gehiago eskatu behar zaio. Bai, aldatu beharra dago.

**Mikel Arana:** Krisia hasi zenetik esan genuen hiru bide zeudela: diru-sarrerak gehitu, murrizketak egin edo sistema mistoa: gehiegikeriak murriztu baina diru-sarrerak ere gehitu. Eztabaida hori hemen ez da egin nahi izan orain urtebetera arte. Garai onetan, zergak jaitsi eta jaitsi egin ziren, eta garai hartan ere salatu genuen egoera aldatzen zenean horren ondorioak jasango genituela. Zerga politikak bakarra izan behar du erkidegoan, eta gehiago duenak gehiago ordain dezala. Orain, progresibitatea ez da aplikatzen: langile baten diru-sarrerak tramuka doaz, eta hor bai, gehiago duenak gehiago ordaintzen du, solairu batera arte: hortik aurrera badago gehiegizko bat eta hortik aurrera denek %48 ordaintzen dute. Baina batek burtsan 100.000 euro irabazten baditu, %18 ordaintzen du. Eta PFEZ bidez irabaziko balu, %48 ordainduko luke.

**Zerga politika Legebiltzarraren esku egon beharko litzateke?**

**X.I.:** Batzar Nagusietatik harago joatea da gure planteamendua. Hain zuzen, laurok bat joatea harmonizazio fiskala egiterakoan. Bitartean, Gipuzkoan egiten ari diren moduan, Bilduren eskutik, banaketa justuagoa izateko, justizia sozialaren ikuspegitik planteatzea proposatzen dugu.

**M.E.A.:** Nik pentsatzen nuen ezker abertzalearen ikuspuntutik batzar nagusien eskumenak soberan zeudela; aldatu egin zarete, nonbait. Baina ados nago zurekin: ez nuke planteatuko orain batzar

## Mahaikideak, begirada baten

**XABIER ISASI**
EH BILDU

EH Bildu koalizioaren Gipuzkoako zerrendaburua da. Horrez gain, Gaindegiako presidente ohia eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea da.

**M. EUGENIA ARRIZABALAGA**
EAJ

Hirugarrena da EAJren Gipuzkoako zerrendan. Legebiltzarkidea eta Gipuzku Buru Batzarraren bozeramailea da. Antzuolako Udalean zinegotzia ere bada.

**JON AZKUE**
PSE-EE

PSE-EE alderdiaren Bizkaiko zerrendan zazpigarrena izango da honako hauteskundeetan. Arrantza sailburuordea izan da oraingo legegintzaldian.

**MIKEL ARANA**
EZKER ANITZA

Legebiltzarkidea da Mikel Arana. Horrez gain, Ezker Anitzeko koordinatzailea da. Oraingo hauteskundeetan, Ezker Anitzaren lehendakarigaia da.




nagusien eskumenak kentzea. Nik ere, behin independentzia lortu eta gero planteatuko nuke. Gure eskubide historikoen lekuko diren erakunde bakarrak kenduko genituzke eta, horrekin, estatuko gainerako erkidegoen antzerakoagoa izatea lortuko genuke, eta guri ez zaigu interesatzen Gaztela-Mantxa baten antzekoago izatea.

**J.A.:** Parlamentuak derrigor izan behar du eskumen hori eduki, eta ez batzar nagusiek.

**M.A.:** Guk betidanik defenditu dugu hori, ez dugulako ulertzen erkidegoa hiru herri bezala, herri bakar baizik. Ez du zentzurik hiru lurraldetan bizi diren hiritarrek zerga desberdinak izatea. Are gehiago, legebiltzarrak izan, badauka eskuduntza, gutxienez parte bat: harmonizazio legea. Guk aurkeztu genuen lege egitasmo bat, harmonizazio legea erabiliz, hiru lurraldeen artean zergak harmonizatzeko. EAJk aurka bozkatzea normala iruditu zitzaigun, baina PSEk ere kontra bozkatu zuen, esanez eskuduntza hori batzar nagusietan zegoela.

**Hiru diputatu nagusiek onartu dute bikoiztasunak daudela. Egitura instituzionala aldatu behar da?**

**J.A.:** Duda barik, bai. Azterketa aurkeztu genuen bikoiztasunaren gainean, eta, horren arabera, 400 milioi euro hartzen dute. Arkitektura berria egin behar dugu, eta horretan, konpetentziak berriro mahai gainean ipini.

**M.A.:** Lurralde historikoen legea erabat aldatu behar dugu. Aldundiak udalerrien organo koordinatzaileak izan beharko lirateke, eta eskuduntzak banatu Legebiltzarraren eta udalen artean. Gaurko estrukturak dakar 100 kilometroko autobide bat bi enpresak kudeatzea, edo erkidegoan bi portu eta hiru aireportu izatea.

**X.I.:** Sakon errebisatu behar dira gure erakundeak. Burujabetasuna jarri behar dugu mahai gainean; bera da soluzioaren zati bat.

**M.E.A.:** Ez dugu uste independentzia gure eguneroko arazoen erantzuna denik. Egitura instituzional konplikatua dugu, baina batez bestean ondo funtzionatu izan du. Ajustatu egin beharko dira bikoizketak, baina emaitzak denon eskura egon dira; eta dauden bikoiztasunak PPk, UPyDk eta PSOEk ikusi nahi ez dituztenak dira: gobernu delegatuak, bai, baina nabarmen, hemen dauden auskalo zenbat mila guardia zibil eta polizia nazionalak.

**J.A.:** Jaurlaritzaren enpresak gutxitu egin behar dira. Guk esan dugu aktibitate ekonomiko bakoitzak enpresa bakarra izan behar duela. Bada, hori egiteko, zuen ezetza jaso dugu.

**Murrizketak egingo dituzue?**

**X.I.:** Ongizate eta justizia sozialaren eremuak ez dira ukitu ere egin behar. Baina dirua behar da, eta gure aurreneko planteamendua enplegua sortzea da. Gure ehun produktiboari eutsi egin behar diogu. Berrikuntzan inbertsioa egin behar da, luzera begira kalitateko enplegua sortuko dugulako. Gastu sozialei eutsi behar diegu, baina ez pentsatuta dirua batzuen arazoa konpontzeko ipintzen dugula, baizik eta lan-merkatura integratu nahi ditugulako. Estatuaren gastuak kendu beharko genituzke eta eskumenak gureganatu. Dirua aurreztuko dugu erabakiak bertan hartzen baditugu.

**M.A.:** Batez ere 2012ko aurrekontuetan, murriztu izan da guk inoiz murriztuko ez genukeen kontuetan: diru-sarrerak bermatzeko errentan, etxebizitzaren osagarrian, osasun arloan, hezkuntzan... eta ez gastu korronteetan. Murrizteko gauzak badaude, baina herritarrari eragiten ez dioten murrizketak izan behar dira. Defizitaren apustua ez da hain zorrotza izan behar. Arlo publikoa, krisian, motorra izan behar da eta ez ekonomia geratzen duen zerbait.

## ESANAK



**"Dirua aurreztuko dugu erabakiak Euskal Herrian hartzen baditugu"**

XABIER ISASI | EH BILDU



**"Estatutua eta kontsulta legea lortu ditugu, eta aurrerapausoak etorriko dira, adostasunetik"**

M.EUGENIA ARRIZABALAGA | EAJ



**"Euskaran ez dugu ezer kendu; milioiak inbertitu ditugu, eta horrela jarraituko dugu"**

JON AZKUE | PSE-EE



**"Hiru lurraldeen zergak harmonizatu behar dira, eta Legebiltzarrak izan eskumena"**

MIKEL ARANA | EZKER ANITZA

SERVIMASA
Sukaldeko altzariak eta osagarriak
blum FRANKE GRUMAL LOGISIETE KESSEBÖHMER
BERGARA
Aitziturri 4, 193 posta-kutxa
Tel.: 943 76 19 95 Faxa: 943 76 07 49
E-posta: bergara@servimasa.com
LEZO
103 industria poligonoa
Tel: 943 52 05 00 Faxa: 943 515757
www.servimasa.com

ETXETRESNA ELEKTRIKOETAN PREZIO BEREZIAK

Garbigailu integragarria, AWM 129
• A klasea
• 7 kiloko karga
• 1.200 b/min
Prezio garbia, RAEE barne: 447,65€

Ontzi-garbigailu integragarria, LFTA 2164 (60 cm)
• A/A/A+ klasea
• Zarata maila: 47 db ½. • Karga automatikoa
Prezio garbia, RAEE barne: 410,80€

Combi EBQH 20223 F –No Frost totala–
• A+ klasea
• 200x60x65,5 (AlxZabxFon)
Prezio garbia, RAEE barne: 685,20€

Labe pirolitikoa –Newstyle linea–
• A klasea
• Pirolitikoa
Prezio garbia, RAEE barne: 425,86€

Indukzio-plaka, Kic 631 TB –biselatua–
• 3 zona, zona hirukoitza Booster 4000 w-rekin, Touch Control
• (TB biselatua)
Prezio garbia, RAEE barne: 345,80€

Mikrouhin-labea, MIC 201 EX
• 20 litro, 32 zm-ko hondoa,
• Altzairu herdoilgaitza, arrastoen aurkakoa
Prezio garbia, RAEE barne: 175€



Mikel Arana , Maria Eugenia Arrizabalaga, Jon Azkue eta Xabier Isasi. | LEIRE KORTABARRIA

**M.E.A.:** Aurrena, gure asmoa da finantza-oreka berreskuratzea, erabat despistatua egon da-eta; gero, oinarrizko zerbitzu publikoak, justizia soziala oinarritzen dutenak, mantentzea. Osasun eta hezkuntza sistema mantendu eta hobetu behar ditugu, eta okerren daudenei gure laguntza sistema mantendu. Era berean, ekonomia erreala suspertu eta benetako aberastasuna sortu behar dugu. Enpresak dira lana eman eta aberastasuna sortzen dutenak.

**J.A.:** Guk beste eredu bat egin dugu, eta gutxi ukitu ditugu gauza garrantzitsuak. Hezkuntzan, osasunean edo gizartean zerbait ukitu dugula esatea gezurra esatea da. Ezetza eman diegu Madrilgo neurriei. Enpresa txikiak defenditu ditugu, abaletarako dirua jarri dugu, kanpora atera ditugu. Turismoan marka guziak bete ditugu. Gutxirekin asko egin dugu.

**Badirudi 2016rako ez dela AHT amaituko. Nola ikusten duzue?**

**M.E.A.:** Espainiako Gobernuak ordaintzen du AHT. Ez dezagun baten batzuek sistematikoki erabili duten diskurtso manipuladorea erabili, esanez Jaurlaritzara iristen garenean dirutza horiek larritasun laguntzak emateko erabiliko ditugula.

**X.I.:** Galdera da ea Euskal Herriarentzat nolako azpiegiturak behar diren. Herrialde bakoitzean aireportu bat behar dugu?

**M.A.:** 2016an bukatzen bada ere, zer lortuko du AHTk? Seguru asko Gasteizera helduta ez dela modurik egongo Madrilera edo Parisera joateko. Eta bestalde, zamak errepideetatik aterako ditu? Ez, horixe. Nik uste dut hemen azpiegituren inguruan ez dela ikuspegi orokor bat izan.

**Ze proposatzen duzue ekonomia berpizteko?**

**M.E.A.:** Industria ezinbestekoa dugu, BPGren %35 bera dugu -eta. Arazo larriena enpresen kreditu falta da. Ekonomia sustatzeko planak egiteko asmoa dugu, I+G+i indartu, internazionalizazioa erraztu, eta abar. Beste plan baten bidez, 20.000 gazterentzat laneratzeko bidea erraztu nahi dugu. Kupoa birnegoziatzea ezinbestekoa da.

**X.I.:** Enplegua sortu eta lana banatu nahi dugu. Bat nator kalitatezko enplegua sortu behar dugula, I+G+i-ri eutsi eta zerga politika horretarako aldatu. Zenbat eta eskumen gehiago bertan eduki, orduan eta aukera gehiago izango dugu gure ekonomia suspertzeko. Enplegu gehien sortzen duten enpresak txikiak eta ertainak dira. Gure esportazioak areagotu beharko genituzke, eta merkatuak bilatu.

**J.A.:** Langabezia da gure gizartearen arazo larriena. Langabezia mozteko, ekonomia indartu behar dugu. Lehenengo urratsak eginda daude. I+G+i eta teknologia duten enpresak derrigor indartu beha dugu. Langabeziaren aurrean akordio handi bat egin behar dugu; sindikatuekin duda barik, enpresekin egin da bat eta berritu egin beharko da.

**M.A.:** Langabeziaren aurkako plana proposatzen dugu, hainbat arlotan: hezkuntza, osasuna, mendekotasuna, garraio publikoa eta energia berriztagarriak. Horiek sustatu egin behar dira. Ikerketa eta garapena ere ezinbestekoak dira. Bestalde, eraikuntzarengatik lanetik kanpo geratu direnei lan-merkaturatzea erraztu, ez etxebizitzak egiteko, baizik eta etxe berrikuntza plan baten bidez, arlo ekologikoa kontuan izanik. Horretarako, zerga politika aldatu behar da. Industriak erabateko garrantzia du, eta enpresa ertain eta txikiek maileguak behar dituzte. Ezinbestekoa da Jaurlaritzak hori ahalbidetzea.

**Euskara, gaztelania eta ingelesa ondo menderatzen dute DBH egin eta gerokoek?**

**X.I.:** Ez. Ez euskara, ez ingelesa. Hizkuntza ereduen programak kale egin du.

**J.A.:** Nahiko urrats egin ditugu. Ingelesa ez da euskararen lehiakidea. Euskara erabiltzea norberaren aukera da, baina euskarari bere lekua ematen jarraitu behar dugu. Ingelesa ezinbestekoa da gure gazteentzat.

**M.A.:** Hezkuntza publikoak bermatu egin behar du ikasle guztiak edozein eskolatik atertzea euskara eta gaztelania behar bezala hitz egiten, irakurtzen, idazten eta ulertzen. Bestalde, oso irakasle gutxi daude ingelesez irakasteko gai.

**M.E.A.:** Gure politikak gauzatu diren neurrian, bilakaera positiboa izan da. Ereduen sistema gainditu da jendeak egindako aukerarengatik: leku gehienetan D eredua lehenesten da. Bai, sistemak berrikuspen bat merezi du; seguruenik, haren helburuek anbiziodunagoak izan behar dute. Ingelesa jakitea ere denok nahiko genuke gure umeentzat, baina lehenik euskara eta gaztelania benetan bermatu behar dira.

**Ikastetxe publikoak eta kontzertatuak berdin finantzatu behar dira?**

**M.A.:** Edozein gobernuri dagokio kontzertuak alde batera uzten joan, gradualki, eta hezkuntza publiko baterantz joatea. Ezker Anitzak hau proposatzen du: kalitatezko hezkuntza publikoa garatzea. Askotan, eskola kontzertatuek badituzte ideologia edo erlijiotasun batzuk; bada, eskola horiek pribatuak izan daitezela.

**X.I.:** Publikotasunaren aldekoak gara. Baina euskararen kasuan, zaurgarria denez, erakundeek egiten ez dituzten hainbat gauza ekimen pribatutik egin behar dira, erakundeek egiten ez dutenak.

**M.E.A.:** Hezkuntza sistema nahiko orekatua dago. EAEn politikak egiten hasi ginenean, bazegoen sare inportantea, publikoa eta kontzertatua. Sistema publiko on bat, gero eta hobea, bermatu behar da, eta gero, bakoitzak egin dezala bere aukera.

**Euskarazko hedabideekin ze politika egingo duzue?**

**J.A.:** Arlo horretan ez dugu ezer kendu; bost milioi sartu ditugu euskararen alde, komunikabideetan eta euskaraz dabiltzan lantokietan, eta horrela jarraitu behar dugu. EITBk ajusteak behar baditu egingo dira.

**X.I.:** Murrizketak egon dira. Euskararen bizi iraupenerako hedabideak estrategikoak dira eta inbertsio gehiago egin behar da, eta babes berezia eman. Euskarazko hedabide bat desagertzea tragedia da. Bestalde, EITBren politika baztertzailea izan da euskararekiko.

**M.A.:** Euskararen arloan, garrantzitsuena erabilera da. Askok badakigu, baina gutxi erabiltzen dugu. Horretarako, euskal komunikabideak sustatzea eta inbertsioak handitzea ezinbestekoa da.

**M.E.A.:** Gure asmoa, beti egin izan dugun bezala, euskaraz diharduten hedabideen aldeko politika egitea da. Euskara erabiltzen duten hedabideek funtsezko garrantzia dute, gure hizkuntzak etorkizuna izan behar badu.

**Lurraldetasuna, independentzia... ameskeria da?**

**X.I.:** Ez, bizirik irauteko premia da. Ez litzateke posible datozen urteotan Gasteizen eztabaida hori irekitzea eta ikustea zer behar dugun? Abiapuntua da independentistok entzunak izateko eskubidea dugula, eta aukera eman behar zaigula Legebiltzarrean proiektu bat jartzeko eta, ahal dela, denon adostasunarekin, aurrerabideak egiteko.

**M.E.A.:** Independentea izatea ona bada Luxenburgorentzat, Alemaniarentzat... guretzat ere, neurri berean. Orain bai; Xabier, zuk esan duzu ezohikotasunetik gatozela. Badakit Sortu ez dela bere osotasunean EH Bildu, baina bai zati nagusia, eta 35 urtetik hona estrategia politiko militar batetik zatoztela. Eta ikaragarrizko porrota gertatu da, ondorioei begira gaude, eta normalizazio politikorako bidean ez duzue ezer onik aportatu. Hemen, beste batzuok urratsak egin ditugu, egungo zutabe direnak: Estatutua eta kontsulta legea. Eta aurrerako pausoak hor egongo dira. Adostasunetik abiatu beharko genuke, kontsulta batera joanda.

**J.A.:** Ez dugu nahi zatiketaren aldekoa izango litzatekeen bidea ireki. Autogobernua ona da eta elkarbizitzareko oinarria da. Ez du zentzurik, Europa honetan, independentziak.

**M.A.:** Edozein gizartek bere eredua demokratikotzat jotzen badu herritarren borondateagatik da. Gu federalistak gara, eztabaida egin behar da, eta muga bakarra herritarren borondatea da. Horretarako, ezin da eskatu eztabaida bakarrik batzuek egitea; denon artean egin beharko dugu. Eztabaida naturaltasunez egin behar da. Gure eredua autodeterminazioa da, non estatu bakoitzak zentralarekin negoziatzen dituen bere eskuduntzak. EH Bildukooi, galdera bat: independentziaz ari zaretenean, Europatik barne edo kanpo, eurotik barne edo kanpo planteatzen duzue...?, hori ere azaldu egin behar zaie-eta herritarrei.

**ESANAK**

**"Zenbat eta eskumen gehiago eduki, aukera gehiago ekonomia suspertzeko"**

XABIER ISASI | EH BILDU

**"20.000 gazteri lan-merkatura sartzea errazteko plana egingo dugu"**

M.EUGENIA ARRIZABALAGA | EAJ

**"Langabezia mozteko akordio handia egingo dugu, sindikatuekin eta enpresekin"**

JON AZKUE | PSE-EE

**"Non murriztu badago, baina herritarrei eragiten ez dieten gauzak izan behar dira"**

MIKEL ARANA | EZKER ANITZA



Elgetako Udaleko eta Frankismoaren Aurkako Kereilen Aldeko Euskal Plataformako kideak. | TXOMIN MADINA

# Martxa, frankismoaren zigorgabetasuna salatzeko

Lore eskaintza eta martxa egingo dituzte domekan, Intxortatik Elgetara

**TXOMIN MADINA** | ELGETA

Atzo, eguena, 76 urte bete ziren Elgetan zeuden miliziano eta gudariek Francoren tropa faxistak geratu zituztela. Bada, data horren harira Elgetako Udalak eta Frankismoaren Aurkako Kereilen Aldeko Euskal Plataformak deituta, *Intxortako atea* delakotik Elgetara martxa egingo dute etzi, domeka. *Tolerantziarik ez frankismoaren zigorgabetasunari* izango da leloa eta 12:00etan *Intxortako atea*-n egingo den lore eskaintzaren ostean abiatuko da Elgetarantz.

Behin heldutakoan, ekitaldia egingo dute trikitilari eta Xabier Amuritza bertsolariarekin. Bertan, hitza hartuko dute Frankismoaren Aurkako Kereilen Aldeko Euskal Plataformakoek.

**Trantsizio politiko okerra**

Plataforma horrek Euskal Herriko hamasei memoria elkarte batzen ditu, eta, bertako bozeramaile Juan Ramon Garaik azaldu duenez, justizia, egia eta ordaina eskatu gura dute, eta garai hartan gertatutakoak ez errepikatzeko bermea. Haren esanetan, gaizki egindako trantsizio politikoan demokrazia sortu berriak frankismoaren aparatu judizial eta zapaltzaile guztia jaso zuen eta frankistei ez zitzaien erantzukizunik eskatu. Gaineratu du, baina, aukera erreala dagoela frankismoaren aurka eta oraindik bizirik dauden frankisten aurka sozialki, politikoki eta auzibidez jokatzeko.

Aukera hori Argentinako Errepublikan zabaldu dela esan du Garaik, Maria Servini de Cubria epaileak aurrera daraman kereila baten bidez, hain zuzen ere. Plataformako bozeramailearen esanetan, magistratu horrek preskribatzen ez diren genozidioaren eta gizateriaren aurkako krimenei aurre egiteko justizia printzipio unibertsalean oinarrituta frankismoaren aurkako prozesu bat dauka abian. Prozesu horrek 1936ko altxamendu militarretik 1977ra bitartekoak jasotzen ditu. Garairen hitzetan, kereila horri ehunka auzi jartzaile partikular ari zaizkio batzen, baita hainbat erakunde ere.



BERBAX

**Iñigo Etxebarria**
Traumatologia arduraduna

# "Debagoieneko Ospitalea eredugarri da artroskopia zerbitzuan"

**UBANE MADERA** | ARRASATE

Iñigo Etxebarria (Gasteiz, 1970) da ospitaleko traumatologia eta kirurgia ortopedikoaren zerbitzuko arduraduna bost urtetik hona. Berrikuntzak ekarri zituen Debagoieneko traumatologia zerbitzura, eta baliteke etorkizunean ere gehiago ekartzea, berezkoak ditu-eta ikerketarako kezka eta zaletasuna. Hain justu, osteoporosia ikertzen dihardu, artikuluak argitaratzen ditu, liburuetan parte hartu ere bai, eta, ildo beretik, zazpigarren urtez, Estatuko osteoporosi topaketa egin du Arrasaten, aurtengo udan.

**Estatu mailakoa Arrasaten?**

Bai, eta esan didate ea ez den hobe hiriburu baten egitea. Beti erantzun dut ezetz, hemengo ospitalearekin oso lotura estua dudalako.

**Hemengo traumatologia zerbitzuak badu berezitasunik?**

Artroskopian eredugarri gara, batez ere, gazteei egiten zaizkien mokorreko artroskopietan. Oso gutxi egiten dira; are gehiago, Gasteizen ere guk baino gutxiago egiten dituzte. Gure kasuan, ahalegin berezia egin dugu, hainbat arrazoirengatik: traumatologiako mediku gazteek interes berezia dutelako, hedatzen dabilen sistema delako, eta goian egon gura dugunez, ikastaroetara -eta joateko ahalegina egiten dugulako.

**Urteotan izan da aldaketarik?**

Protesiak jartzeko ebakuntza txikiagoak egiten ditugu; artroskopian aurrerapen izugarriak daude... Eta tratamendu biologikoetan ere bai. Debagoienekoa da sare publikoko ospitale bakarra PRGF (hazkuntzako faktoreetan aberasgarria den plasma) aplikatzen duena. Kirolariekin erabiltzen da. Egia esan, ospitale publikoan emateko luxuzko tratamendua da, baina ahalegintzen gara ospitaleari ahalik eta merkeen irteteko moduan aplikatzen. Eta pazienteak oso pozik daude emaitzarekin.

# Mintzapraktika, bereziki, belaunaldien artean

Astean behin, zabaldu bihotzak euskarari, hizkuntzaren normalizaziorako bidean

**GOIATZ ARANA** | DEBAGOIENA

*Ireki bihotza mintzalagunendako* leloarekin, mintzapraktika bultzatzeko programak aurkeztu dituzte asteon Arrasaten.

Egitasmoa Zaharberri deitzen da Arrasaten, Berriketan Bergaran eta Barriketan Aretxabaletan, baina helburua bera da guztietan: euskaraz hitz egiteko ohitura dutenak eta ez dutenak astean behin batzea, elkarrekin euskaraz hitz egin dezaten, une atsegina igaroz aldi berean.

Ikasturte honetan, bereziki, eskolan ez ezik etxean ere eragin gura dute, eta, horregatik, gurasoak animatu nahi dituzte mintzapraktika programetan parte hartzera.

Martitzenean aurkeztu zuten aurtengo egitasmoa. Modu deigarrian aurkeztu ere: mariachi jantzita, Topagunearen kanpainarekin bat eginda.

**Euskaraz natural berba egin**

Datuak begiratuta, iaz 76 lagunek parte hartu zuten Arrasaten, 70ek Bergaran eta 45 inguruk Aretxabaletan, eta asmoa da taldeak mantendu eta berriak osatzea. Dela elkartzen direla paseoan egiteko, jolas parkera joateko edo tabernan kafe bat hartzeko, parte hartu dutenek diote oso lagungarria izan dela eurentzat.

Astean ordubeterekin eta euskaraz natural berba egitearekin aski da laguntzaile izateko; euskara titulurik ez da behar eta adinak ez du inporta. Izen-ematea zabalik dago: AEDn (Arrasate, 943 77 12 28 edo Pablo Uranga 6) Jardunen (Bergara, 943 76 08 19 edo Errotalde jauregia z/g) edo Loramendin (Aretxabaleta, 943 77 09 70 edo Durana kalea 11).

**Familia transmisioa**

Hizkuntzaren erabateko normalizazioa gauza dadin arlo sozial ezberdinetara jo beharra daukatela azaldu zuen prentsaurrekoan Bergarako koordinatzaileak, eta horien artean familia transmisioak duen garrantzia azpimarratu nahi izan dutela. Hain justu ere, arrazoi horretxegatik aurten eskolan ez ezik etxean ere eragin gura dute, belaunaldien arteko hizkuntza transmisioa erabakigarria delako euskararen normalizaziorako.



Goienagusiko kideak, eguazteneko aurkezpenaren ondoren. | Z.V.D.M.

# Astelehenean hasiko dituzte eskolak Goienagusiko lagunek

**ZURIÑE V.D.M.** | DEBAGOIENA

Goienagusi kultura elkarteak helduen ezagutzak handitzeko xedea dauka, dela gai ezberdineko eskolak emanez, aisialdi ekimenen bidez... Hala, eguaztenean eman zioten ofizialki hasiera 2012-2013 ikasturteari bertako kideek.

**Bigarrena, berritasunekin**

Goienagusi 2011n sortu zen, eta, aurreneko urteko esperientzia positiboaren ostean, bigarren ikasturteari gogotsu heldu diote. Zenbait berritasunekin aurkeztu zen zuzendaritza batzordea elkarteko bazkideen aurrean. Tartean, ikasturtean zehar landuko dituzten gaietako batzuk berriak izango dira: perretxikoak izango dituzte hizpide, baita botanika eta medikuntza txinatarra ere, doluari nola aurre egin, 60ko eta 70eko hamarkadetako pop rock musikari buruz gehiago ikasiko dute... Astelehen eta eguaztenetan izango dira eskolak, Arrasateko Etxaluze eraikinean eta Bergarako Iriziar jauregian.

**Gehienak, emakumeak**

Bitxikeria moduan elkarteak 77 bazkide dituela eta horietatik 66 emakumezkoak direla esan zuten. Hori aldatu gura lukete etorkizunean.

## Urteko langabe kopururik handiena, irailean

USOA AGIRRE | DEBAGOIENA

Langabeziak goranzko bidean jarraitzen du Debagoienean. Iraila 3.527 langaberekin amaitu da, abuztuan baino 195 gehiago. Bestela esanda, Debagoieneko biztanle aktiboaren %11,83 langabezian dago. Datuak herrika aztertuz gero, guztietan egin du gora langabe kopuruak, Oñatin, Elgetan eta Leintz Gatzagan izan ezik. Azken bi horietan langabe bat gutxiago zegoen irailean abuztuan baino eta Oñatin lau gutxiago. Orokorrean, baina, 2012ko langabezia maila handiena izan da irailekoa.

### HERRIZ HERRI

| HERRIA | LANGABEAK | EHUNEKOA |
|---|---|---|
| Antzuola | 98 | %8,98 |
| Aretxabaleta | 324 | %9,58 |
| Arrasate | 1.470 | %14,19 |
| Bergara | 889 | %12,68 |
| Elgeta | 68 | %12,55 |
| Eskoriatza | 215 | %10,55 |
| Leintz Gatzaga | 6 | %4,44 |
| Oñati | 457 | %8,71 |
| GUZTIRA | 3.527 | %11,830 |

ITURRIA: ESPAINIAKO ENPLEGU ZERBITZU PUBLIKOA

## Arbasoen jakituria gaur egungo teknologietara aplikatzeko

Arizmendi Ikastolan, Eraikuntzako proiektuak Goi Mailako Zikloaren doako matrikula epea urriaren 15 arte luzatu da.

Ziklo horrek gure arbasoen jakituriaren gaur egungo teknologiarekiko aplikazioa du ardatz. Teoria hauek irakasteko puntako informatika programak dauzkate baliabide. Informazio zehatzagoa Arizmendi Ikastolan (943772025) lor daiteke. Matrikulatzeko *www.arizmendipro.eu* webgunean sartu edo *lanbide@arizmendi.ikastola.net* helbidera mezua bidali.

## U-21



KB PHOTOESTUDIO

## "Abertzale eta ezkertiarren" bilkura

"Telesforo Monzon gogora ekarriz, Bergarako abertzale eta ezkertiar guztiak elkartu" eta argazki herrikoia atera dute. Eta gauza bera egiteko hitzordua egin dute biharko, zapatua, Antzuolan, 13:00etan, plazan.

Bestalde, urriaren 13rako Barakaldoko BECn ekitaldi nazionala iragarri du EH-Bilduk (17:30). Bada, bertara joateko autobusak antolatuko dituzte ibarretik. Txartelak salgai izango dira, tokian tokiko ohiko lekuetan.



Joseba Egibar burkidea Garaian, beste kide jeltzale batzurekin. | EAJ

## Ekonomia izan du hizpide EAJk asteon gurean

UBANE MADERA | DEBAGOIENA

Joseba Egibar Gipuzku Buru Batzarreko presidentea Garaia Berrikuntza Gunean (Arrasate), eta Rikardo Gatzagaetxebarria legebiltzarkidea Oñatin izan dira asteon, tokian tokiko EAJko bestelako ordezkariek lagunduta.

Biek ala biek ekonomia izan dute hizpide euren agerraldietan. Bi kasuetan, gainera, jarduera ekonomikoa suspertzea ezinbestekoa dela adierazi dute.



R. Gatzagaetxebarria. | A.ARANBURUZABALA

### Kooperatibismoa

Egibarrek esperantzarako deia egin zuen, esanez orain 21 urte ere langabezia maila izugarriak izan genituela eta atera ginela aurrera, eta orain ere egingo dugula aurrera, industriaren eskutik eta instituzioek behar bezalako laguntza emanda. Ildo horretatik esan du etorkizunak partekatua izan behar duela eta, kooperatibismoaren jarduteko modutik badugula zer ikasi. Haren esanetan, enpresa munduan uztarketa dago, garai onetan irabaziak guztien artean banatuz eta garai zailetan denek gerrikoa estutuz.

Horrez gain, Arrasateren dohainak azpimarratu ditu, esanez baduela ezaugarri berezi bat: lana, ikerketa eta berrikuntza enpresa munduarekin eta ekonomiarekin txertatu izana.

### 20.000 gazterendako lana

Gatzagaetxebarriaren esanetan, berriz, Espainia krisi egoera larrian dago eta EAE arrastaka eraman du. Hala ere, Espainian langabezia %25,1 den bitartean, EAEn %11 da. Horri begiratuta, krisiaren barruan ere enplegua promozionatzea badagoela adierazi zuen. Datozen lau urteetan 20.000 gazterendako enplegua sortzeko proposamena egin zuen. Gatzagaetxebarriak azaldu zuenez, enpresendako diru-poltsa bat dago eta hori erabili beharko litzateke berrikuntza eta internazionalizazioa sustatzeko: "200 -500 milioi euro erabili beharko lirateke, lau urtean iraun dezan ekonomiak; hazkundea sei urte barru etorriko da".

## Iñaki Arriola Arrasaten izango da gaur, egubakoitza

U.M. | ARRASATE

Gauerdian abiarazi da urriaren 21eko Legebiltzarrerako hauteskunde kanpaina, eta, PSE-EEk ohikoa duen moduan, gaurko, egubakoitza, egin du ibarreko lehen hitzordua, Arrasaten.

Indartsu abiaraziko du, gainera, kanpaina gurean, Gipuzkoako idazkari nagusi Iñaki Arriola izango da-eta Arrasateko azoka txikian arrosak banatzen, ibarreko eta inguruko bestelako alderdikide batzuekin batera. 11:30erako egin dute hitzordua, Laubide plazan.

### Estatu eredua aztergai

Era berean, arratsaldean beste hitzordu bat egin dute sozialistek. Orokorra, kasu honetan, euren programa politikoa aurkezteko. Patxi Lopez lehendakaria arduratuko da horrekin, Portugaleten, 17:30ean. Eta bihar, berriz, beste hitzordu "pisutsu" bat egin dute Bizkaian: Barakaldon Felipe Gonzalez sozialista izango da (12:00).

## Janaria batzeko gaur egitekoak ziren kanpaina, bertan behera

Gaurko, egubakoitza, Arrasateko Eroski hipermerkatuan janaria lortzeko kanpaina solidarioa zegoen iragarrita, *Zure erosketako pixka bat asko da* leloarekin. Bada, aditzera eman ez dituzten arrazoiak tarteko, atzeratu egingo dela iragarri dute. Data berria jakin bezain laster helaraziko dugu.

## Ezker Anitza-IUk astelehenean egingo du ekitaldi politikoa, Arrasaten

GOIATZ ARANA | ARRASATE

Kulturateko areto nagusian egin dute hitzordua, 19:00etarako. Ekitaldian izango dira Mikel Arana, alderdiko koordinatzaile orokorra eta lehendakarigaia; eta Joan Josep Nuet (1964, Reus, Tarragona), IUko diputatua Espainiako Kongresuan. Horrez gainera, eta bestelakoen artean, Spirit of Humanity (Gizatasunaren Espiritua) itsasontzian bidaiatu duen politikarietako bat da; 2009ko urtarrilean birritan ahalegindu ziren Israelen blokeoa apurtzen, giza laguntza Gazako zerrendara eraman ahal izateko.

### Estatu eredua aztergai

Iragarri dutenez, estatu modeloari buruz jardungo dute berbetan asteleheneko ekitaldian.

## Hauteskunde kanpaina hasita, hamabost eguneko esprinta

Gauerdian abiatu dute alderdi politikoek Legebiltzarrerako hauteskundeetarako kanpaina. Hamargarren legealdia izango da oraingo hau, eta 45 hautagaitza aurkeztu dira bozetara; 2009ko hauteskundeetara baino hamabi gehiago. 1.700.000 herritar baino gehiagok izango dute boto eskubidea.

## Hautagaiei elkarrizketak egingo zaizkie, banan-banan

Datorren astean alderdi politiko nagusieneko hautagaiak ezagutzeko aukera izango da GOIENAren bitartez. Batetik, Hamaika telebistak ekoiztutako banan-banako elkarrizketak emitituko dira Goiena telebistaren bitartez. Bestetik, hautagaien aurkezpena paperean ere jasoko duzue, datorren eguenean.

**Iñaki Espartza** | Bergarako UNEDeko zuzendaria

# "Mundua ulertzeko baliagarriak diren ikasketen bila datoz bereziki Bergarako UNEDera"

▸ Urriaren 19an hasiko du ikasturtea aurten Bergarako UNEDek, 3.000 ikaslerekin

▸ Paco Etxeberria forentseak egingo du ikasturte hasiera ofizialeko hitzaldia

**ENEKO AZKARATE** | BERGARA

Iñaki Espartza iruindarrak bi urte egin ditu UNED-Bergarako zuzendari. UNEDen ikasle-tipologia, hezkuntza eskaintza, egoitza aldaketa... izan ditugu berbeta gai. Urriaren 19an hasiko du ikasturtea Bergarako UNEDek.

**Ikasturtea hil honen 19an hasiko duzue, baina hasiera ekitaldi ofiziala noiz egongo duzue?**
Aurten apur bat atzeratu egin da eta azaroaren 23an egingo dugu. azkeneko urteotan bezala, Bergarako udaletxeko Osoko Bilkuren areto ederrean. Eta gonbidatu berezia izango dugu, mediatikoa erabat, momentuko gizona: Paco Etxeberria forentsea. Ekitaldi horretan lizentziatutako ikasle titulatuei diplomak banatuko dizkiegu; 80 bat dira aurten.

**Ikasturteari dagokionez, aurtengo berritasun nagusia zein da?**
Azpimarratuko nuke ez dagoela, bereziki, berritasun nagusirik edo berritasun bakar bat; izan ere, azkenaldian hasitako prozesu berritzailean edo Europako hezkuntza espaziora egokitzeko prozesuan, beste urrats batzuk eman baititugu aurten. Hainbat titulutan metodologia berriak ezarri eta metodologia zaharrak desagertzen joango gara. Bestalde, teknologia berriei dagokienez ere urrats berriak eman ditugu.

**Zenbat ikasketa gradu eskainiko dituzue?**
26 gradu ezberdin eta, esango nuke, arlo zientifiko guztiak daudela ordezkatuta. Geure unibertsitatearen izaerari lotutako ezaugarriengatik, medikuntza edo erizaintza ezin dezakegu eskaini, horietan, arlo praktikoak bereziko garrantzia duelako.

**Guztiak daude Goi-Hezkuntzarako Europar Eremura egokituta?**
Bai, nahiz eta batzuetan zalantzak izan Bologna hori zer den.

**Zergatik diozu hori?**
Gauza bat da planteamendu teorikoa; beste bat errealitatea. Europako herrialde guztiek urratsa batera eman behar genuen, baina hori ez da bete, ze, batzuek, ez baitute eman urrats hori eta Bolognaren dohain nagusia bazen Europa osoan homologatutako ikasgaiak eta titulazioak eskaintzea. Jatorrizko balio erantsia ez du lortu.

**Zenbateraino dira garrantzitsuak berrikuntza teknologikoak UNED bezalako urrutiko unibertsitate batean?**
Bereziki, gure kasuan, erabateko garrantzia dute. Halabeharrez. Gure unibertsitatea ez da horrenbeste presentziazkoa, beste unibertsitate batzuekin alderatuta. Jakinduria, ikasgelak, foroak... telematikaren laguntzaz eskaintzen ditugu. Oso inplementatuta daukagu eta etengabe berritzen ari gara.



Iñaki Espartza Bergarako UNEDeko zuzendaria Arrasaten, martitzenean. | ENEKO AZKARATE

**Azken hamarkadan, Bergarako UNEDeko ikasle kopurua hazi egin dela diozue. Zelako hazkundea izan du?**
Hazkundea etengabekoa da mende berrian. Iaz 250.000 ikasletik gora ziren UNEDen estatu osoan. Eta duela bost urte 200.000 ziren. Aurtengo kopuruak ez ditut ezagutzen, baina esan genezake aurten ere hazi egingo garela.

**Krisiak zerikusirik izan du?**
Bergarakoan, orain arte, ez bereziki. Ez du eragin horrenbeste kuantitatiboki. Hala eta guztiz ere, gure helburua ez da kuantitatiboa. Kalitateari erreparatzen diogu bereziki, edo hori zaintzen dugu, bereziki. Ikasleak ondo artatu nahi ditugu, kalitatezko zerbitzua eskainiz.

**Zenbat ikasle daude, orotara, Bergaran?**
3.000. Jakina, Bergarara astero etortzen direnak gutxiago dira. Ezin jakin zenbat, baina gutxiago. Bereziki lehen urteetan, ikasleak bertan, eskolan, egotea nahi izaten dugu.

**Euskal Herrian beste non dauka UNEDek ikasketa zentroak?**
Gipuzkoan, bakarra da, Bergarakoa; Bizkaian, Portugaleten; Araban, Gasteizen, eta Nafarroan bi daude, Iruñean eta Tuteran. Eta guztiak UNED izan arren, ezberdinak dira elkarren artean.

**Eta zerk egiten du berezi Bergarakoa?**
Duela 40 urte sortu zen UNED eta handik oso gutxira sortu zen Bergarako zentroa. Hau da, ia sorrera-sorreratik dago Bergaran UNED. Jatorrizko lotura dauka Bergarako zentroak, garai hartan Bergarako agintariek ikusi zutelako premia hori eta apustua egin zutelako. Bergaran, hortaz, erabat erakundetuta eta errotuta dago unibertsitatea. Beste lurralde batzuetan ez da hori gertatzen eta inbidiaz ikusten gaituzte.

**Ze ikasketa dira eskaera handienak dituztenak, zeintzuk dira izarrak? Zergatik?**
Asko eta asko, Historia, Artea, Psikologia, Zuzenbidea, Enpresa ikasketak ikastera datoz. Mundua ulertzeko baliagarriak dira ikasketa horiek. Eta ez dago ikasle tipo jakin bat; gazteak zein helduak daude, gizonezko zein emakumezkoak. Horretan, hasieran, UNEDera etorri aurretik izan nezakeen aurreiritzia ez da bete. Agian, proportzioetan izan daitezke ezberdintasunak gurearen eta beste ohiko unibertsitate batean artean, baina, oro har, ez.

> **"Bologna ez da bete: planteamendu teorikoa, bai; errealitatea, ez"**

> **"Jakinduria, ikasgelak, foroak... telematikaren bidez eskaintzen ditugu"**

> **"Ia sorreratik dago Bergaran UNED; eta horrek berezi egiten du"**

> **"Seminarioa eraikin dotorea da, baina ez dago gure nahietara egokituta"**

**Geografikoki, nondik datoz?**
Gehienak lurraldekoak dira, gipuzkoarrak. Eta, ondoren, inguruko lurraldeetatik. Bergara, Hego Euskal Herriaren erdi samarrean dago, ondo kokatuta.

**Zerk bultzatuta datoz Bergarako UNEDera ikastera?**
Bereziki, jakin-minagatik, edo gaitasun zehatz bat eskuratzearren, edo lanean egonda ere, jakinduria zehatz batean sakontzearren.

**Unibertsitate ikasketez gain, beste diziplina batzuk ere eskaintzen ditu Bergarako UNEDek. Zeintzuk dira diziplina horiek?**
Hainbat prestakuntza, aspalditik: Osteopatia, Liburutegi laguntzailea, Giza laguntzaile izateko prestakuntza ¡zehatzak... Arrakasta handiz. Udako ikastaroak ere egiten ditugu. Aurten, esaterako, inoiz baino jende gehiago izan dugu eta oso kalitate onekoa izan da.

**Euskarak ze toki dauka Bergarako UNEDen?**
Gure eskaintza propioan, esaterako, Haurrak eta musika, Idazle Eskola... eskaintzen ditugu. Esan genezake gure marka direla, gure berezigarriak, eta euskaraz dira. Gure administrazioko kideekin eta ikasleekin harremanak euskaraz dira, normalizatuta dago, nahiz eta materiala gaztelaniaz egon.

**Behar dituen moduko instalazioak ditu Bergarako UNEDek?**
Errege Mintegia eraikin dotorea, ederra da, eta konponduta dago. Baina jatorrian ez zegoen pentsatuta gaur eskaintzen den heziketarako. Logikoa da, beste garai batekoa delako. Bestalde, herriaren erdi-erdian dago eta horrek aukerak eskaini arren, arazoak ere bai: zarata dela-eta. Esaterako, herriko jai nagusietan azterketatan egoten gara...

**Teilatupea erabiltzen duzue?**
Ez, horixe da berrituta dagoen zati bat, baina ez dugu erabiltzen, ez dakigulako etorkizunean bertan izango garen ala aldatuko garen tokiz.

**Permutaren gaia zela dago?**
Patronatuan dauden erakundeak permuta gauzatzearen aldeko dira. Baina ez da asmo erraza. Aukera guztiak aztertu behar dira eta une egokia hartu azken erabakia hartzeko. Mahaiaren gainean dago gaia eta aurki erabakiko da.

## ZABALIK

**GOIO ARANA**
http://goiena.net/iritzia/



# Nortasun digitala: hil ala bizi

Joan den astean, 200 aditu europarrek egindako azterketa bat argitaratu zen, berau Europako Batzordeak bultzatuta; ikertutako Europako hizkuntza gehienek ez dute bizirik iraungo aro digitalean. Gainera, ikerlarien arabera, euskara dago Europan galduko omen diren 21 hizkuntza horien artean.

Ondorio horietara iristeko, Meta-Net sareko ikerlariek –tartean, bederatzi euskaldun– aztertu dituzte Europako 30 hizkuntza eta horiek duten babes-maila hizkuntza-teknologiari dagokionez. Arreta jarri dute lau arlotan: itzulpen automatikoa, ahots bidezko interakzioa, testu-analisia eta hizkuntza-baliabideen eskuragarritasuna. Lortutako emaitzak sailkatzeko, aldiz, bost maila finkatu dituzte. Euskarari erreparatuta, aztertu dituzten lau ataletatik hirutan, gure hizkuntza mailarik baxuenean dago, eta bakarrik koska bat igotzea lortzen du Hizkuntza prozesamendua atalean (gaztelera eta frantsesa, arlo guztietan, maila ertainean daude, eta bakarrik ingelesa iristen da, atal guztietan, egoera onera. Aro digitalera begiratuta, ez dago Europan hizkuntzarik egoera bikainera iristen denik).

> **"Azkar erantzun behar diegu eremu digitalean ditugun erronkei"**

Aste berean, eta AEDk antolatutako hitzaldi sortaren estreinaldian, Lorea Agirre MUko irakasle eta Sorguneak taldeko ikerlariak hitzaldia eman zuen Arrasaten. Identitatearen bueltan aritu zen beasaindarra: euskaldun izatearen, hau da, nor izate aukeratzearen bueltan. Nabarmendu zituen, besteak beste, kontzientzia hartzeak duen garrantzia, politika ausarten beharra, estetikaren balioa eta, bereziki, transmisioaren ezinbestekotasuna. Agirreren esanetan, transmisio barik, ez dago euskaldun izatea hautatzerik, alegia, ez dago (ez dugu) nor izaterik.

Soka beraren bi muturrak: identitatea eta nortasun digitala. Nago, euskararen transmisio "analogikoari" eutsita ere, euskaldunok jai dugula ez badiegu serio eta azkar erantzuten eremu digitalean ditugun erronkei. Izan ere, esparru digitalean ere, nor izatea   hil ala biziko kontu bilakatu da.

## USTEAK USTE

**ENEKO AZKARATE** | eazkarate@goiena.com

# Hurrengo lehendakaria

Bistan ditugu beste bozketa batzuk. Normalizazio politikoia erabatekoan, Eusko Legebiltzarrerako egingo diren lehenak. Hurrengo lehendakaria herritar guztien borondatetik eratorria izango da; Lopez ez bezala. Mintegi versus Urkullu. Horixe lehia nagusia. Lehia estua, azkenaldiko boto joerari erreparatuz gero. Koalizioak irabaz dezake, batasunerako ahaleginak herritarrak erakartzen ditu-eta. Baina, uste dut Urkullu izango dela lehendakaria. Irabazi ala ez. Une honetan, EAJri ikusten dizkiot borondate, gogo, premia eta adostasunetarako ahalmen handiagoak. Hartara, EH Bilduk arnasa hartuko du; askoz erosoago egongo delako gobernu jarduna baldintzatzen, herria Ajuria Enetik gidatzen baino.

## GUTUNAK

# Lurdes Idoiagaren alde

**Juan Mari Iturrospe**
Oñati

Nahikoa da! Herriaren alde lan egiteak ez du horrelako erantzunik merezi. Ez Idoiak, ezta beste inork ere.

Faxismo denboran gertatzen ziren horrelako gauzak eta argi ibili beharko dugu faxista batzuk gure herrian bizi diren bitartean.

Okerrena da jende askok txalotu, isildu edo ezkutatu egiten dituela horrelako ekintzak, indar gehiago emanez faxista buru gabeko hauei.

Ni ere Lurdesekin nago. Animo, Lurdes. Jarraitu beti bezala zure ideiak defenditzen eta Oñatiren alde bakean eta gogoz egin duzun eta egiten duzun lana egiten.

Faxistak, fan hemendik!

# Krisi garaian gure ongizatea defendatu behar dugu

**Lourdes Idoiaga Urkia**
(EAJ-PNVko zinegotzia)
Oñati

Hauteskunde garaian hitzemate eta agindu asko entzuten ditugu, baina faltan botatzen ditugu Euskadiko Ongizate Sistemaren aldeko konpromiso serioak hartzen dituzten politikariak. Orokorrean egiten diren diskurtsoak soberan daude eta benetan zer egingo duten esaten duten politikariak dira behar ditugunak. Konpromisoak hartzeko garaian bizi gara, ez hitz hutsetan geratzen diren hitzemate garaian.

Euskadin, 30 urtetan zehar EAJ-PNVk lideratu duen Eusko Jaurlaritzak gizarte zerbitzuetarako legeak, dirusarrerak bermatzeko laguntza eta gizarteratze legeak sortu dira. Honekin, gizarte azpiegiturarik handiena sortu dugu, menpekotasun egoeran, pobrezian edo gizarte baztertze egoeran dauden pertsonei babesa emateko gizarte azpiegitura. Bi lege hauek zailtasunetan dagoen edonoren eskubideak bermatzen dituzte. Lege hauek, bestalde, Europako iparraldeko herrialderik aurreratuenetan dauden antzerako legeak dira eta Espainian dauden babes sozialeko legeek baino babes handiagoa ematen dute. Euskadin sortu dugun azpiegiturarik handiena pertsonen babesa bermatzeko giza azpiegitura da.

Beraz, orain ez da hitzemate antzuak aldarrikatzeko ordua. Orain EAJ-PNVk egin duen bezala, konpromiso sendoak hartzeko garaia da, azpiegitura baliotsu hau defendatu eta hobetzeko, osasun publikorako zerbitzua eta hezkuntzarekin batera. Hala izan behar du, azken mendeko krisirik larriena pairatzen ari garen honetan, egoera anker honetan hain zuzen, defendatu eta hobetu behar ditugu gizarte zerbitzuak.

Krisi ekonomikoak bizi izan dugun oparotasunaren paradigma zalantzan jartzen duen honetan, maila guztietako gobernuek, gauzak modu egokian planifikatuz, gaur eta etorkizunean jasangarria den babes sozialeko sistemari lehentasuna eman behar diote modu egokian planifikatuz. Ez dira inbertsio handiak egiteko garaiak, ez behintzat inprobisazioz, ez eta jai giro, propaganda eta zaborretan dirua xahutzeko garaiak. Austeritate, plangintza eta aurrekontuetan zorroztasunez jokatzeko garaia da. Enpresa txiki eta ertainei lagundu egin behar zaie aberastasuna sortzeko eta lana sortzeko, gazteentzat lana sortzeko, batik bat. Gure giza azpiegitura hau bermatzeko beharrezkoa da aberastasuna sortzea.

Guk konpromisoa hartzen dugu kale gorrian inor ez uzteko eta gizarte laguntzak bermatzeko. Pertsonak dira gure kezkarik nagusiena eta beharrezkoa izanez gero, gure errenten politika birbanatzaileei ekingo diegu behartsuenekin solidaritza bultzatzeko. Gure hitza ematen dugu. Progresistena ez da gehien hitz egiten duena, gehien konprometitzen dena baizik.

# Ez naiz ekonomialaria, baina...

**Jon Otero Uribarren**
Arrasate

Ez dut ulertzen ekonomiaz, baina gizatasunaz bai.

Ez dakit zer den eskuina eta ezkerra, baina sozialista naiz.

Zer egiten du sozialista batek loteriaz, adibidez, aberasten bada? Lan egiteari utzi eta erredituetatik bizi. Zer egiten du kapitalista batek aberasten bada? Enpresa bat sortu, lanpostu bat sortu eta etekin doblea atera.

Zer nahi du kapitalista batek? Lan-sari txikia eman aberastasuna handitzeko. Eta sozialista batek? Soldata ona jaso, umeak mantendu, etxe bat erosi eta kotxea erosi, ez delako ahuntzaren gauerdiko eztula.

Biek nahi dute dirua, dirua ilusioa delako eta ilusio barik ezin delako bizi. Diru behar hori gizatasunez ulertzen dugu guztiok. Baina 1968an sortu zen gailu merke bat, aberatsen eta pobreen gustukoa, telebista. Kanal bat bakarrik, eta gau eta goizez ez zuen emititzen.

Bost urte geroago hasi zen langabeziaren kalamidadea, eta langabeziak, asko edo gutxiago, gaur arte iraun du. Hori bai ulertzen dut, lan munduak gizatasuna behar duela, gizakia delako lan eta etekinen indarra, ilusioz egina.

Jainkoaz ahaztu gara, deabruaz ere bai, eta telebista, irratia eta musika diskoa deabrua dira, eta, ondorioz, debekatu egin behar dira.

17 urtean ez dituzte nire gutunak erantzun, baina krisitik ez gara irtengo gailuek herria engantxatzen duten artean.

**Atal honetan argitaratzeko diren gutunek, gehienez izan behar dituzte 1.900 karaktere (hutsuneak barne). GOIENAk eskubidea du gutuna laburtzeko.**
Gutunarekin batera, bidali: egilearen izena eta abizena, herria eta telefonoa. Gutuna helarazteko bideak: Otalora Lizentziaduna 31, 20500 Arrasate | gutunak@goiena.com | Faxa: 943 25 05 00

goiena
KOMUNIKAZIO TALDEA

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea E05 Basabe Poligonoa, 20550 ARETXABALETA
**Lehendakaria** Estepan Plazaola
**Zuzendari nagusia** Inazio Arregi

**Zuzendaria** Eneko Azkarate
**Erredaktore burua** Ubane Madera
**Sailetako arduradunak** Xabi Urtzelai (Kirola), Iñaki Iturbe (Diseinua), Mireia Larrañaga (Publizitatea)

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Imanol Soriano, Kepa Martelo
**Publizitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziortza Martin, Imanol Elortza
**Testuen zuzenketa** Sergio Azkarate.
**Harpidetza eta banaketa** Marta Leturia.
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berezibar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA - GOIENA PAPERA ARRASATE 20500**:
Otalora Lizentziaduna 31 | 132 posta-kutxa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 00

**ORDEZKARITZA ARETXABALETA 20550**:
E05 Basabe Poligonoa
Tel.: 943 25 05 05 | Faxa: 943 25 05 09

**Publizitatea** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
Faxa: 943 25 05 09 | publi@goiena.com

**Harpidetza** Aretxabaleta 20550
E05 Basabe Poligonoa | Tel.: 943 25 05 05
harpidetza@goiena.com

**Lege Gordailua:** NA-3329/2000
**ISSN:** 2174-369X
**Tirada:** 20.100 ale
**Difusioa:** 19.951 ale

GOIENAk ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK orrialdeetan, edo bestelako orrialdeetako kolaboratzaileek, adierazitako iritzien erantzukizunik.

LAGUNTZAILEAK
Gipuzkoako Foru Aldundia | Arrasateko Udala | Bergarako Udala | Oñatiko Udala | Aretxabaletako Udala | Eskoriatzako Udala | Antzuolako Udala | Aramaioko Udala | Elgetako Udala | Leintz Gatzagako Udala

Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila diruz lagundutako aldizkaria

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza


EUSKADI
AURRERA
PROGRAMA
urkullu.eu
eaj
pnv
Hitza ematen dut.



# UDAKO ARGAZKIEN VIII. GOIENA LEHIAKETA



Argazki guztiak fotoblog honetan: *goiena.net/blogak/argazkiak*

Baita hemen ere: udakoargazkiak udakoargazkiak

# Banatu ditugu sariak

Dagoeneko banatu ditugu Udako Argazkien VIII. Goiena Lehiaketako sariak. Mikel Sedano Rueda oñatiarrak irabazi du lehen saria, *Non dago ikurrina?* argazkiarekin. Portugalen atera zuen hura. Bigarren saria Mireia Agirre Agiriano oñatiarrak eskuratu du, *Vespan lau haizetara* argazkiari esker. Italian atera zuen. Eta hirugarrena Garazi Olabarria Elizondo bergararrak irabazi du, *Boliviako gatzaga* argazkiari esker. Herritarrek euren botoekin Mikel Uribarren Borrego arrasatearraren *Ur jauzia* argazkia aukeratu dute. Eta botoa eman zutenen artean egindako zozketan, berriz, Igor Setien Arana bergararrak jaso du boto emaileentzako saria.

1



1



**SARI NAGUSIA**
Mikel Sedano Rueda oñatiarrak irabazi du sari nagusia: Canon EOS 1100 D reflex argazki-kamera digital bikaina, KB Photoestudio argazki-dendak eta Canon etxeak eskainitakoa. Argazkiak Mikel Sedano KB Photoestudioko Idoia, Jon eta Bibirekin.

2



3



HERRITARREN SARIA



BOTO EMAILEENTZAKO SARIA



**BIGARREN SARIA**
Mireia Agirre Agiriano oñatiarrak irabazi du bigarren saria: bi lagunendako aste bukaera bateko egonaldia Kantabrian, Arrasate Bidaien eskutik. Arrasate Bidaietako Amanda Sanchezek eman zion saria.

**HIRUGARREN SARIA**
Garazi Olabarria Elizondo bergararrak irabazi du hirugarren saria: bi pertsonarendako afari edo bazkaria Leintz Gatzagako Gure Ametsa jatetxean. Gure Ametsako Marisak eman zion saria.

**HERRITARREN SARIA**
Zuen botoekin Mikel Uribarren Borrego arrasatearraren argazkia aukeratu duzue. Saria: bi pertsonarendako SPA zirkuitua eta asteburuko menua Debako AISIA hotelean. Iban Albizuk jaso zuen saria Mikel Uribarrenen ordez.

**BOTO EMAILEENTZAKO SARIA**
Botoa eman zuten guztien artean egindako zozketan Igor Setien Arana bergararra izan zen aukeratua. Otarre bat jaso du, Arrasateko Karibu dendaren eskutik, munduko askotariko kafez osatua. Karibuko Nuria Duranek eman zion saria.

2



3



HERRITARREN SARIA



ANTOLATZAILEA:
goiena KOMUNIKAZIO TALDEA

LAGUNTZAILEAK:
kb photoestudio www.kbphotoestudio.com Canon
ARRASATE BIDAIAK
GURE AMETSA JATETXEA
aisia HOTELES
karibu munduko zaporeak karibumundukozaporeak.com

# HERRIAK

ARRASATE

# Aurten dotorezia eguzkiarekin bat dator Maritxu Kajoirako

## Gaur 36 urte betetzen ditu festak; hedatu da, baina jatorria ahaztu barik

**JOKIN BEREZIARTUA** | ARRASATE

Arrasatearron Ama Birjinik kutunenak 36 urte bete ditu gaur. Urte asko pasa dira Pepe Txantxote jaiaren sortzaileetako batek Maritxuren omenez hartutako lehen txikito hartatik, eta, urte batzuen ondoren, 1977ko urriaren 5ean zenbait koadrila jai modura ospatzen hasi zirenetik. Arrasateko txikitero saltsero haren haziak fruitu emankorra eman du, denetariko mugak gainditu dituen jaia bihurtzeraino.

Jaia hedatu da, baina jatorria ahaztu barik. Eta urteetan aurrera egin duen arren, Maritxu gazte dago oraindik, gizartearen azken tendentziekin bat. Horren adierazle da aurtengo miraria zuzenean ikusi ahal izango dela streaming bidez Komisiñoaren webgunetik. Sare sozialetan ere oihartzun handia izan du; ia 2.400 lagun ditu Maritxuk Facebooken.



Iazko mirariaren une bat: Amaia Lizarantzu *Maritxu*-ren paperean eta Jon Zubiaga *Bartolo*. | JOSETXO ARANTZABAL

### Krisia bai, baina jaia ere bai

Herriak egina herriarendako. Hori da Maritxu Kajoiren esentzia, eta herriak bizi duen egoeraren isla ere bada ospakizuna bera. Krisiak jo du Maritxu: jatetxeetan ohi baino leku gehiago dago –aurten elkarte gastronomikoek izan dute arrakasta– eta ile-apaindegiak lan gutxiagorekin dabiltza. Amaia Albes diseinatzaileak hainbat dei jaso ditu iazko soinekoari aldaketaren bat egiteko eskatuz, berria erostea ekiditeko. Dunixe Royo bitxigileak ere eman dizkigu gomendioak: "Etxeko bitxiak hartu, hainbat bitxi egoten dira -eta hor zeudela ere ez zekigunak. Soinekoarekin probatuz beti egin daiteke zerbait".

Bestalde, Ceciaga dendaren hutsunea sumatuko zuten askok aurten, baina 104 urtez zabalik egon ostean heldu da ordua Rosaritok eta konpainiak ere festaz goza dezaten. Nobenaixua-n ondo merezitako omenaldia egin zieten Komisiñokoek. Izan ere, herritarrez gain, Komisiñoa da jaiaren etorkizuna bermatzen duena. Egun, 25 bat kidek osatzen dute, hainbat lantaldetan. Ospakizuna urtez urte hobetzeko lan handia egiten dute: "Bakoitzak egin ditzakeen ekarpenen arabera banatzen ditugu lanak", dio Haritz Zubiatek.

Azkenik, eguraldi iragarpenen arabera gaur ez du euririk egingo, eta, aurrekariak ikusita, hori bada miraria. Noski, eguraldi onak kanpoko jendea erakarriko du, eta, beraz, ondo pasau, gutxi gastau, baina mesedez, txikito bat behintzat pagau!

### Shanghain ere ez da mirarirìk faltako

Aurten, laugarren urtez, Shanghaiko (Txina) Euskal Etxean Maritxu Kajoi ospatuko dute. Xabi Coronado arrasatearra da etxeko presidentea: "Nire herriko festa jendeari ezagutzera emateko aukera ezin hobea nuela pentsatu nuen eta gogotsu ekin nion ekitaldia antolatzeari". Urriaren 13an ospatuko dute aurten, Txinan oporrak direlako asteon. Hori bai, mirarirìk ez da faltako. Iazkoa kontatu digu Coronadok: "Kuluska tabernaren atarian kantua abestu eta bat-batean zerutik agertu zen Maritxu". Txistulariak, aurreskua eta Arrasatetik etorritako dragoi txinatarra ere ez ziren falta izan iaz. Ea aurten zer prestatu duen Maritxuk Shanghairako.



Iazko ospakizuna; ordu aldaketaz, noski. | X.C.

### Eskapularioa, ezinbestekoa

Maritxu Kajoi Komisiñoak "eskapularioa zintzilik eta dotore-dotore jantzita" irteteko deialdia egin du aurten ere. Aurrez lortu ez duenak salgai izango ditu taberna batzuetan eta kalean, goiz zein arratsalde; Arbolapetan, Portaloian eta parrokiako arkupeetan egongo dira.




Aurtengo eskapularioa. | MKJ

### GAURKO ZITA GARRANTZITSUAK

**18:00** Irrien Lagunekin *Kanta eta dantza* ikuskizuna Herriko Plazatik Seber Altuberaino. Euria bada, Biteri plazan egingo da amaierako ikuskizuna.

**18:30** Konpartsa txikiaren kalejira eta lore eskaintza.

**19:00** Oria txarangaren doinuak Herriko Plazan.

**20:30** Herriko koadrilen lore eskaintza eta Maritxu Kajoiren miraria.

**00:00** Manillares Iturriaga musika taldearen kontzertua gaztetxean.

**00:00** Luhartz taldearekin dantzaldia Herriko Plazan.

**ZUZENEAN** Aurten ere miraria zuzenean ikusteko aukera egongo da munduko edozein txokotatik, *www.maritxukajoi.org* webgunean.




Zubi berriaren goiko partean langileak burdinak jartzen, atzo, eguena | U.M.


Zubi berria, azpitik . | UBANE MADERA

# San Isidroko zubiaren pasabidea berreraiki dute, zabalago

Axerikoa zubi berriaren ezaugarrien artean, espaloia izango du zubiaren alde bietan; zaharrak alde bakarrean zeukan oinezkoendako pasabidea

**UBANE MADERA** | ARRASATE

San Isidroko zubi berria eraikitzeko obraren zatirik ikusgarriena egunotan dabiltza egiten: zubiaren pasabidea.

Hain justu, pasabidearen euskarri diren burdinak ipintzen dihardute langileek, hormigoiarekin estaliko dituzte ostean, eta "hormigoi barrenetik doazen kableak tenkatu" beharko dituzte pasabidea bukatzeko, obra arduradunak azaldu moduan.

Behin hori eginda, inguruko urbanizazio lanak egin, eta obrak bukatutzat emango dituzte.

Horrela esanda, denbora laburreko zeregina dirudi, baina "lan handia dago egiteko" oraindik, eta proiektuan zehaztutako amaiera datarekin segitzen dutela esan du arduradunak: abendua.

## Espaloi bikoitza

Dagoeneko, baina, Axerikoa zubi berriaren ezaugarri nagusiak bistan dira: lehengoa baino zabalagoa da, gainetik zein azpitik.

Gaineko parteari dagokionez, bereziki oinezkoei egingo die mesede (Axerikoa baserrikoek batez ere), zubi berriak albo bietan izango duelako espaloia. Zubi zaharrak, berriz, ez zuen espaloirik Musakolako ermitaren aldean.

## Urarendako pasabidea

Beheko parteari dagokionez, berriz, Deba ibaiaren ubideari egingo dio mesede Musakolako zubi berriak. Urak, eta bereziki ur handiek, behar besteko bidea izango dutela ziurtatzeko, zulo hutsa duen zubia eraikitzen dihardutelako. Hau da, zubi zaharrak arkua zuen moduan, oraingo honek zutabe bakarra du zubipean. Gainontzeko espazio guztia libre utzi dute, ura pasatzeko.

Hain zuzen ere, horixe izan da zubi zaharra bota eta berria eraikitzeko arrazoia: ur handiak datozenerako, zubi zaharraren arkua nahikoa ez zela erabaki zuen URAk, Eusko Jaurlaritzaren Uraren Euskal Agentziak, eta "arrisku nabarmena duen zona izateagatik, zubiaren ordezkatzea ezinbestekotzat" jo zuen. Hala, ekainean itxi zuten Arrasaterako Musakolako sarrera, eta uztailean bota zuten zubi zaharra.

# Frankismoko emakumeen bizipenak aztergai

**ZURIÑE V.D.M.** | ARRASATE

Ekin Emakumeak Elkarteak frankismo garaian ibarreko emakumeen eginkizuna eta bizipenak oroitzeko asmoz proiektu bat ipini du martxan, Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubideen eta Oroimen Historikoaren Zuzendaritza Nagusiarekin batera. Tamara Perez elkarteko eragileak adierazi duenez, kezkatuta zeuden gehienetan gizonezkoen ikuspegitik kontatu izan delako historia: "Asmoa da emakumeek ere egoera hura bizi izan zutenez, ezkutuan geratutako bizipenak azalarazi eta ezagutzera ematea".

Orain arte herriko beste talde batzuek 36ko gerrari buruz eginiko lana ikusita hautatu dute Frankismoa lantzea. Bederatzi laguneko taldea osatu dute eta bi astean behin bilduko dira Ekineko lokalean; hurrengo bilera urriaren 17an izango da, 18:00etan. Badute zer egin: "Artxiboak kontsultatu, informazioa jaso, testigantzak bildu..." Taldea osatuta egon arren, interesa duten guztiak gonbidatu dituzte bileretara.





Zeziaga eta Sagasta Brasilen egon dira Mundukiderekin. | Z.V.D.M.

**Ainhoa Zeziaga eta Antton Sagasta** | Boluntarioak

# "Lur zati batengatik bizi osoko inbertsioa egiten dute MSTkoek"

## Brasilgo Parana eskualdean egon dira, kontu ikuskaritza egin eta kurtso bat ematen

**ZURIÑE V.D.M.** | ARRASATE

Mundukide-Lankik Brasilgo Movimiento do Trabalhadores Sem Tierra (MST) mugimenduarekin duen lankidetza programan boluntario aritu dira Ainhoa Zeziaga eta Antto Sagasta, beste lagun batzuekin batera. Parana eskualdeko Laranjeiras do Sul herriko esperientzia kontatu digute.

**Nola eduki zuten proiektuan parte hartzeko aukera?**

**Antton Sagasta:** LKSko auditorea naiz. Mundukide gure bezeroa da, eta eskaera egin ziguten mota honetako proiektuetan kontu-ikuskaritza lanak egiteko. Uztaileko azken astean bertaratu ginen.

**Ainhoa Zeziaga:** Nire kasuan, Mundukideko arduraduna ezagutu eta hark proposatu zidan proiektua ikustera joatea. Eta zerbaitetan lagundu gura nuenez, gestioaren gaineko kurtso bat eman dut bertan.

**Nolako tokia aurkitu duzue?**

**A.Z:** Brasilen gaineko aurreiritzi bat neukan eta zona hartara joaterakoan guztiz bestelako tokia aurkitu nuen. Nahiko europarra da inguru hura, eta izateko eragatik gurekin antzekotasunak dituzte. Oso jatorrak dira, baina nahiko itxiak, eta esaterako, gai pertsonalez haiekin berba egitea kostatzen da. Bestalde mugimenduaz banekien zerbait, eta oso interesgarria izan da bertatik bertara ezagutzea.

**A.S /A.Z:** Latifundioak daude bertan, baina konstituzionalki, irizpide batzuk bete ezean lurrak desjabe daitezke: edo lurrak ez direlako erabiltzen edota bertako langileak esplotatu dituztelako. Horretan oinarritzen da beraien mugimendua; bide ertzean egoten dira zain, urteak ere eman ditzakete lur zati bat bereganatzea itxaroten. Hori da agian gogorrena, ez dakitelako azkenean beraiena izango den lur hori; bizitza osoko inbertsio bat egiten dute.

Lurra nola kudeatu dezaketen eta nola antolatu daitezkeen erakutsiz lagundu dezakegu. Izan ere, asko hirietatik joandakoak dira, eta hazi batzuk landatzea aski dela uste dute; gutxienez, aberastasun bat eskuratzeko ere lan egin dezatekela jakinarazi behar zaie, eskubidea dute eta.

**"Oso interesgarria izan da MST mugimendua ezagutzea"**

Olatz
Musika akademia

- Gitarra, piano eta baxu eskolak.
- Irakasteko hainbat metodo aukeran: solfeoa, tablatura, zifratu amerikarra eta esperimentala.
- Adin guztietarako.

Alfontso X Jakintsua 7 (Grupo San Juan) ARRASATE.
Tel.: 627 13 26 14 • olatzurkia@gmail.com

ERRETRATU ZAHARRA

# Alkartetxearen urteurrena

Alkartetxeak urtebete zeraman irekita argazkia atera zenean. Urteurrena ospatzeko egindako bazkarian, EA alderdiko kideen aurrean berbaldia eskaini zuen Carlos Garaikoetxeak. Bihar, zapatua, Arrasateko Alkartetxeak 26. urteurrena ospatuko du. Hala, 12:00etan meza egingo dute, San Frantzisko elizan, hildako alderdikideen omenez. Ondoren, mahaiaren bueltan eseri eta bazkaria egingo dute, 14:30ean, Alkartetxean bertan.



**Argazkiaren egilea:** Eusko Alkartasuna.
**Jabea:** Eusko Alkartasuna. **Urtea:** 1987.

ARETXABALETA Lanbide Eskola
Goi mailako Lanbide Heziketarako Berariazko Institutua

2012/2013 IKASTURTEA
IKASTAROAK DOHAINIK
LANGILE ETA LANGABETUENDAKO

PROFESIONALTASUN ZIURTAGIRI BERRIAK

LANGILE ETA LANGABETUEI ZUZENDUA (HOBETUZ)
KATALOGO MODULAR *BERRIA*

| ZIURTAGIRI PROFESIONALAK | PRESTAKUNTZA MODULOAK | PRESTAKUNTZA UNITATEAK | Orduak |
|---|---|---|---|
| (FMEH0109) TXIRBI-HARROKETA BIDEZKO MEKANIZAZIOA | MF0089_2 Txirbil-harroketa bidezko prozesua | UF0876 Zehaztapen teknikoak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan | 60 |
| | | UF0991 Prozesuen koste balioa txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan | 40 |
| | MF0090_2 Txirbil-harroketa bidez mekanizatzeko makinak eta sistemak prestatzea | UF0880 Fabrikazioen prozesu osagarriak txirbil-harroketa bidezko mekanizazioan | 70 |
| | MF0091_2 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa | UF0881 Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioen prozedurak | 80 |
| | | UF0883 Mekanizatutako txirbil-harroketa bidezko produktuen egiaztapena | 30 |
| (FMEC0110) SOLDADURA ELEKTRODO ESTALIEKIN ETA TIG | MF0099_2 Arku elektrikoarekin elektrodo estali bidezko soldadurak egitea | UF1640 Planoen interpretazioa soldaduran | 60 |
| | | UF1622 Ebaketa prozesuak eta ertzen prestaketa | 70 |
| | | UF1623 Rutilozko elektrodo estaliekin karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea | 90 |
| | | UF1624 Basiko elektrodo estaliekin karbono altzairuzko txapak eta profilak soldatzea | 90 |
| | | UF1625 Elektrodo estaliekin karbono altzairuak, altzairu herdoilgaitzak eta beste material batzuk egiturak soldatzea | 90 |
| | MF0100_2 Gas babeslepeko arkuarekin elektrodo ez-kontsumigarriaren bidezko soldadurak (TIG) egitea | UF1626 karbono altzairuen TIG soldaketa | 90 |
| (FMEC0210) SOLDADURA OXIGAS ETA SOLDADURA MIG/MAG | MF0098_2 Oxigas bidezko soldadurak eta proiekzio termikoak egitea | UF1672 Oxigas soldadura | 70 |
| (SSCS0108) ETXEAN DAUDEN PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA | MF0249_2 Etxean egiten den higienea eta osasun arreta | UF0119 Menpekotasun egoeran dauden pertsonen ezaugarri eta higiene-osasun beharrak | 70 |
| | | UF0120 Etxeetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen elikagaien administrazioa eta tratamendua | 50 |
| | | UF0121 Etxeetan menpekotasun egoeran dauden pertsonen ahalmen fisikoak hobetzea eta lehen sorospenak | 50 |
| (SSCS0208) ERAKUNDE SOZIALETAN DAUDEN MENPEKO PERTSONEN ARRETA SOZIOSANITARIOA | MF1017_2 Erakundeetan, higiene -elikaduraren arretan esku hartzea. | Erakundeetan, higiene -elikaduraren arretan esku hartzea | 70 |

LANGABETUEI ZUZENDUA (LANBIDE) DOAN

| | | |
|---|---|---|
| ZIURTAGIRI PROFESIONALA: FMEC0210 | Soldadura oxigas eta soldadura MIG/MAG | 430 |
| ZIURTAGIRI PROFESIONALA: FMEH0109 | Txirbil-harroketa bidezko mekanizazioa | 280 |
| ZIURTAGIRI PROFESIONALA: TMVL0109 | Mantenimendu eragiketa osagarriak ibilgailu elektromekanikoetan | 270 |
| ZIURTAGIRI PROFESIONALA: SSCS0208 | Erakunde sozialetan dauden menpeko pertsonen arreta soziosanitarioa | 480 |

KATALOGO MODULARRETIK KANPO

| | |
|---|---|
| Altueran lan egitea | 20 |
| Garabietan lan egitea | 20 |
| Eskorgan lan egitea | 20 |
| Soldadoreen homologazioa | 60 |

DOAN

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO
HOBETUZ
Europako Gizarte Funtsa
lanbidez heziketa formación profesional

ETXEBARRI AUZOA Z/G 22 Pk.
20550 ARETXABALETA (GIPUZKOA)
WWW.IARETXABALETA.COM
IA@IARETXABALETA.COM
T. 943 797 900 / 943 797 943
F. 943 770 955
AENOR Empresa Registrada ER-0226 / 2002

### Ford Mugarrik domekan jokatuko du Iturripen, Corazonistasi esperantzak zapuzteko asmoaz

Ligako lehenengo partidua galdu eta gero, Corazonistas taldeari esperantzak piztu zaizkio: posible da iazko Ford Mugarri indartsua mendean hartzea. Etxetik kanpora, eta Askartza moduko kontrario gogor baten kontra galtzea gerta daitekeen zerbait da; beste kontu bat da azken urtean Ford Mugarrik txarto ohitu dituela zaleak. Hala, Arrasatekoak domekan (11:30, Iturripe) ahaleginduko dira Gasteizkoen esperantzak zapuzten eta, bide batez, kategoriako gainontzekoei abisua ematen.

### MUk datorren astera atzeratu du Baskoniaren kontrako partidua, gaurko jaiaz lasai gozatzeko

Ahalegina, behintzat, egin; horixe pentsatuko zuten Mondragon Unibertsitateko mutilek Baskoniari (Fundacion 5+11) zapatuko partidua atzeratzeko eskatu ziotenean. Kontrarioek nekez onartzen dituzte halakoak, neurri batean, aukera ederra galtzen dutelako kontrarioari min egiteko. Eta Josu Larreategiren mutilek bihar Gasteizera bidaia egin behar bazuten, seguru ez zela egoerarik onenean izango. Baina ahaleginak emaitza onak eman ditu eta partidua atzeratzea lortu dute.



ARTkoak Construcciones Rivagosen kontra, iaz. | JOSETXO ARANTZABAL

# ARTk domekan jokatuko du, Maritxuk aparteko kalterik ez eragiteko

Igor Isasiren mutilek Irun B taldearen kontra jokatuko dute ligako bigarren jardunaldian

X.U. | ARRASATE

Arrasate Errugbi Taldeko mutilek ez dute nahi bigarren jardunaldia esku-hutsik amaitu, eta, horretarako, gaur gaueko hitzorduak ez du askorik laguntzen. Sikiera, partidua zapatutik domekara atzeratzeak txikitu egingo ditu Maritxuk sor ditzakeen *kalteak*, eta etxekoak neurria emateko moduan egongo dira etzi; gainera, etxeko zaleen aurrean jokatuko duten lehenengo partidua izanda. Eguna bakarrik ez, ordua ere ezohikoa izango da: Arrasatek eta Irunek 13:00etan jokatuko dute Mojategin.

**Ez da amestutako hasiera izan**

Joan den astean hasi zuten Igor Isasiren mutilek liga, eta zurimoreek 24-5 galdu zuten Uribealdearen zelaian. Eta, hain zuzen, hasiera makal horri lehenbailehen eman nahi diote buelta, igoera faserako sailkatzeko ezinbestekoa da-eta aurrean sailkatzea.

Irun eta Uribealdea Brekin batera, Arrasateko taldearen multzoan beste lau talde daude: Elorrio, La Unica, Iruñea eta Getxo B. Orain jokatzen dabiltzan faseko onenak igoera faserako sailkatuko dira, eta, denboraldiak gatza eta piperra izan dezan, fase horretan egotea komeni da.

MONTE TABERNA
edari, jana eta kirola
Maalako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56



Mondrako eta Oiartzungo jokalariak, domekako partiduaren une batean. | JULIO CALLEJA

# Mondrakoak "haserre" daude epaileak Mojategin egiten dabiltzan lanarekin

- Domekako gertaerak neurriak hartzera bultzatu ditu
- Epaileen komitearekin batzartzeko asmoa du klubak

XABIER URTZELAI | ARRASATE

Nahikoa da. Horixe pentsatu dute Mondrako zuzendaritzako kideek, eta aste barruan bertan epaileen komitearekin berba egiteko asmoa erakutsi dute, kexu formala aurkeztu baino gehiago, azalpenak eskatzeko asmoz. Klubak saiatu behar zuen aste barruan Donostian batzarra egiten; bestela, datorren astean batzartuko dira.

Joan den denboraldian Mojategin egoera salagarri bat baino gehiago izan zen, baina taldearen joko-maila ere ez zen ona, eta bazirudien epaileen lanaz protesta egitea aitzakiak bilatzea zela. Baina domekan Oiartzunen kontrako partiduan gertatutakoak sumindu egin zituen Mondrako zuzendaritzako kideak, eta zale eta jokalariak, zer esanik ez...

Hori ikusita, neurriak hartzea erabaki dute: "Ez dugu onartuko probokatzera datorren inor. Epaileek hanka-sartzeak izan ditzakete, guztiok moduan, baina domekako epaile-taldeak erakutsitako jarrera harroa ez dugu onartuko", adierazi digu Fernando Laspiurrek. "Pentsa, kontrarioak ere harritu egin ziren Mojategin ikusitakoaz. Oiartzungo zale batzuek esan ziguten ea zelan onartzen genuen halakorik".

Klubeko beste ordezkari batek, Ramon Azkaratek, hau dio: "Klub moduan azalpen bila joango gara Donostiara, ez delako hau gertatzen den lehenengo aldia. Mojategi ez da futbol zelai zaila epaileendako, hemen ez dira aparteko istiluak gertatu, baina epaile batzuk ez dira batere jarrera onaz etortzen, Donostiatik urrun dagoelako, edo ez dakigu zergatik, baina ez dugu adarjotze gehiagorik onartuko".

**Baldintzatutako porrota**

Domekan Oiartzunek ez zuen berdegunean erakutsitako merituengatik irabazi, eta bai epaileek goitik behera baldintzatu zutelako partidua. Mondrak 8 jokalarirekin amaitu zuen lehia, epaileak Mikel Gonzalez, Txonan eta Markel Crespo egotzi zituelako –eta bederatzi txartel hori erakutsi.

Hiru kanporaketa horietatik Mikel Gonzalezena justua da, bi txartel hori ikusita joan zelako kalera. Baina jokaldi gogor bakar bat ere egon ez den partiduan hiru kaleratze egotea ez da normala. Txonan-ek atezainari ateko sakea nondik egin behar zuen adierazi zion, ez modu onean, baina ez zen txartel gorria erakusteko bestekoa. Hori bai, taldeko beteranoei eskatu beharko zaie jokaldi askotan burua hotz mantentzen jakiteko, baina hori beste kontu bat da. Deigarria da kaleratzea, handiagoak entzuten direlako berdeguneetan. Baina Cresporen –2 zenbakia zeramankaleratzeak txistea dirudi, txiste txar bat. Epailea nahastu egin zen jokalariz, eta bigarren txartel horia zelakoan bidali zuen Arrasatekoa aldagelatara, aurreko txartel horia talde kontrarioko 2 zenbakiari atera zion-eta.

Hala, akatsa onartu beharrean epaileak aitzakia asmatu zuen: txalo egitearren kaleratu zuela Crespo. Partidu amaieran animoak bero-bero zeuden, eta aldageletan bultzakadaren bat edo beste izan zen bi taldeetako jokalarien artean, eta hor ere epaileek ez zuten zentzuz jokatu, zuzendaritzakoen esanetan animoak lasaitzen lagundu beharrean harrotasunez jokatu zutelako, "jarrera probokatzaileaz".

**Domekan Lesakara**

Epaileen lan eztabaidagarriak ezin dezake ezkutatu Mondra azkena dela. Jokatutako hiru jardunaldietan Lutxo Iturrinoren mutilek ez dute punturik batu, eta espabilatzen hasteko ordua ere bada. Maritxu kajoi dela-eta Mondrak domekan jokatzeko eskaera egin dio Beti Gazteri, eta Lesakakoek onartu egin dute. Hala, etzi 17:00etan hasita ahaleginduko dira ikasturteko lehen puntuak batzen.

**ESANAK**

**"Kontrarioak ere harritu egin ziren epaileek Mojategin erakutsitako jarreraz; hori ez dugu onartuko"**

FERNANDO LASPIUR | MONDRA

# Literatura Solasaldiak datoz, jende berria erakartzeko asmoz

J.B. | ARRASATE

11 urte pasa dira dagoeneko Udal Bibliotekak Literatura Solasaldiak antolatzen dituenetik. Irakurtzeko zaletasuna sustatu gura du ekimenak urrian, azaroan zein abenduan egingo diren saioetan. Euskarazko zein gaztelerazko liburuen horien gainean berba egiteko aukera egongo da; izen-ematea zabalik dago (943 25 20 08).

**Jende gaztea erakarri guran**

Euskarazko koordinatzailea Mikel Aierbe irakaslea izango da eta Juana Luana Lopez de Muniain arduratuko da, berriz, gaztelerazko solasaldiez. "Irakurraldia partekatzeko asmoz sortu zen eta zenbait kasutan idazlea bera ere ezagutzeko aukera egoten da. Urteetan zehar sendotzen joan da ekimena eta dagoeneko kopuru polita lortu dugu. Hala ere, ikasturte berria hasi dela aprobetxatu gura dugu jende berria erakartzeko, gazteak bereziki", adierazi du Asun Agiriano bibliotekako arduradunak.

Euskarazko saioetan honako liburuak izango dituzte hizpide: Joseba Sarrionandiaren *Narrazio guztia (1979-1990)* urriaren 30ean, Stefan Zweigen *Xake nobela* azaroaren 17an eta Harkaitz Canoren *Twist* abenduaren 30ean. 18:30etik 20:30era elkartuko dira, Kulturaten.



JOKIN BEREZIARTUA

## Narbaiza eta Aristegi protagonista

Emakume Txokoak antolatuta *Emakumeak protagonista* hitzaldi zikloaren laugarren saioa egin zuten eguaztenean Kulturaten. Euskal herrigintzan zeresan handia eman duten emakumeen lana aitortu gura du ekimenak. Anaje Narbaizak Maite Aristegi elkarrizketatu zuen oraingoan; Aristegiren bizipenak oinarri, kontu kontari aritu ziren.

### Kalabazaren pisua asmatuz, Zahar-Berriri laguntzeko aukera gaur

Iaz moduan, Zahar-Berri programari laguntzeko aukera egongo da gaur erdigunean, 13:00etatik 15:00etara. Kalabaza bat eskuan hartu eta haren pisua asmatzen duenak bi gazta eta Errioxako ardoa irabaziko ditu. Euskaltegiko eta AEDko kideek bat egin dute ekimenarekin.

### Dantza ikastaroa hasiko da gaur, Abaroa elkarteak antolatuta

Abaroa erretiratu elkarteak antolatu duen dantza ikastaroa gaur jarriko da martxan. Zuzendaritza taldeak jakinarazi duenez, klaseak 10:00etatik 11:00etara izango dira, Erguin kaleko gimnasioan –3. zenbakian–. Egubakoitzero elkartuko dira, jaiegunetan izan ezik.

**ESKUALDAKETA**

**Negozioa eskualdatzen da erretiroagatik.**

- Sukalde, bainugela eta etxerako altzarien eta etxetresnen negozioa.
- 1970ean sortua.
- Bizpahiru pertsonaren artean kooperatiba osatzeko aukera paregabea.

Tel.: **608 99 20 58**

# David Guapo goi mailako bakarlaria dator Amaia antzokira urriaren 13an

Sarrerak 'Kutxa.net'-en, 943 00 12 00 telefonoan eta leihatilan, 15 eurotan

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Urriaren 13an ez ohiko ekitaldia izango dugu Amaia antzokian. Izan ere, Udaleko Kultura Sailak lehenengoz ekarriko du Espainia osoan oso ezaguna den bakarlari bat Amaiara. David Guapo dator eta, adituen arabera, etorkizun oparoa duen bakarlaria da. Honako datua esanguratsua da behintzat: bakarlari gisa hasi zenetik 63 alditan sarrera guztiak saldu ditu eta 2011n 770 ikusle izan zituen batez beste.

Musikari moduan hasi zuen ibilbide profesionala baina bakarlari moduan egin da ezagun, telebistan batez ere. *El club de la comedia*, *Se lo que hicisteis*, *Buenafuente* eta *El hormiguero* saioetan kolaboratu izan du, besteak beste.


David Guapo bakarlaria Amaia antzokian izango da hilaren 13an. | ARRASATEKO UDALA

**"Ea nola funtzionatzen duen"**

Guaporen emanaldiak musika eta elkarrizketa uztartzen ditu. Elkarrizketa da, eta ez bakarrizketa. Hau da, Guapok harremana du ikuslearekin, inpresioak konpartitzen ditu. Barreak bermatuta daude, beraz.

Bakarrizketa formatua lehen aldiz ekarriko du Udalak Amaiara. Kultura Saileko Karmelo Alberdiren arabera, Monterronen egindako *Bodologoak* saioak arrakasta handia izan zuen: "Jende asko egon zen eta oso gustura egon ziren. Azkenaldian ondo funtzionatzen duen formatua da eta aukera zegoen ekartzeko. Amaiara ez dugu sekula ekarri; ea nola funtzionatzen duen". David Guapo aukeratu dute azkenaldian jende asko mugitzen duelako. Sarrerak salgai daude kutxa.net -en, 943 00 12 00 telefono zenbakian edota antzokiko leihatilan. Sarrera 15 euro ordaindu behar da.

www.citroen.es
CITROËNek nahiago du TOTAL

Etor zaitez probatzera Chapimera



HIBRIDOA&DIESELA

Kaptura ezazu kode hau eta lor ezazu Citroën DS5 autoa probatzeko aukera esklusiboa

SAR ZAITEZ BESTE ARO BATEAN



Ondo pasau Maritxutan!

Citroën DS5 HYBRID4

Citroën DS5ek, diseinu harrigarria izateaz gain, ezaugarri teknologiko paregabeak eskaintzen ditu. Full Hybrid diesel sistema (200 ZP, 147 kW), lau gidatze modurekin: AUTO, SPORT, ZEV ETA 4WD; horrek 3,8 litroko kontsumoa bakarrik izatea dakar. Barrualdea unibertso aeronautikoan inspiratu da eta bi kontsola zentral ditu, bata behekoa, klasikoa, eta bestea goikoa, Cockpit sabaiduna (Head Up Displayrekin elkarren osagarri dira). Zure segurtasuna eta erosotasuna goi mailara eramateko, sistema berritzaile hauek ditu: adimendun SmartBeam argiak, nahi gabeko karril aldaketarako alerta sistema, Citroën eTouch, eMyWay nabigatzailea eta Hi-Fi Denon soinu sistema. Guztia, etorkizuna islatzen duen silueta errepikaezin baten barruan. Igo zaitez Citroën DS5 autora eta sar zaitez beste era batean.

KONTSUMO MISTOA (l/100 km) / CO2 IGORPENA (g/km): CITROËN DS5: 3,8-7,3/99-169

CRÉATIVE TECHNOLOGIE

CITROËN

**T. CHAPIME**, San Andrés Auzoa 5 • ARRASATE • Tel.: 943 79 45 22 • Fax: 943 77 10 47

# 'Kanto'-ren askatasuna eskatzeko manifestazio isila gaur, 19:30ean

## "Zortzi urte bidegabe preso" dagoela salatuko du Herrira plataformak

**MONIKA BELASTEGI** | BERGARA

Bergarako Herrira plataformak Luis Mari Azkargorta *Kanto*-ren askatasuna aldarrikatzeko manifestazio isila deitu du gaurko, egubakoitza. *Minutu bat gehiago ere ez, Kanto herrira* lelopean, 19:30ean abiatuko da San Martin plazatik. Manifestazioa bukatu eta gero, ekitalditxoa egongo da San Martin plazan: abesti batekin irekiko dute ekitaldia, eta, horren ondoren, *Kanto*-ren senide batek haren egoeraren berri emango du. Segidan, Herrira plataformako ordezkari batek egingo du berba, eta, ekitaldia bukatzeko, beste abesti bat entzuteko aukera egongo da.



Herrira taldeko kideak egubakoitzeko manifestaziorako kartela eskuan dutela. | MONIKA BELASTEGI

**Zortzi urte 3/4ak beteta**

Herrira plataformatik azaldu dutenez, datorren astelehenean, urriaren 8an, 8 urte beteko dira "*Kanto* bidegabe preso" dagoela. Hain justu ere, Luis Mari Azkargortak 16 urte espetxean pasa eta gero, baldintzapeko askatasunean kaleratu zuten. 2002. urtean, beste bi urte gehiagorako zigorra gehitu zioten 3/4ak bete zitzan. Hori horrela, urte hartako urrian, bere borondatez, Azkargorta Martuteneko espetxean aurkeztu zen bi urteok betetzeko asmoarekin.

**'Parot' doktrina ezarri zioten**

Bi urteok pasa eta 2004ko urrian zigorraren 3/4ak beteta kalean egon behar bazuen ere, gaur egun Zuerako (Zaragoza) espetxean dago preso. "8 urte hauetan ilegalki daukate preso. Kalean beharko luke, bere senide eta lagunekin", diote Herrirako ordezkariek. Eta gehitu dute: "*Kanto*-ri, beste 68 euskal presori bezala, 197/2006 doktrina, *Parot* doktrina bezala ezagunagoa dena, ezarri zioten. Hain justu, presoei zigorra osorik betearazteko sortu zen. Lege berri horrek espetxean gehienez pasa ahal den urte kopurua 30etik 40ra igotzen ditu. Azken finean, biziarteko zigorra da".

**Europarentzat ez da legezkoa**

Doktrina horren harira, zera ekarri dute gogora Herriratik: "Europako Giza Eskubideen epaitegiak ebatzi zuen –Ines Del Rio presoaren helegitearen harira– ez legezkoa dela eta giza eskubide oro urratzen dituela". Hala ere, "Espainiako Gobernuak itsu, mutu eta gor jarraitzen du", Herrirako ordezkarien esanetan. "Euskal Herrian zabaltzen ari den garai politikoetara egokitu baino gehiago, orain arteko espetxe politika berbera aplikatzen jarraitzen du. Mendekuan eta irabazle-galtzaile binomioan oinarritzen den espetxe politika", gehitu dute. Herrirako ordezkariek uste dute badela garaia "lehenaldiko politika ankerrak baztertzekoa eta gatazkaren ondorioak konponbidean jarriko lituzkeen espetxe politika berria egitekoa".

Hala eta guztiz ere, neurri politikoez harantzago, oinarrian giza eskubideak daudela, nabarmendu dute Herrirako ordezkariek. "Presoen giza eskubideak bermatu behar dira, eta hori ez da soilik guk, Herrirak, dioena. Euskal Herriko jendartearen gehiengo batek dioena baizik".

# Organo erromantikoaren zikloko lehen saioa bihar

## Ana Belen Gartzia organo jotzailea eta Andra Mari abesbatza arituko dira, 20:00etan, Santa Marinan

**M.B.** | BERGARA

Organo erromantikoaren nazioarteko XIII. zikloa abian da aurten ere. Ohi bezala, Azkoitiko, Azpeitiko eta Bergarako udalek elkarlanean antolatu dute eta Azkoitian, Loiolan eta Bergaran izango dira kontzertuak. Bergarakoen kasuan, Santa Marina parrokian, San Pedro obretan dagoelako.

Bergarako lehen saioa bihar, zapatua, izango da, 20:00etan, eta Ana Belen Gartzia organo jotzailearekin batera, Andra Mari abesbatzak hartuko du parte. Ana Belen Gartzia 1977an jaio zen, Andoainen, eta han hasi zituen musika ikasketak. Ondoren, piano ikasketak egin zituen Donostiako Goi Mailako Musika Kontserbatorioan. Han amaitu zituen piano eta klabezin ikasketen goi gradua eta organo ikasketen erdi mailakoa. Musikenen amaitu zituen organo ikasketak, Esteban Landartekin, eta, ondoren, beste zenbait irakasleren eskutik osatu zuen prestakuntza.

Gartzia organo jotzailearekin batera, Errenteriako Andra Mari abesbatza arituko da Jose Manuel Tiferen zuzendaritzapean. Lau obrako kontzertua egingo dute.

**EMANALDIEN EGUTEGIA**

**URRIAK 6**
- **20:00** Andra Mari abesbatza
- Organoa: Ana Belen Gartzia

**URRIAK 13**
- **20:00** Sopranoa: Ana Salaberria
- Mezzoa: Ainhoa Zubillaga
- Organoa: Ana Belen Gartzia

**URRIAK 20**
- **20:00** Organoa: Mario Duella

**URRIAK 27**
- **11:00** Bergarako eta Azpeitiko J. Barrenetxea musika eskoletako organo ikasleak.
- **20:00** Aritzeta abesbatza
- Etxarri Aranatz abesbatza
- Organoa: Aitor Olea

### Martxan da gaztetxeko zineklubeko denboraldi berria

Dagoeneko abian da gaztetxeko zineklubeko denboraldi berria. Domekan, urriak 7, abiaraziko dute eta umorea izango da ardatza.

Domekan, umorezko zinemaren klasiko bat ikusteko aukera egongo da: *Aterriza como puedas*, 1980ko film ezaguna, hain zuzen.

Urriaren 14an, 2006an egindako *Trailer park boys* izenburuko filma ikusteko aukera egongo da. Kanadako umorezko telesail ezagun batean oinarritutako filma.

Emanaldiak 18:00etan izango dira, gaztetxean, debalde.

JOXAN ARRAINDEGIA
Ibargarai 24. Bergara. Tel.: 943 76 70 29

BIZKOTXOAK, ERREILENOAK ETA TOSTOIAK
Larrañaga
San Pedro, 9 - Teléfono 761051
R.S.I. 209374 - SS
BERGARA

BEHEKO TABERNA
Menestra eta untxia dira gure berezitasunak
ANGIOZAR
Tel.: 943 76 55 74



SAN MIGEL-PE

## Agirreri omenaldia San Migel-pen

San Migel-pe elkartean San Migel eguna ospatu zuten joan den zapatuan, elkarteko kideek afaria eginda. 35 lagun batu ziren, eta, kontatu digutenez, menu ederrarekin gozatu ahal izan zuten. Urtero bezala, elkarteko kide bat omendu zuten; aurten, Joxe Mari Agirre. Eskuko erloju bat opari egin zioten. Elkarteko presidente Xabier Plazaolak eman zion oparia.


ARRITXU BARRUSO

## Kilometroetako saskiak badu jabea

Burdiñateko Konde Panaderokua okindegian banatu dute domekan ospatuko den Kilometroak jaiaren alde dirua batzeko egindako lehiaketako saskia. Bosgarren kilometroa izan da irabazlea, Eukene Graciak erositakoa –irailaren 28ko ONCEko zenbakiaren azken bi zenbakiak, 82.905–. Saskia gaur Artatsen presoen alde egingo den afarirako eman du Graciak.

**Ainhoa Lete** | 'Herrixa dantzan' ikastaroan dabil

# "Etor dadila jendea, ez da damutuko, kontua da dantza eginez gozatzea"

Dantza egin eta ondo pasatzeko aukera aparta da Jardunen 'Herrixa dantzan' ikastaroa

ARRITXU BARRUSO | BERGARA

Ainhoa Lete bergararra martitzenero joaten da Jardunen *Herrixa dantzan* ikastarora.

**Zenbat denbora daramazu Jardunen *Herrixa dantzan* ikastaroan?**
Uste dut oraingoa laugarren urtea izango dela. Jardunek antolatutako lehenengo ikasturtetik nabil bertan.

**Ikastaroa ezagutzen ez dutenendako... Zer egiten duzue?**
Euskal Herriko erromerietan egin daitezkeen dantza estilo ezberdinak lantzen ditugu: Muxikoak, soka-dantzak, balsak, habanerak... Dantza taldeetako salto, punta eta birek jende asko beldurtzen dute, baina hemen ez dago horrelakorik. Askoz herrikoiagoa da, naturalagoa.

**Baten bati, akaso, lotsa emango dio joateak. Zer esango zenioke?**
Lasai etortzeko. Ez direla damutuko. Inguruan sarritan entzun izan diot jendeari gustura ikasiko lukeela dantza egiten, baina lotsa ematen diola. Gauza guztietan bezala, inor ez da jakinda ikasten. Kontua da dantzaz gozatzea.


Ainhoa Lete. | A.B.

**Ezagutzaren bat izan behar da ?**
Ez. Urtero hastapen taldea egoten da. Gainera, Patxi Monterok, gure irakasleak, modu oso errazean irakasten du.

### Dantza eskolak martitzenetan dira

Abian da Jardunek antolatutako *Herrixa dantzan* ikastaroa. Eskolak martitzenetan izaten dira, Gaztelekuan: 18:00etatik 19:30era hastapenen taldea, 18:30etik 20:00etara bigarren mailakoena eta 20:00etatik 21:30era Dantza Txokoa. Ikastaroaren prezioa 15 euro da, hileko. Informazio gehiago nahi izanez gero, Jardunen bulegora jo behar da (943 76 08 19).

## 'Herrixa dantzan' Zabalotegira itzuliko da domekan

Domekan, urriak 7, hasiko da *Herrixa dantzan* egitasmoaren ikasturte berria. Dantzazaleek, beraz, aurrerantzean hileko lehen domeketan gidatutako dantza saioez gozatzeko aukera izango dute; Patxi Montero izango da gidaria.

Bi talde bereiziko dira: lehenengo saioa 18:00etan hasiko da eta haur eta gurasoek elkarrekin dantza egiteko aukera izango dute; bigarren saioa 19:00etan izango da, batez ere, helduei zuzenduta. Sarrera doan da eta antolatzaileek bergarararrak animatu nahi dituzte dantza tradizionalez gozatu eta ondo pasatzera.

## Ibarra eta Amillaga arteko autobus zerbitzu bi etenda

Urriaren 22ra arte eta astelehenetik egubakoitzera bitartean, Herribusaren Ibarra eta Amillaga arteko zerbitzu bi eten egingo ditu Udalak: 13:55ean Ibarrako biribilgunetik irteten dena da bat eta 16:05ean Amillagako biribilgunetik irteten dena bestea.

Ordu horietan Angiozarko Eskolako haurrak igerilekura eramango ditu Herribusak. Bergarako Udalak beste aukera batzuekin alderatu ostean eta bi zerbitzu hauek izaten duten eskaera txikia ikusita hartu du erabaki hori.

Urriaren 23tik aurrera normaltasunez arituko da berriro ere Herribusa.

Sugoi
ERLOJUAK, ARTIKULU ELEKTRONIKOAK, KALKULAGAILUAK...
Irizar pasealekua 2 behea
943 76 59 54 BERGARA

TOKI-ONA
Bodegoia-taberna
Eguneroko janariak
Txitxizotzak
Kazolatxoak
Txabierroak
Matxiategi 1. BERGARA
Tel.: 943 39 53

BERGARA
MARMOLERIA
PEDRO SALEGI OSA
Sukalde eta bainu enzimerak
Urarte 8 BERGARA
Tel.: 943 76 11 99 / 14 47
Faxa: 943 76 04 77

MIZPILDI

OKINDEGIA
Matxiategi 1. 943 76 72 73. Mizpildi 8. 943 76 12 32. BERGARA

disdira
ile-apaindegia
edertze gela
Masterreka 7
BERGARA
Tel.: 943 76 00 55

PINTXOAK eta
OGITARTEKOAK
SEKULAKO MARTXA!!
EUXEBIO II
Irala z/g
Bergara
943 76 07 92

Kabutzia
ARRANDEGIA
Fraiskozuri 6
BERGARA
Tel.: 943 76 56 62

Burdiñate
Puente al Inglés
Akademia
Ingeleseko klaseak • , Azterketa ofizialean prestaketa
Eskolen errefortzua
Informa zaitez konpromiso gabe!
Tel.: 943 54 09 12 - Burdiñate 5 behea, BERGARA

## OHARRAK

**1970EAN JAIOTAKOEK KINTADA EGINGO DUTE BIHAR, ZAPATUA**
70ean jaiotakoek Tartufo jatetxean egingo dute bazkaria, eta aurretik, 13:00etan, Ariznoa tabernan elkartuko dira. Izena emateko: 687 50 17 78 (Ignacio).

**1961EAN JAIOTAKOAK BIHAR, ZAPATUA, ELKARTUKO DIRA**
19:00etarako egin dute hitzordua Ariznoa tabernan eta afaria Tartufon egingo dute. Bertara joateko autobusa egongo da. Dixula eta Nahikari tabernetan eman daiteke izena, edo, bestela, *kintoak61bergara@gmail.com* helbidera idatzita.

**1967AN JAIOTAKOEN KINTADA URRIAREN 20AN**
Hilaren 20an, 19:30ean, Infernukuan elkartuko dira. Ondoren, afaria egingo dute Sirimiri jatetxean. Izena Elkar fotokopia-dendan eman ahal izango da, hilaren 17a baino lehen.

**POL-POLEKOEN IRTEERA PILAREKO ZUBIRAKO**
Urriaren 12an, 13an eta 14an San Isidro inguruko mendietara joango dira zubia pasartzera, Leonera. Tiketak mendi taldearen bulegoan har daitezke.



San Martin plazan, Pentekoste sariko irteera, Bergaresak antolatuta, 1962an. | BERGARA KIROL ELKARTEAREN 50. URTEMUGA LIBURUA

# Hausnarketarako tartea hartuko du Lokatzak martitzenean

## Ziklismo taldeak batzar irekia egingo du Irizarren, etorkizunaz berba egiteko

**XABIER URTZELAI** | BERGARA
Bergarako Lokatza Ziklismo Eskolan ez dago alarma gorririk, baina horiek piztu aurretik etorkizunaz berba egin nahi dute interesa duen ororekin. Hala, datorren martitzenean, urriak, 9, Irizar jauregian batuko dira, 19:00etan: "Duela hiruzpalau urte aurrerapausoa egin genuen, kluba gutxi batzuena zela zirudielako, eta ateak zabaltzea eta aire berriak hartzea komeni zelako. Hala ere, urtean zehar antolatzen ditugun ekimenetarako oraindik jendea falta zaigu, klubarendako lan egiteko gertu dagoen jendea badagoen ikusi nahi dugu, belaunaldi erreleboa ere behar delako", azaldu digu Lokatzako presidente Migel Angel Larrañagak. Eta ez orain daudenek uzteko asmoa dutelako, baina bai laguntza eskertuko luketelako.

*Konpromisoa* berba da gakoa, urte osoan zehar egoten diren hitzorduetan jendea izatea: "Batzarra ez da jende berria etortzeko bakarrik. Guk ere hausnarketa egin behar dugu, zer egiteko gauza garen ikusi, orain artekoa ondo egiten ari garen, zerbait aldatu behar ote den... Izan ere, boluntario lana izanda, gainera, jendea gustura ez badabil, akabo".

**1976tik ziklismoa sustatzen**
Lokatzak urteurren borobila beteko du urte gutxi barru, klubak 40 urte egingo ditu ofizialki, nahiz eta lehenago ere bazebiltzan herrian ziklismoa bultzatzen. Eta urteurren horretara sasoiko ailegatu nahi dute. Egun, 12-15 lagun inguru dabiltza kluba kudeatu eta txirrindulari taldeekin lanean. Eta urtean zehar antolatzen dituzten lasterketetan boluntario gehiago izaten dituzte; hain zuzen ere, Euskal Herri osoan hitzordu gehien antolatzen dituen ziklismo kluba da.

Azken urtean Bergarako Txirrindulariak taldeaz batu dira, eta, txikia edo handia, batuketa horrek izan du bere ekarpena. Baina, esaterako, zikloturismo martxa bertan behera utzi behar izan dute, eta aurten mendiko bizikleta irteerarik ere ez dute egingo, jende faltagatik.





Barrakak joan ostean itxiko dute plazako aparkalekua ibilgailuendako. | O.E.

# Plazan ezin izango da aurrerantzean aparkatu

## Eremu hori aisialdirako esparru izango da; lur azpiko aparkalekua doan izango da urtea bukatu arte

**OIHANA ELORTZA** | OÑATI

Plazako aparkalekua itxita egongo da aurrerantzean ibilgailuendako. Gune horri beste erabilera bat eman gura dio Udalak, aisialdiari lotutako erabilera, eta, beraz, ez da aparkalekua izango. Proiektu hori zelan eta noiz gauzatuko den, baina, herritarren iritziarekin egin gura du Udalak, haiei galdetuta.

**Hamar espazio publiko**

Herriko hamar espazio publikok izan ditzaketen erabilerak jasotzen dituen txostena egin du LKS enpresak, eta horietako bat da plazako eremu hori. Horrekin batera, San Martin, Errekalde, Olaitturri eta Etxaluzeko espazioen gaineko proposamenak ere jasotzen ditu txosten horrek, adibidez, eta horiek guztiak erakusketa baten jarriko ditu Udalak, herritarrek ikusteko. Eta herritarrek esango dute gero ze proiektuk duen lehentasuna edo zenbateko garrantzia duen bakoitzak. "Panel batzuetan jarriko dugu LKSk egindako lana, Santa Anako kristaldegian, urriko bigarren hamabostaldian. Proiektu ezberdinak dira, inbertsio handiak eskatzen dituzte eta fase ezberdinak ditu bakoitzak. Gura dugu herritarrek esatea ze garrantzi ematen dioten bakoitzari, eta horren arabera diru kopuru bat edo beste gordeko diegu 2013ko aurrekontuetan. Herritarren iritzia ikusita, posible da proiektu bat baino gehiago martxan jartzea eta bakoitzaren fase kopuru ezberdinak gauzatzea", azaldu du Josu Lizarraldek, Hirigintza eta Partaidetzako batzordeburuak. Erakusketak irauten duen bitartean, LKSko ordezkariak ere etorriko dira zenbait egunetan herritarrek izan ditzaketen zalantzak zuzenean argitzera eta azalpenak ematera.

Izan ere, laster hasiko da Udala datorren urteko aurrekontuaren zirriborroa prestatzen. Urriaren 22an hasiko da, hain justu, Aurrekontuak Herrijorran, eta horren aurretik egin gura du Udalak LKSren txostenaren aurkezpena eta erakusketa. Aurrekontuan zer jaso erabakitzen dutenean, proiektua idazteko eskaintza publikoak egingo dira eta enpresei emango zaie gauzatzeko lanak.

**Plazan baloiarekin ez**

Oraindik, beraz, zehazteke dago hurrengo urtean ze itxura izango duen plazako aparkalekuak, baina aisialdiari lotutako espazio bat izango dela jakinekoa da. "Barrakak joaten direnean, autoak aparkatzeko lurrean margotuta dauden marra zuriak kendu eta beste konpontze lan batzuk egingo ditugu. Umeendako lurreko jolasak margotuko ditugu. Bestalde, aurrerantzean umeek ezingo dute plaza erdian baloiarekin jolastu, espazio berri horretan izango dute tokia horretarako", aurreratu du Lizarraldek.

Horrekin batera, orain arte Santa Marinan egiten den arropen zapatuko merkatua aurrerantzean plazan egitea aurreikusten da, baserritar eta bestelako ekoizleek egiten dutenaren ondoan. "Gure asmoa da hilaren 20an, azoka biak plazan egitea, biak elkarren ondoan. Eta 20an posible ez balitz, ba hurrengo zapatuan", aurreratu du Hirigintza eta Partaidetzako zinegotzi Josu Lizarraldek.

**Lur azpiko aparkalekuan**

Eta plazan aparkatzen diren autoekin zer? Ba Zubikoa kiroldegi aurreko lur azpiko aparkalekua erabiliko da horretarako. Asmoa da iluntzetik goizeko lehen ordura arte doan izatea eta eguneko gainerako orduetan, lehen orduak (oraindik zehazteke 2 edo 3) ere bai. Hori guztia egiteko baina, hurrengo urteko ordenantza fiskalak onartu behar ditu osokoak. Urriko azken eguenean egingo du hori eta 2013ko urtarrilean jarriko dira gero indarrean tarifa berriak. Bitartean, hemendik eta urtea bukatu arte, doan izango da Zubikoa aurreko lur azpiko aparkalekua.

**ESANAK**

**"Herritarrek esango dute ze lehentasun eman proiektu bakoitzari"**

**"Santa Marinako azoka plazan egingo da urriaren 20tik aurrera"**

JOSU LIZARRALDE | HIRIGINTZA



Santa Fetik etorri den taldea Maialen Urtzelai udal ordezkariarekin. | A.T.

# Euskal arbasoak dituzten bisitari amerikarrak gurean

## Ustez Oñatin jaio zen Cristobal de Oñateren ondorengo batek fundatu zuen AEBetako hiri hori

**AMAIA TXINTXURRETA** | OÑATI

Oñatik eta AEBetako Santa Fe hiriak lotura historikoa dute. New Mexiko estatuko hiriburua den Santa Fe ustez Oñatin jaio zen Cristobal de Oñateren ondorengo batek fundatu zuen: Juan de Oñatek, hain zuzen. Horregatik, bi herrien arteko adiskidetasun harremana sortu zuten duela urte batzuk, eta adiskidetasun hori sustatzera etorri ziren eguaztenean Oñatira. 35 lagun inguruko taldea etorri da. Udaletxean harrera egin zieten lehenengo, eta gero, Turismo Bulegoko lagunen eskutik bisita gidatua izan zuten.

**Hemengo historia**

Santa Fetik etorritako taldeak Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle bat zuen gidari. "New Mexikoko museoko kideak dira etorri direnak eta interesa dute Oñatiko eta Euskal Herriko historian", esan du Francis Levin-ek, New Mexikoko Historia Museoko zuzendariak. Hemengo historiarekiko interesa zergatik duten? New Mexikon arbaso euskaldunak dituzten pertsona ugari daudelako eta eurenean ere euskal komunitateak daudelako. "New Mexikon jende ugarik dauzka arbaso euskaldunak, eta gure estatuan euskal komunitate asko daude", esan du Levinek.

Joan den egubakoitza ezkero daude Euskal Herrian Santa Fekoak, eta, oraingoz, Bizkaian izan dira. Eguaztenean Oñati ezagutu zuten eta ondorengo egunetan Gipuzkoan barrena bidaiatuko dute. Hilaren 11ra arte egongo dira gurean.



MAIDER ARREGI

# Gertukoen omenaldia Aspiazuri

Jose de Azpiazu musikariari familia giroko omenaldia egingo diote gaur, Bidaurretan, 18:30ean. Haren alaba Lupe Azpiazu eta Xabier Ugarte izango dira gitarra jotzen, Amaia Azpiazuk jarriko die ahotsa piezei eta aurkezpen lanak, berriz, Jose Antonio Azpiazuk egingo ditu. "Ilusio handia egiten dit nire aitaren piezak oñatiarren aurrean eskaintzeak", esan du Lupe alabak gaurko kontzertuaren entseguan.

# Astelehenetik egubakoitzera 72 ehiza-postu zozketatuko dituzte

Bigarrengoz, Oñati tabernan egingo dituzte zozketak, 20:00etan hasita; aurretik, izena emateko denbora izango dute ehiztari guztiek

**MIREIA BIKUÑA** | OÑATI

Ehiza denboraldia hastear dago, eta, iaz egindako moduan, aurten ere Aizkorri-Aratz parke naturalean legeztatuta dauden 72 ehiza-postuen zozketa egingo dute, egunero-egunero. Antolatzaileak Oñati tabernan elkartuko dira gaurtik aurrera –urriak 5–. Ehiza-posturen bat gura duten ehiztariek bi pauso jarraitu beharko dituzte: 19:30etik 20:00etara arte izena eman beharko dute eta ehiza-postuen zerrendatik euren gustukoena aukeratu beharko dute. Ondoren, 20:00etan, zozketaren zain egon beharko dute. Ehiztari bakoitzak egokitzen zaion postuan egon beharko du.

Aizkorri-Aratzeko postuak astelehenetik egubakoitzera arte zozketatuko dituzte. Egun bakoitzean hurrengo egunekoaren zozketa egingo dute: astelehenean martitzenekoak, martitzenetan eguaztenekoak... Egubakoitzetan aste bukaerako eta asteleheneko postuak zozketatuko dituzte.

**Jende gehien egubakoitzetan**

Ehiza-postuen zozketa iaz egin zuten lehen aldiz. Herriko ehiztariek erantzun ona eman zioten ekimenari. Eguneroko zozketetan batzen ziren ehiztariak, baina, batez ere, egubakoitzeko zozketak ziren jendetsuak.

Ehiza Federazioak nolabaiteko kontrola ipini gura zuen postuetan. Gainera, 2007ko Foru Arauaren arabera, parke naturaletako ehiza-postuek legeztatuta egon behar zuten. Hori horrela, ehiza-postuak zenbakitu egin zituzten iaz. Lana bukatuta, Diputazioko basozaina egon zen postuen mugaketak GPSarekin zehazten.

**Zozketa bako postuak**

Aizkorri-Aratz parke naturaletik kanpo ere badaude beste ehiza-postu batzuk; besteak beste, Aurrekomendin, Bakuen eta Urrexolan. Horietan ehizan egiteko ez da zozketan parte hartu behar. Alegia, leku horietako ehiza-postuak libreak dira.



Antolatzaileak eta ehiztariak, iaz, Oñati tabernan egindako zozketan. | MIREIA BIKUÑA

# Saskibaloi eskolarako deialdia egin dute

**M.B.** | OÑATI

Aloña Mendi saskibaloi sailak deialdi berezia egin du herriko neska-mutikoen artean. Saskibaloi eskolari bultzada eman guran, 2000. urtean eta ondoren jaiotakoendako izena emateko epea zabaldu dute. Interesatuek martitzenetan edo egubakoitzetan eman behar dute izena Aloñaren egoitzan, 19:00etatik 20:00etara arte, edo, bestela, 646 20 42 94 telefonora deituta. Horietan, saskibaloi eskolaren nondik norakoak galdetzeko aukera ere egongo da.

**Natra-Oñati**

Bestalde, Natra Oñatiren partiduak ikustera joateko bazkide kanpainak aurrera segitzen du. 2012-13 denboraldiko txartela egiteko bideak dira: Aloñaren egoitza (martitzen eta egubakoitzetan, 19:00etatik 20:00etara), Aloñaren bulegoa edo Zubikoako partiduak. Helduek 30 euro ordaindu behar dituzte; 18 urtetik beherakoek eta langabeek, 10.

2012-13 denboraldiko txartela berde kolorekoa da. Iazko gorriak ez du balio.

## San Migeletako pilota txapelketako finalak eta profesionalak

Domekan, urriaren 7an, jokatuko dituzte San Migel pilota txapelketako finalak Zubikoan, 16:30ean: gazte mailan, Larrañaga-Agirre eta Arteaga-Aburutza lehiatuko dira; eta nagusietan, Antsotegi-Lintzoain eta Beitia-Diez bikoteak. Ondoren, profesional mailako partidua jokatuko dute: Mikel Goñik Galartza VI.arekin egingo du bikote eta aurrez aurre izango dituzte Patxi Eugi eta Fernando Goñi. Sarrerak kiroldegian egongo dira salgai.

## Argentinako edukiontzia eta lokala itxita azarora arte

Hermansoloñak, Argentinako elkartasun taldeak, itxita dauzka Bidebarrietako edukiontzi zuria eta lokala. Azaroaren 15era arte ez dute material gehiagorik jasoko, lokala beteta dute-eta. Antza, maiatzean bidalitako 31. edukiontzia geldi daukate Argentinako portuan. Oraindik ez daukate baimenik han dagoen materiala batzeko. Hori horrela, 32. edukiontzia prestatzen dihardute Oñatiko lokalean, baina ez dute material gehiagorik jasoko.

# 'Moonrise Kingdom' pelikulak hasiko du zineklub denboraldia

**M.B.** | OÑATI

Urriaren 11n hasiko dute zineklubaren 24. denboraldia. San Migelak bukatuta, jaiegun ez diren eguenetan, zinema emanaldia egingo dute kultura etxeko aretoan, 20:00etan. Denboraldia hasteko, *Moonrise Kingdom* pelikula emango dute. Wes Andersonek zuzendutako lanean Bruce Willis da protagonista.

**Azarora arteko pelikulak**

Oñatiko zineklub taldekoek lotuta dituzte dagoeneko azaroaren 29ra arteko emanaldiak. Azken urteen antzera, zinemaldi ezberdinetan saritutako pelikulak izango dira. Kalitate handiko filmak izan arren, zinema komertzialaren zirkuituan leku txikia izan duten pelikulak; hain justu ere, *Moonrise Kingdom*; *Un lugar donde quedarse*; *Las chicas de la sexta planta*; *Yellow sea*; *Martha Marcy May Marlene*; *Kiseki* eta *Hysteria*. Horiek dira, hurrenez hurren, urriaren 11tik azaroaren 29ra arteko eguenetan emango dituzten pelikulak. Azaroaren 1ean, Domun Santu Eguna, ez da emanaldirik egongo. Batzuetan, pelikulak jatorrizko bertsioan ematen dituzte.

**Udaberrira arte**

Zineklub denboraldiak hurrengo astean hasi eta udaberrira arte iraungo du; hain zuzen ere, maiatz bukaera arte.




Sean Penn, *Un lugar para quedarse* filmean. | GOIENA



Iñaki Idigorasek iaz aurkeztutako erretratua. | IÑAKI IDIGORAS

# Aloña Mendi argazki lehiaketara lanak aurkezteko epea urriaren 14ra arte dago zabalik

**M.B.** | OÑATI

IX. Aloña Mendi argazki lehiaketan –orain arte Mendia eta Natura– parte hartu gura dutenek urriaren 14a baino lehen entregatu behar dituzte lanak. Epaia azaroaren 9an emango dute. Gainera, argazki onenekin erakusketa egingo dute mendi hamabostaldiaren barruan. Informazio gehiago: *www.concursosdigitales.com*.

Aloña Mendiko mendi sailak antolatutako lehiaketak hiru gai izango ditu: *Gizakia mendian*, *Mendi ingurunea* eta *Gizakiaren eragina mendian*.

**Argazkiak salgai edo ez**

Bestalde, lehiaketan parte hartzen dutenek euren lanak salgai ipin ditzakete–egileak aukera dezake argazkia saldu edo ez–. Salmentarekin jasotako dirua mendi ingurunean lanean diharduen Baltistan fundazioarendako izango da. Aukera horren alde egiten duten egileen artean Baltistan fundazioko 12 kamiseta zozketatuko dituzte.

Hainbat berrikuntza ditu aurtengo mendi sailaren argazki lehiaketak: bestek beste, izena aldatu eta hirugarren gai bat gehitu diote.



Ander Lipus aktorea izango da aurkezlea | JOSETXO ARANTZABAL

## Umorea, trikitia eta bertsoak gaurko Soinu Berbak jaialdian

**M.A.** | OÑATI

Urteroko ohitura da bertsojaialdia egitea Oñatiko Herri Egunaren bezperan; baina aurten, bertsoak bakarrik ez, Zubikoa pilotalekuko Soinu Berbak jaialdian trikitia ere entzun ahal izango da. Hala, Oñatiko Bertso Eskolak eta Lizaragarate Trikitizale Alkarteak bat egin eta Soinu Berbak jaialdia antolatu dute.

Bertsoa eta trikitia uztartuko dituen jaialdia izango da, eta, aitzakia horrekin, bertsozale eta trikitizale guztiek bat egiteko aukera aparta dute gaur gauean. Zubikoa kiroldegian izango da, 22:30ean hasita.

Sarrerak emanaldia hasi aurretik jarriko dituzte salgai: 20:00etatik 21:00etara Zubikoako txarteldegian. 22:00etan berriro zabalduko dute.

**Kolore askotariko doinuak**

Ander Lipus aktorea izango da aurkezle eta gidaria; Iker Iriarte, aldiz, arituko da gai-jartzaile lanetan.

Hauek izango dira, berriz, taula gainera igoko diren trikitilari eta bertsolariak: Harkaitz Allur, Leire Ibarzabal, Odei Barroso, Maialen Arzallus, Fredi Paia, Itxaso Paia, Xabi Paia, Joseba Tapia, Xabier Leturia, Aitzol Barandiaran, Jexux Mari Irazu, Gari Lizarraga, Iñaki Larrañaga, Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia; guztira, 17 lagun oholtzan.

# Oñatiko sagardoa eta jakiak protagonista Herri Egunean

Herriko sagardogileek ekoiztutako sagardoa 10:00etan, Txaketua parean

**MAIDER ARREGI** | OÑATI

Egun handia da biharkoa oñatiarrendako. Izan ere, Herri Eguneko ganadu, fruta eta barazki azokekin disfrutatzeko aukera izango da. Herriko animaliak, artisauak eta barazkiak ez ezik, aurten berrikuntza askorekin dator Herri Eguna: batetik, herri bazkariko jakiak izango dira protagonistak. Izan ere, aurten, Oñatiko baserrietako haragia eta gazta izango dira mila lagunen bazkariko menua. "Aurtengo menua hauxe da: patatak errioxar erara, Oñatiko baserriko okela eta Idiazabal jatorri izena duen Oñatiko gazta, Jakioneko irasagarrarekin. Hala, gure baserritarrei merezi duten tokia emango zaie", azaldu digu Manu Egañak, Kultura zinegotziak.


Iaz, herriko plaza jendez lepo bete zen eguerdian sagardoa dastatzeko. | GOIENA

**Etxeko sagardoa**

Gipuzkoako zenbait herritako sagardoa dastatzeko aukera egongo da –Legorreta, Ikaztegieta, Astigarraga, Usurbil, Abaltzizketa eta Ataun–. Baina aurtengo nobedadeetako bat da herriko baserrietan egiten den sagardoa dastatzeko aukera egongo dela. Leibar baserriko Bixente Urtzelai izango da bertan egongo dena. Normalean, etxean eta lagun artean kontsumitzeko sagardoa ekoizten dutela azaldu digu. "Txaketuako hitzordua polita izango da. 15 ekoizle inguruk aurkeztuko diogu herriari baserrian egiten dugun sagar ardoa. Ez dauka sagardo ofizialarekin desberdintasun handirik, eta harro esan dezakegu guk ere produktu polita daukagula", azaldu digu Urtzelaik.

Hala, goizeko hamarretatik aurrera, Txaketua parean egongo dira herriko sagardogileak.

**Errosaixo Eguna**

Domekan, ErrosaixoEguna ospatuko da. Hala, biharamuna kentzeko ekintzak izango dira: pilota partiduak, haur parkea, txosnetako urteroko patata-tortilla lehiaketa eta Varadero taldearen kontzertu herriko plazan, 20:00etan hasita.

Astelehenean, aldiz, Errosaixo Bixamon Egunean, mozorro festa izango da protagonista nagusia. Goizean eta arratsaldean, sokamuturra eta musika izango dira herriko kaleetan.



## Kontzertua du abesbatzak bihar Azkoitian

**M.A.** | ARETXABALETA

Azkoitiako parrokian eskainiko du kontzertua bihar, Aretxabaleta Abesbatzak (20:00). Organo erromantikoaren ziklo barruan antolatutako ekitaldia da, eta abesbatzari lagun egiten Jose Luis Franzesena organo-jotzaile azkoitiarrak jardungo du. Hain zuzen, kontzertuko abestirik gehienak Franzesenak berak konposatutakoak dira, tartean mezatako hainbat kantu –*Pakea*, *Erruki*, *Aintza*...–

Nobedadea, baina, *Via Lucis* abestia da, Antonio Oteiza fundazioarendako sortua Franzesenak berak. Hiru zati ditu horrek, intentsitate handikoak, eta bakarlaria Mariatxen Urkia izango da. Bukatzeko Nemesio Otaño jesuita azkoitiarraren *Ave Maria* dotorea abestuko dute.

Eta domekan, Idiazabalgo parrokian izango da abesbatza, meza kantatzen (12:00).

# 'Martxoak 8... egunero izan dadila!' astea iragarri du Udalak

Emakumearen Astea egingo dute urriaren 15etik 20ra bitartean

**MIRARI ALTUBE** | ARETXABALETA

Urriaren 15etik 20ra bitartean Emakumearen Astea egingo dute *Martxoak 8... egunero izan dadila!* lelopean. Astean aurkeztu dute, eta ekitaldi mordoa iragarri; tartean, antzezlanak, hainbat herrialdetako pintxo dastatzea eta kirol ekitaldiak.

**Eskubide urraketa salatu**

"Segundoro, minuturo, orduro, egunero, hilero eta urtero emakumeen eskubideak urratzen direla gogorarazi eta salatu gura dugu", esan zuen Ana Bolinaga alkateak. Horregatik, urria izan arren, emakumearen alde egingo dute astebetez; Udalak hainbat konpromiso ere hartu ditu: "Emakumeekiko justiziaren, berdintasunaren eta askatasunaren aldeko konpromiso irmoa plazaratu gura dugu".

### EGITARAUA

**URRIAK 8TIK 22RA**

**Erakusketa**: *Emakume kubatarrak, iraultza bat beste baten barruan.* Arkupen.

**URRIAK 15**

**Ikus-entzunezkoa:** *Gaur zortzi azokan.* Arkupen.

**URRIAK 17**

**Ekitaldi nagusia**: Udaleko, elkarteetako, hezkuntzako... ordezkariak elkarrekin plazan.

**Antzerkia:** herritarren eskutik, plazan.

**Pintxo poteoa**: hainbat herrialdetako pintxo dastatzea.

**URRIAK 18**

**Antzerkia**: *Divinas* Oihulari Klown taldearen eskutik. Arkupen.

**Eskalada**. Kiroldegian.

**Frontenisa**. Pilotalekuan.

**URRIAK 19**

**Jolas ez sexistak**. Plazan.

**Hitzaldia**: *Emakumearen jokaerak hizkuntzaren jarraipenean* Paula Kasares irakaslearekin. Arkupen.

**Grafiti ikastaroa**: Gaztelekuko kideekin, plazan.

**Kontzertua:** Kokein eta On taldeak. Kurtzebarriko kantxan.

**URRIAK 20**

**Saskibaloia.** Kiroldegian.

**Areto futbola.** Arlutzeko kantxan.

Astelehenean, hilak 8, hasiko dira astea girotzen emakume kubatarren gaineko erakusketarekin; Arkupen egongo da, 22ra arte.

Hilaren 15ean, landa eremuko emakumeen eguna dela aprobetxatuta, ikus-entzunezkoa eman eta emakume baserritarrekin berriketaldia izango dute. Ekitaldi nagusiak, ostera, urriaren 17a eta 19a bitartean egingo dituzte; 17an, aldarrikapen nagusia Herriko plazan Udaleko eta hainbat elkarte eta arloetako ordezkariekin, eta 19an, jolasak, hitzaldia eta kontzertua. Horrez gain, kirol hitzordu asko dituzte emakumeek: eskalada, frontenisa, saskibaloia eta areto futbola. Horietan jarduteko aurrez eman behar dute izena udaletxean.

**Parte hartzeko deia**

Gainera, hilerri bat irudikatuko dute Mitarte kaleko loratégian, biolentziaren erruz hildako emakumeak gogoratu eta salatzeko; eta bideo emanaldiak izango dira plazan.

Udal ordezkariek herritar guztiak gonbidatu gura dituzte ekitaldiotara "indarrak elkartuta eskubideak jorratzeko aukera gehiago dugulako".

## Imsersoko bidaiak eskatzeko epea zabalik dago hilaren 16a arte

Imsersok zabaldu du bidaietarako izenematea. Interesatuek udaletxeko Prebentzio Zerbitzura jo behar dute; hona ordutegia: astelehen eta martitzenetan, 09:00-17:00; eta egubakoitzetan, 09:00-14:00. Eskaera egiteko nortasun agiria eta diru sarreren agiria aurkeztu behar dira.

Mobiliario ARENAZA
ALTZARIAK
DISEINUA
APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

## Hazkuntza taldeetan izena emateko epea urriaren 10a arte dago zabalik

**M.A.** | ARETXABALETA

Hazkuntza taldeak abian jartzekotan dabil Kuku Miku elkartea, eta izen-emate epea zabalik dauka. Bi talde sortu gura ditu: batetik, 0 eta 3 urte bitarteko umeak dituzten familiena, eta bestetik, 3 eta 6 bitartekoak dituztenena. Hilabetean behin elkartuko dira horiek bi orduz: goizean (10:30-12:30) edo arratsaldean (18:00-20:00).

Izena eman edo argibideak gura dituenak hona kontaktua: *kukumikuelkartea@gmail.com* edo 650 54 68 39 (Ainara).

Bestetik, Kuku Miku hasi da Durana kaleko lokala txukuntzen. Hilaren 15ean jarriko du abian bazkidetza kanpaina.



Kuku Mikuk erabiliko duen lokala txukuntzen egunotan. | M.A.



MIKEL ZAMORA

## Zamora, argazki rallyko irabazlea

San Migel jaietako argazki rallyaren irabazleen berri eman du Argazki Taldeak. Bilduma onenaren saridunak izan dira: lehenengoa, Mikel Zamora; bigarrena, Gartxot Zubizarreta; eta hirugarrena, Asier Atxa. Argazki onenaren saria ere Zamorak jaso du (bertan dagoena). 13 lagunek eman zuten izena joan den zapatu goizean eta 12 itzuli ziren argazkiekin. Lan guztiak Udal Argazki Artxiboak gordeko ditu.



Nagusion hizkuntza ohiturak jasotzen dituzte gure seme-alabek.
eredu izan EUSKARAZ plazera delako!
Aretxabaletako Udala
EUSKARA SAILA

# Pozik, 'zero zabor'-en alde egindako ahaleginagatik

MIRARI ALTUBE | ARETXABALETA

Aretxabaleta Zero Zabor taldeak San Migel jaietako herri bazkariaren antolatzaileak zoriondu gura ditu, "ahalegin handia egin zutelako jaiak ere *zero zabor* ildoan jartzeko". Izan ere, lehengoz gurean, plater eta baso berrerabilgarriekin bazkaldu zuten Iturrigorri pilotalekuan elkartutako 450 bat herritarrek. Ondoren, horiek guztiak garbitu egin zituzten antolatzaileek Kurtzebarri eskolan.

## Hondakinak sailkatuta jaso

Zero Zaborrek zera jakinarazi gura izan du: "Bazkarian erabili genituen plater eta edalontziak berrerabilgarriak ziren; mahai-tresnak, berriz, konpostagarriak. Eta ez genuke Kurtzebarri eskola ere eskertu gabe utzi nahi jarri zituen baliabideengatik".

Gainera, bazkarian sortu ziren hondakinak bereizita jaso zituzten, eta "sortutako zaborra gutxitu", eta gaineratu dute: "Honek ondo egin daitekeela erakusten du. Horrelako kasuetan, gure etxe eta enpresetan moduan, zero zaborreko bidean jar gaitezkeela guztiok".

Bukatzeko, bide horretatik pausoak ematen jarraitzeko dei egin diete herritarrei: "Eztabaida zurrunbilotsu hauetan ez gaitzatela sartu, eta aurrerapausoak eman ditzagun, eginez egiten baita bidea".



Herritarrak bazkaltzeko gertu ontzi berrerabilgarriak aurrean dituztela. | M.A.






ARETXARTE

## Sariak banatzen dabil Aretxarte

Irailean, V. Ixadebalde merkealdien azoka egin eta gero, Aretxarte merkatarien elkartea sariak banatzen hasi da bezeroen artean, berriro ere. Dagoeneko bi sari banatu ditu: batetik, Karmen Perezek jaso zuen Kioskoak emandako 50 euroko balioko oparia, Haurrak umeentzako dendan denboraldi berriko lehen jantzia erosteagatik.

Eta bestetik, Leire Elizondok hartu zuen Belar Meta gazteentzako jantzi-dendak emandako 50 euroko balioa duen txartela, Tinta Beltza dendan lehen kalkulagailua erosteagatik. Urrian sari gehiago banatuko dituztela iragarri dute.

# Harreragileak eta liburuzainak gura ditu Udalak

M.A. | ARETXABALETA

Udalak beregain hartuko du Arkuperen ardura azaroan eta hutsik geratuko diren hainbat postu bete gura ditu. Batetik, harrerarako lan jardun osoko langile bat eta bi langile egun erdiz gura ditu; denboraldi baterako izango dira. Eta bestetik, Udal liburutegirako bi liburuzain laguntzaile egun erdiz.

Eskaerak udaletxera bideratu behar dituzte interesatuek eta gaur, hilak 5, da azken eguna. Argibide gehiago gura dituenak Udalaren webgunera jo dezala: *www.aretxabaleta.com*.

## OHARRAK

**1957AN JAIOTAKOEN IRTEERA**

1957an jaiotakoak Getaria aldera joango dira urriaren 20an, zapatua. Txakolina dastatuko dute, Balentziaga museoa bisitatu eta inguruan bazkaldu, giro alaian. Izena emateko Exprex tabernara joan behar da eta 20 euro ordaindu; urriaren 17a da horretarako azken eguna.



# Auzokonposta egiten hasiko dira Dorletan


Konposta nola egiten den ikus daiteke goiko argazkian. | GOIENA

## Luis Ezeizan eta Zaharren Egoitzan ere egingo dute martxan jarriko duten proba aitzindaria

AMAIA TXINTXURRETA | ESKORIATZA
Herriko bi puntutan bi proba aitzindari jarriko dituzte martxan; auzokonposta egiten hasiko dira Dorleta auzoko 16 familia eta Luis Ezeiza ikastetxea eta Zaharren Egoitza.

Alde batetik, Dorletako herritarrei eskutitza bidali zitzaien, galdetzen ea prest egongo liratekeen proiektu honetan parte hartzeko, eta 16 familiaren oniritzia jaso dute. Bestetik, Luis Ezeiza eta Zaharren Egoitza ere ados daude eta Igor Ezpeleta Ingurumen zinegotziak esan digu proiektuak "oso harrera ona" izan duela.

**Hurrengo pausoak**
Aste honetan teknikariek formakuntza jaso dute prozesua nola eraman behar den jakiteko, datorren astean bilera izango dute, herritarrekin, azaltzeko zeintzuk izango diren pausoak eta prozesua, eta asmoa da konposta egiteko tokiak ahalik eta azkarren egokitzea. Horretarako, "obra txiki" batzuk egin beharko dira Dorletan eta Zaharren Egoitzako ortuan auzokonposta egiteko tokiak egokitzeko, eta hiru enpresetako bati esleituko dizkiote obrak laster. "Hori guztia egindakoan asmoa da urtea amaitu baino lehenago proba pilotuak martxan jartzea", esan digu Ezpeletak.

Eskoriatzan egindako konpostari bi erabilera emateko asmoa dute: batetik, proiektuan parte hartzen dutenek aukera izango lukete konposta hori euren ortuetan-eta erabiltzeko; bestetik, soberan baldin badago, herriko loratεgiak-eta kudeatzen dituen enpresari emango zaio aukera konposta erabiltzeko.

Hori guztia, zero zabor politikaren barruan doala azaldu digu Ezpeletak, eta gaineratu atez atekoa baino gehiago dela zero zabor filosofia.

**Proiektua zabaltzeko asmoa**
Ezpeletak hauxe gaineratu du: "Proba pilotuak ondo ateratzen badira, nahiko genuke herrian auzokonposta egiteko puntu gehiago jartzea eta herritar gehiago biltzea prozesura".

# Erretiratuen omenaldian 198 lagun elkartu ziren eta bikain pasa zuten

A.T. | ESKORIATZA
Domekan ospatu zuten Eskoriatzan urtero egiten duten 65 urtetik gorakoen omenaldia. Goizean salda izan zuten erretiratuen etxean, 11:00etatik 12:00etara, gero, meza nagusia izan zuten San Pedro elizan eta horren ostean, bazkaria izan zuten pilotalekuan. 198 erretiratu elkartu ziren eta primeran pasa zuten.

**Omenduak**
Bazkaldu eta gero omenaldia izan zuten. Bazkarira joan zen emakume nagusiena Elena San Vicente izan zen, 89 urtekoa, eta lore sorta eman zion Jose Mari Herce zinegotziak. Gizonezko nagusiena, berriz, 102 urteko Bernabe Errasti izan zen, eta txapela jarri zion Arantza Iregi alkateordeak. Bertaratutakoek txalo ugari egin zizkieten San Vicenteri eta Errastiri, eta biek hunkituta jaso zuten omenaldia.


San Vicente eta Errasti nagusienak omendu zituzten. | JULIO CALLEJA

Ondoren, herriko dendek, tabernek, banketxeek, enpresek eta Udalak emandako opariak zozketatu zituzten.

Bestalde, giroa animatzeko, bazkarira joandako Gumersindo Encina erretiratuak *Eperra* kantua abestu zuen, eta ondoren, Pedro Salegik bertso bat bota zuen bertaratutakoendako.

Jaia amaitzeko, dantzaldia izan zuten Juan Carlos Zubiak jarritako musikarekin.


Parte-hartzaileak, herritarrek plazan naturako osagaiekin egindako gurpil erraldoiaren artelanarekin. | ESKORIATZAKO UDALA

# Mugimendua Eskoriatzan

## Naturako osagaiekin gurpil erraldoia egin zuten herritarrek plazan, Mugikortasun Astearen barruan

A.T. | ESKORIATZA
Eskoriatzako Udalaren ekimenez eta Mugikortasun Astearen barruan, aurreko eguenean, auzolanean naturako osagaiekin egindako artelan bat sortu zuten herriko plazan. Horretarako, Ozaetako Garaiondarren laguntza ere izan zuten.

Parte hartu nahi izan zuten herritarrek kultura etxean elkartu eta bilera egin zuten lehenengo. Lehen urratsa zer egin erabakitzea zen, eta bakoitzak marrazki bat egin zuen. Bertan, gurpilak, bizikletak, horma baten kontra zihoan gurpila, patineteak... margotu zituzten. Ondoren, guztien artean erabaki zuten gurpil erraldoi bat egitea, eskape eta guzti. "Gurpila horma baten kontra, hormak gurpila gelditzen du eta bestaldean bihotz burudun pertsonak eta pauso berriak ematen dituzten oinak agertzen dira", azaldu digute antolatzaileek. Sorkuntza lana pare bat orduan egin zuten eta emaitza plazan ikusgai izan da azken astean.

# Ate irekien jardunaldiak egiten dabiltza ludotekan

A.T. | ESKORIATZA
Ludotekan ate irekien jardunaldiak izan ziren bazkide kanpainari hasiera emateko. Dagoeneko egin dituzte hainbat ekintza, baina aurrerantzean ere egingo dituzte.

Gaur eta astelehenean Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako neska-mutikoendako eskulanak egingo dituzte, ludotekan bertan, 18:00etatik 19:30etara.

Martitzen eta eguaztenean, ordu berean, 3. eta 4. mailetako gaztetxoendako mahai jolasak eta wii txapelketa egingo dituzte.

Eta amaitzeko, 5. eta 6. mailetakoendako eguenean dardo jaurtiketa egingo dute eta egubakoitzean, hilak 12, patin zirkuitua.

# Aldaiperen ehiza zozketetarako arauak

A.T. | ESKORIATZA
Aldaipek gogora ekarri ditu arauak. Zozketetarako derrigorrezkoa da *Pasa* txartela izatea, *Pasa*-rekin batera NANa aurkeztu beharko da, ehiztari bakoitzak bere txartela bakarrik aurkez dezake, ehiztari batek lan kontuengatik ezin badu zozketara joan, sinadurarekin beste bati delegatzeko aukera izango du, eta paper horiek Gipuzkoako Ehiztarien Federazioan daude, ehiztari bakoitzak zozketarako txartel bakarra aurkez dezake eta adinez nagusi diren pertsonei edo ehizarako lizentzia duten adingabeei delega dakieke. Edozein zalantza argitzeko Aldaiperen lokalera joan daiteke: Intxaurtxueta 9, baxua.

# Aiherra-Antzuola: ia 30 urte bi herrien arteko hazia erein eta erein

Autobuserako izena eman nahi dutenek udaletxera jo beharko dute urriaren 8a baino lehen, astelehena

**MADIER ARREGI** | ANTZUOLA

Antzuolarrek eta aihertarrek berriz ere sendotuko dituzte harremanak hilaren 14an, domekan. Aiherra-Antzuola eguna, bi urtean behin gertatzen den legez, aurten Aiherran ospatzea tokatzen da. Egun betea prestatu dute, bisita turistikoz, jan-edanez eta jolasez zein musikaz betea datorrena. Hala, 700. urteurrena bete duen Bastida herria ezagutzeko aukera izango dute aihertarrek eta antzuolarrek egingo duten irteeran. Eta, ohikoa den moduan, bazkaria egingo dute, eta dantzaldiaz, musikaz eta kantaldiaz gozatzeko aukera ere izango da. Hango jendeak esku zabalik hartzen gaitu. "Goizean, iparraldeko ekonomia eta egoera ezagutzeko ekimena egingo da; eta bazkalostean, solasean eta kantuan, hainbat adiskidetasun egin izan ditugu", azaldu digu Ima Beristain alkateak.



Orduko Aiherrako eta Antzuolako alkateak trontzan, Aiherran. | GOIENA

**28 urteko senidetasuna**

Antzuolaren eta Aiherraren arteko senidetzeak 28 urte beteko ditu aurten. Hazia ereiten jarraitzea erabaki dute bi herrietako biztanleek. "Egiten dena sekula ez da nahikoa; gehiago egin behar dugu", nabarmendu digu Beristainek. "Antzuola-Aiherra egun hauek Euskal Herriko errealitate ezberdinak ezagutzeko aukera ematen digute bi herrietako herritarroi", dio. 140 kilometrok bereizten ditu Aiherra eta Antzuola, baina askoz arrazoi gehiagok batzen ditu Iparraldeko eta Gipuzkoako bi herriak. "Ekimen honek bi herrietako herritar askori balio izan digu Euskal Herriaren irudi osoagoa izateko. Horren harira, eta berrikuntzak beharrezko baditu ere, Udalak ekimen hau bultzatzen jarraituko du".

# Gaztetxeak inaugurazio festa abiatuko du gaur

Aste barruan makina bat ekintza egin bada ere, irekiera festa ofiziala gaur hasiko dute

**M.A.** | ANTZUOLA

Antzuolako gaztetxea itxura berrituta dator. Aste osoan barrena makina bat ekintza egin dute motorrak berotzeko –*Ziztadak* dokumentala eta helduendako ipuin kontaketa saioa–. Gaur eta bihar, ordea, ofizialki inauguratuko dute eraikin berritua. Gaztetxeko ateak herritar guztiei zabalik daudela azpimarratu nahi izan digute Gazte Asanbladatik. "Herritik herriarendako sortutako ekimena da eta gure asmoa da herritar guztiek, nahi duten guztiek, parte hartzea bertan", azaldu digute.

Horretarako, sei lantalde sortu dituzte: Mantenimendu, Komunikazio, Elkartruke, Parte Hartze eta Ikus Entzunezkorako taldeak. Bakoitzak lan desberdinak egingo ditu, eta talde txiki horietako erabakiak koordinazio bileran landuko dituzte. Koordinazio bilera horretan lantalde bakoitzeko kide bat elkartuko da. Horrez gain, Asanblada ere egongo da, herri guztiari ateak zabaltzeko asmoz, edonork –gazte, heldu zein zahar– izan eta ekar ditzakeen ideiak lantzeko.

**Guztiendako festa**

Gaur, arratsaldean, parodia, pintxo-poteoa eta kontzertu akustikoa izango dira.

Bihar, 10:30ean, plater konbinatu lehiaketa egingo da. Ondoren, poteoa eta bazkaria. 16:30ean, umeendako jolasak egongo dira eta 18:00etan, herri kirolak –Antzuola, Bergara urretxu-zumarraga eta Aiherra–. 19:30ean, elektrotxaranga, luncha eta kontzertuak: Luz de Putas, Klak!son eta Skasti taldeekin, hain zuzen ere.



Gazteek makina bat ekintza antolatu dute abuztua ezkero. | GAZTETXEA

# EH-Bilduk deitutako "herri argazkia" bihar plazan

BECen egingo den ekitaldirako txartelak salgai

**M.A.** | ANTZUOLA

EH-Bilduk irailaren 27an Antzuolan eta antzuolarrekin egindako batzar irekian, hauteskunde kanpainaren gainean zenbait erabaki hartu ditu. Tartean, bihar aterako duten herri argazkira joateko dei egin dute Antzuolako EH-Bildutik; bestetik, urriaren 13an, zapatuan, EH-Bilduk egingo duen ekitaldi nazionalera joateko dei egin diete herritarrei. Ekitaldia 17:30ean izango da, Barakaldon, BECen.

**'Eskuak' elementu nagusi**

Hala, bihar, urriaren 6an, eguerdiko ordu batean, herriko plazan, EH-Bilduri babesa emateko "herri argazkia" aterako dute. Antzuolako EH-Bildutik jakinarazi digute hauteskunde kanpaina honetako elementua *eskuak* izango direla; horregatik, esku artean bakoitzak elementu adierazgarriren bat eraman beharko duela azaldu digute EH-Bildutik: "Posible den neurrian, ahal bada, behintzat, nork bere lanari edo zaletasunari lotutako elementuren bat eskuetan eramatea eskatzen diogu bihar egingo den herri argazkirako".

**Ekitaldi nazionala**

Bestalde, urriaren 13an, ekitaldi nazionala egingo du EH-Bilduk BECen, Barakaldon. Hara joateko ere Antzuolatik irtengo den autobusa antolatu dute.

Hala, autobusean izena emateko aukera egongo da, besteak beste, urriaren 6an jarriko den mahaian, baita *ehbilduantzuola@gmail.com* helbidera idatzita ere. "Biharko argazkira etortzeko dei egin gura diegu antzuolarrei. Baita EH-Bilduren ekitaldi nazionalera joateko ere", gaineratu digute.

## OHARRAK

**FUTBOLA**
Antzuola-Zumaiako, 16:00etan, Eztala zelaian, hilaren 6an, bihar.

**PILOTA**
Gipuzkoako pala txapelketa: Olalde-Altzatarra II, gaur.

**TXISTULARIAK**
Kalejira, 10:00etan, herrian zehar, domekan.

## Ipuinak kontatzen ikasteko tailerra egingo da domekan

Oihulari Clown taldeak ipuinen tailerra egingo du urriaren 7an Laskurain baserrian. Izena eman daiteke *oihulariklown@oihulariklown.org* helbide elektronikoan edo 943 76 97 90 eta 607 20 45 03 telefonoetan. Hurrengo egun osoko tailerra azaroaren 11n egingo dute.

## Iparraldera irteera egingo du Arrola Mendi Taldeak

Urriaren 12an, egubakoitzean, egingo du Arrolak Iparraldera irteera. Bidarraitik Iparlara eta handik Izpegirako irteera antolatu du. Irteera 07:30ean izango da, Olaranen aurrean. Prezioak: nagusiek, 20 euro; gazte langabeek, 10 euro; eta Arrolako bazkide ez direnek, 5 euro gehiago.

LARREA
TABERNA
Kalebarren 17
ANTZUOLA



Buztinzuri 13 ANTZUOLA
Tel.: 943 78 70 32

MUJIKA
HARATEGIA



Berezitasunak:
Etxean hazitako
zekorrak eta oilaskoak
Kalebarren 1
ANTZUOLA
Tel.: 943 76 64 34



Joan den domekan 30 aramaioar izan ziren bisita gidatuan. Irudian, Etor Telleria aditua azalpenak ematen. | ALEX MENDIKUTE

# Murugaingo indusketak: arrakasta bikoitza aurten

Aurkikuntza eta parte hartze aldetik "oso pozik" agertu dira arduradunak

JOKIN BEREZIARTUA | ARRASATE

Murugaingo indusketak zeresana ematen ari dira. Bigarren ekinaldiak espero baino fruitu hobeak eman ditu. 2011koan ez bezala, aurten aramaioarren inplikazioa bilatu dute Ondare Babesa arkeologia enpresak eta Aramaioko Udalak, eta helburu hori "erabat" bete dute: "Jendeak interes handia erakutsi du eta oso ondo egin dute lan. Bai auzolandegiek, bai joan den domekako bisita gidatuak izan duten erantzunak gure aurreikuspenak gainditu ditu erabat", adierazi du Etor Telleria indusketen arduradunak.

Bereziki pozik agertu da Telleria: "Martxan jartzen duzun proiektu bat jendeari heltzea, interesa piztea eta, gainera, lanerako gertu agertzea lorpen handia da". Herritarren artean interesa zerk piztu duen ere azaldu digu: "36ko gerrak badu halako iman bat. Jendeak gertuago sentitzen du garai historiko hura Burdin Aroa baino, eta interes handia piztu dute bala-zorroek eta bestelako munizioak", dio.

**Jatorri askotariko munizioa**

Beraz, aurkikuntza aldetik ere oparoa izan da bigarren ekinaldia. Lehen ekinaldian baino munizio gehiago, jatorri askotarikoa, aurkitu dute. Iaz Txekoslovakiako eta Poloniako munizioa aurkitu zuten, baina aurten Hungariako munizioaren markaketak ere agertu dira arakatu duten lur eremuan: "Munizioaz dakiten batzuekin egon gara eta eurak ere harritu egin dira hain eremu txikian halako barietatea ikusteaz". Horrez gain, trintxera espero zutena baino handiagoa dela konturatu dira aurten. Lubaki nagusia babeslekuari –iaz han aurkitu zituzten kontserba latak eta animali hezurrak– eta beste komunikazio-lubaki batera lotuta dagoela ohartu dira eta lubakia ez da hor amaitzen, aurrera egiten du: "Pentsatzen dugu goialdean babesleku bat zutela eta komunikazio-trintxera baten bidez lotzen zela trintxera nagusiarekin". Telleriak adierazi digunez, oraindik ez dute amaierarekin jo: "Trintxera guk uste baino konplexuagoa da".

Burdin Aroari dagokionez, harresiarekin egin dute topo berriro ere, baina aurten hobeto kontserbatuta dauden tarteak azaleratu dituzte.

**ESANAK**

**"Parte hartzeak aurreikuspenak gainditu ditu erabat"**

ETOR TELLERIA | ONDARE BABESA

**Hirugarren faserako dirurik ez**

Bada, aurkikuntzen berri emateko informazio panelak jarriko dituzte Murugainen bertan eta Aramaion. Orain bertan panelon diseinuarekin dabiltza lanean. Baina hirugarren fase bat badago oraindik, indusketa gunea bistaratu, zaharberritu eta atontzeko, "bisitagarri jartzeko". Oraingoz, baina, ez dago dirurik.

# Haur zein helduendako planak Untzillako jaietan

J.B. | ARAMAIO

Badatoz Untzillako jaiak. Nobedade nagusia da domekan mendi buelta "lasaia" egingo dutela Muru aldera (10:00). Bestalde, Ekaitz Zubia auzo-alkatearen arabera, haurrendako eskaintza indartu egin dute: "Belaunaldi berriendako eskaintza eta euskararen presentzia bermatzeko antzerkia eta puzgarriak jarriko ditugu".

Egubakoitzeko auzo-afarirako 75 bat lagun espero dituzte, iazko kopuru bera. Ondoren, Angel Mari Peñagarikano eta Sebastian Lizaso bertsolariek girotuko dute afalostea. Bertso afariaz gain, jende gehien erakartzen duen ekitaldia zapatuko bolo txapelketa izan ohi da; aurtengoa 31. edizioa da: "Jende asko etortzen da kanpotik: Elgoibar, Itziar... 23:00etatik goizaldeko laurak arte aritzen diren jokatzen. Giro ederra egoten da".



Afaria auzoko elkartean. | EKAITZ ZUBIA

**EKITALDI AIPAGARRIENAK**

**GAUR, HILAK 5**

**19:00** Jaien hasiera: kanpai jotzea eta suziria.

**21:00** Bertso afaria: Peñagarikano eta Lizaso.

**BIHAR, HILAK 6**

**12:00** Meza, umeendako puzgarriak eta trikitilariak.

**17:00-19:00** Haur antzerkia, jinkana eta txokolate–jana.

**23:00** 31. bolo txapelketa.

**ETZI, HILAK 7**

**10:00** Murura irteera.

**12:00** Meza nagusia Aramaioko koruarekin.

## Doke taldearen 'Paradisuko atean' obra ikusteko aukera bihar kultur etxean; sarrera doan da (22:30)

Ekain hasieran Arrasaten estreinatu ostean, bihar helduko da Aramaiora Doke antzerki taldearen *Paradisuko atean* antzezlana. Hona obraren muina: Mirenkarmele Zuazubiskar hil egin da, baina oraindik mamua dela, haren errautsak beilatokian daude. Handik pasako dira bere senarra, lagunak, bizilagunak, gazteta-ko amodioak eta senide gorrotatuak. Umorea du ardatz obrak, baina denetariko osagaiak ditu. Kultur etxean izango da (22:30), egun taldeak entseatzen duen lekuan; sarrera doan da.



*Paradisuko atean* antzezlanaren estreinaldiko irudi bat. | JULIO CALLEJA

**NIRE USTEZ**



ANDERE ARRIOLABENGOA

## Salbu gaude

Oraindik ere oilo-ipurdia kendu ezinik nabil joan den domekan La Sextako *Salvados* programan entzun nituenak eta gero. Jordi Evole aurkezleak Eduardo Serra elkarrizketatu zuen. Pertsonaia hau Industria ministro izan zen Adolfo Suarezen gobernuan, Defentsa idazkariorde Felipe Gonzalezekin eta Defentsa ministro izatera iritsi zen Aznar presidente zela.

Beste adierazpen jasanezin batzuen artean honakoak bota zituen, inongo lotsarik gabe: "Defentsa estatuaren lehentasuna da, osasungintza eta hezkuntzaren gainetik, duda gabe. Doaneko unibertsitatea herrikoia da, baina ez oinarrizkoa. 21 eta 22 urteko gazteak ikasten daude eta ez lanean, eta hori aberatsen diruarekin ordaintzen dugu".

Baina zein mundutan bizi da tipo hau? Ospitaleak gainezka badaude, ez larritu Al Andalus Espainola den bitartean. Unibertsitatea ordaintzeko ez daukazula, lasai, militar egin zaitez.

Lotsagarria da bizi dugun krisi garai latz honetan aberatsen zergei esker bizirauten dugula baieztatzea.

Oraindik eskerrak eman beharko dizkiegu gure lanaren esfortzuari esker poltsikoak bete dituztenei, gure zergekin herriak zapaldu dituztenei eta kale gorrian milaka herritar utzi dituztenei.

Nik neuk, behintzat, ez dut horrelako agintaririk nahi. Eta zuk?

## Traktoreen azterketa teknikoa egiteko deialdia gaur

Gaur egingo dute traktoreen azterketa teknikoa. 09:15ean Oletan egingo dute eta 10:30ean Ibarran, Arbel biltegian. Aurtengo tarifa 39,03 euro da. 8 urte arte baino gutxiago dituzten traktoreek ez dute pasa beharko, 8 eta 16 urte artekoek urtean behin eta 16 urte baino gehiago dutenek urtero egin beharko dute.

## Hirugarren adineko herritarrendako mantentze gimnasia

Hirugarren adineko aramaioarrendako mantentze gimnasia ikastaroa antolatu dute. Izena eman daiteke urriaren 8ra arte eta interesatuek udaletxera jo beharko dute izena emateko (945 44 50 16). Klaseak urriaren 15ean hasiko dira. Martitzenetan eta eguenetan kiroldegian elkartuko dira, 10:00etatik 11:00etara.

ELGETA

# 67 erabiltzailerekin martxan dira kirol eskaintzako talde guztiak

## Zaintza–ludoteka–gazteleku zerbitzuak ere martxan dira 28 erabiltzailerekin

LARRAITZ ZEBERIO | ELGETA

Abian dira kirol zerbitzua osatzen duten ikastaroak, zazpi guztira. Eskola kirola jardueran 21 lagun daude izena emanda aurten, mantentze-GAP ikastaroan hamaika, tai txin bederatzi, yogan zortzi, spinning taldean zazpi, erretiratuen gimnasia saioan sei, eta karaten bost.

Udaletik jakinarazi dute talde guztiak ipini dituztela martxan ikasturte hasiera honetan, eta gaineratu dute interesatu gehiago balego zabalik jarraitzen duela izenemate epeak, izan ere plaza libreak gelditu dira talde guztietan.

**Eskola kirola**

Eskola kirola jarduerak erakarri ditu erabiltzaile gehien ikasturte honetan ere, eta antolatzaileek aurreratzen dute akaso moldaketa bat egin beharko dela ordutegietan, izan ere jarduera horrek eskolaz kanpoko beste batzuekin bat egiten du. Ordutegi moldaketa horiek gurasoekin batera egingo den batzar batean adostuko direla aurreratu dute udaletxetik.

**Ludoteka eta gaztelekua**

Martxan daude, baita ere, zaintza, ludoteka eta gazteleku zerbitzuak. Mireia Andreu da zaintza-ludoteka zerbitzuko hezitzailea eta momentuz lau erabiltzaile daude zaintza zerbitzuan, eta zazpi ludotekan.

Gazteleku zerbitzuak harrera ona izan du, izan ere 11 urtetik gorako 17 gaztetxok eman dute izena zapatu eta domeketan emango den zerbitzu horretan. Hezitzailea Eider Gisasola da. Bi zerbitzuotan ere izenemateak zabalik jarraitzen du.

# Udalak herritarren parte-hartzea eskatu du aurrekontua egiteko

L.Z. | ELGETA

Udala hasita dago 2013ko aurrekontua lantzen, eta herriko eragile ezberdinen beharrak eta premiak ezagutu gura ditu. Jakin gura dute lehentasunak zeintzuk diren eta ea datorren urteari begira proposamen berririk badagoen. "Udaletxean hasi gara 2013ko aurrekontuak lantzen, eta, egoera ekonomikoa guztiondako larria dela ezagututa, inoiz baino garrantzitsuagoa da lehentasunak ondo zehaztea. Horregatik, datorren urteko aurrekontuei begira elgetarrondako lehentasunezkoak diren egitekoak zeintzuk diren jakin gura dugu", adierazi dute. Eskaera herriko elkarteei eta urtean zehar herrian ekimenak aurrera eramaten dituzten lagunei egin diete. Baita herritarrei ere; hain zuzen ere, 2013ari begira inork proposamenik badu, udaletxean jakinarazi behar du.

**Batzar irekia hilaren 17an**

Udalak hainbat bide zabaldu ditu herritarren proposamenak jasotzeko. Batzar irekia deitu dute urriaren 17rako, eguaztena. Batzarra 19:00etan izango da, osoko bilkuren aretoan. Proposamenak idatziz ere bidal daitezke; udaletxeko postontzian, udal webgunean edo *danonartian@elgeta.net* helbide elektronikoan utz daitezke.

# Urriko hirugarren aste bukaeran jardunaldi mikologikoak Elgetan

L.Z. | ELGETA

*Udazken koloreak Elgetan* egitasmoak aurrera segitzen du, eta etzi, domeka, ekitaldia egingo du Udalak *Intxortako atea*-n eta Herriko Plazan. 76 urte dira Elgetako frontea ezarri zela, eta 12:00etan lore eskaintza egingo dute *Intxortako atea*-n eta 13:00etan ekitaldia plazan. Jardunaldi mikologikoak hilaren 18tik 21era izango dira. Joxe Mari Larrañaga bergarararren *Gure basoetako perretxikoak* hitzaldiarekin abiatuko dituzte jardunaldiok. Perretxikozaleek hilaren 18an –eguena– dute hitzordua kafe antzokian, 19:00etan. Erakusketa, irteera eta pintxo dastatzea hurrengo egunetan izango dira.

**Irteera eta erakusketa**

Turismo batzordeak domekarako –urriak 21– antolatu ditu perretxikoak batzeko irteera eta perretxiko erakusketa. 10:00etan abiatuko dira, plazatik. Aste bukaera horretan, bestalde, perretxiko pintxoak dastatzeko aukera ere egongo da Bolatokian, Espaloian, Haizean, Maialden eta Iñaki tabernan. Pintxoa eta urteko ardoa edo San Miguel garagardoa –botila– bi euroren truke emango dituzte.



ELGETAKO HERRI ESKOLA

# Eskolako umeen mendi buelta

**Martitzenean, urriak 2, egun osoko txangoa egin zuten herriko eskolako Lehen Hezkuntzako haurrek. Motxilan hamaiketakoa eta bazkaria hartuta Salbador ermita ingurutik hasita Asentziorainoko buelta egin zuten. PR-GI 95 ibilbidea gutxi gora-behera. Eguraldi zoragarria izan zuten.**

## Intxortako Lehoiek batzarra egingo dute urriaren 6an, zapatuan

Urteko balantze ekonomikoa, bidaiak, zozketak... hainbat gai aztertuko dituzte Elgetako Athleticzaleen elkarteko kideek urriaren 6an, zapatuan, egingo duten batzar orokorrean. Bolatoki tabernan elkartuko dira, 19:00etan. Jarraian, merienda egingo dute jaietako orgako produktuekin.

## Gripearen aurkako txertatze kanpainak zabalik jarraitzen du

Elgetako kontsultan gripearen aurkako 145 bat txerto ipini dituzte dagoeneko, baina zehaztu dute beste 100 bat lagun falta direla txerto hori hartzeko. Bada, interesatuek hilaren 30ra arte dute horretarako. Bergarako osasun etxera deitu behar dute txanda hartzeko.

## 1972ko kintoek abentura-txangoa urriaren 20an

Lekunberrira —*baigorri.com*— egingo dute abentura-txangoa 1972ko kintoek. Bazkaldu ere hantxe egingo dute. Elgetan jaio edo bizi den 1972ko kintoa bazara, eman izena urriaren 12a baino lehen Julianen kioskoan. Bidaia autobusean egingo dute, eta erreserba egin beharra dago.

## Posta bidez botoa emateko aukera eskaintzen du EAJk

Elgetako EAJk jakinarazten die urriaren 21eko hauteskundeetan posta bidez bozka emateko interesa duten elgetarrei, Maria Jesus Lete (943 76 80 28) edo Begoña Ardantzarekin (943 76 81 47) jarri behar dutela harremanetan. Azken eguna urriaren 9a da, martitzena.

## Domekan emango diote hasiera Gabonetako pilota txapelketari

40 urtetik beherako bikoteak hasiko dira lanean, eta domekan lau norgehiagoka jokatuko dituzte, 10:30ean hasita. 40 urtetik gorakoen txapelketa hilaren 19an hasiko dute. Antolatzaileek adierazi dute bederatzi bikotek eman dutela izena gazteen txapelketarako eta zortzik 40 urtetik gorakoen txapelketarako.

LEINTZ GATZAGA

# Nafarroa aldera doaz berriro ere erretiratuak urriaren 18an

MIRARI ALTUBE | LEINTZ GATZAGA

Udazkeneko irteera egingo dute Toki Eder elkarteko erretiratuek urriaren 18an, eguena. Oraingoan ere Nafarroa aldera joko dute, Lizarra ingurura. Dagoeneko zabaldu dute izena emateko epea, eta interesatuek zuzendaritzako kideengana jo behar dute; azken eguna hilaren 12a da.

Iratxe (Aiegi) izango dute helmuga Gatzagako erretiratuek, eta handik gertu dauden parajeetara joko dute gero: "Iratxekoek antolatzen dizkigute irteerak; Artaxoa ezagutzera, esaterako, edo upategi batera bisita... eta gero bertara itzultzen gara bazkaltzera. Giro ederra sortu izan da bazkalostean ere", diote Toki Ederko kideek. Lizarrako azokatik bueltatxo bat ematea ere gustuko dute gatzagarrek etxerako bidea hartu aurretik.

**Bazkide ez direnei zabalik**

Erretiratuen elkarteak autobusa jarriko du –30 lagunendakoa udaberriko irteeran– eta bazkaria norberaren kontu izango da. Hala, bazkide ez direnei ere joateko aukera eskaini diete autobusean lekua egonez gero. Haiek urteko bazkide kuota ordaindu beharko dute aurretik.

# Jaietako mendiko bizikleta irteeran ibilitakoek kamisetak dituzte Eskoriatzan

M.A. | LEINTZ GATZAGA

Andramaixa jaietan, irailaren 9an, egindako mendi bizikleta irteeran parte hartutakoei kamisetak oparitu zizkien, urtero legez, Dorletako Ama txirrindulari batzordeak. Egun hartan, baina, jendetza elkartu zen Gatzagako helmugan, eta hainbat lagun kamiseta barik geratu ziren.

Antolatzaileek orduan hitzeman zuten guztientzat egongo zirela kamisetak, eta, hitza betez, dagoeneko eskura daitezke. Eskoriatzako Manuel Muñoz kiroldegira joan behar dute, eta Jose Ignacio Belokigatik galdetu harreran. Bada, zapatuetan eta domeketan bakarrik izango dute kamisetak hartzeko aukera.



Aretxabaletako Aitor Perez, iazko Bergararen kontrako derbian. | JOSETXO ARANTZABAL

FUTBOLA

# Liga ondo hasi duten UDA eta Bergara aurrez aurre etzi

## Etxean indartsu hasi den Bergarak ligako oilar izan daitekeen Aretxabaleta estutu nahi du Ibarran

**XABIER URTZELAI** | ARRASATE

Ligako laugarren jardunaldia jokatuko dute asteburuan, eta dagoeneko ikasturteko hirugarren derbia izango da. Martxa honetan ibarreko taldeen arteko zeingehiagokek interesa galdu behar dute. Hala, domekan liga txukun hasi zuten Aretxabaleta eta Bergara izango dira zein baino zein gehiago Ibarra futbol zelaian (16:30). Aretxabaletakoek aukera ona galdu zuten joan den astean Azkoagainen, Aloñaren kontra irabaziz gero lider egongo zirelako sailkapenean, Hernanirekin batera. Egiari zor, baina, Albistegiren mutilendako sari handiegia izango litzateke, berdegunean eskaini zutena ikusita.

Bergarak, berriz, orain arteko bi garaipenak etxean lortu ditu, eta biak ere alde txikiagatik (1-0); ikusteko dago Galanen mutilak Ibarran zer egiteko gauza diren (16:30).

**Aloña eta Mondra kanpoan**

Arrasateko eta Oñatiko taldeak txanponaren beste aldean daude, liga horren ondo hasi ez dutenen multzoan. Arrasatekoek haserre amaitu zuten joan den astean epaileekin, eta GOIENAk jakin du astelehenean zuzendaritza taldeko hainbat ordezkari Donostiara joatekoak direla, epaileen komiteaz berba egitera [Ikus 14. orria]. Haserreak alboratuta, Beti Gaztekoak ondo portatu dira, eta partidua domekan jokatzea onartu dute (Lesaka, 17:00) Mondrak hala eskatuta. Aloñak, berriz, itxura txukuna erakutsi zuen domekan Azkoagainen, eta Azkargortak esan moduan, emaitzek lagundu ez badute ere, sentsazioak onak dira. Bihar Trintxerpe izango dute kontrario (16:30).

PIRAGUISMOA

### Piraguismo txapelketa egingo dute bihar, zapatua, Osintxun

Bergarako Beti-Busti piraguismo elkarteak antolatuta, bihar, hilak 6, kategoria txikietako piraguismo txapelketa egingo dute Bergaran. Oraingoan, baina, txapelketa herriaren erdialdean egin beharrean Deba errekan beherago ibiliko dira, Osintxuko uretan, hain zuzen, 10:30ean hasita.

ATLETISMOA

### Arrasate-Oñati krosa egiteko zabalik dago izenemate epea

Urriaren 13an egingo duten Arrasate-Oñatin izena emateko jo *www.kirolprobak.com* webgunera. Lasterketa 17:00etan hasiko dute, eta patin gainean egingo dutenak bost minutu lehenago irtengo dira. Gainera, Oñatitik Arrasatera etortzeko autobusa jarriko dute Antxintxiketan atletismo taldeko antolatzaileek.


HANKA LABANKA

PATINAJEA

### Berlinera, maratoian patinatzera

Hanka Labanka patinaje taldeko Andoni Berraondo (Bergarakoa) eta Agustin Oianguren (Aramaiokoa) irailaren 29an jokatu zen Berlingo irrisketako maratoian izan ziren. Sekulako parte-hartzea izan zen proban, euren esanetan giro paregabea, eta pozik bueltatu ziren, besteak beste, lurrera erori gabe iritsi zirelako helmugara.

AUTOMOBILISMOA

## Arrasate TRT Racing taldekoak Alcañizko 500 kilometroetan

### Iraupeneko proban izango dira abenduaren 1ean

**X.U.** | ARRASATE

Arrasateko TRT Racing taldekoek urte amaieran izango dute denboraldiko hitzordu nagusia, abenduaren 1ean, Aragoiko zirkuituan egingo duten Alcañizko 500 kilometroak proban. Iraupen luzeko lasterketari begira daude dagoeneko: "Autoa prestatzen gabiltza, bai, lasterketa horretan aparteko garrantzia izango duelako fidagarritasunak", esan digu Igor Orobengoak.

Alcañizen hiru pilotuk gidatuko dute Ibiza Cupra TDI autoa: "Anaia Ikerrek, Iñigo Garaik eta hirurok egingo ditugu pilotu lanak, eta beste hamar lagun inguruko taldea izango dugu arlo mekanikoa zaintzen: depositua gasolioz betetzen, gurpilak aldatzen...".

**Fisikoki, nekagarria oso**

Izenak dioen moduan, erresistentzia proban arazoak ekiditea izango da gakoa, eta erritmoari eustea: "Gutako bakoitzak ordubete pasatxo egingo du pistan, eta ez da txantxa. Lasterketa normaletan 25 minutu inguru egiten ditugu gidatzen, eta nekatuta amaitzen dugu; hortaz, pentsa... Argi daukagu, baina, bestetan baino askoz lasaiago irtengo garela". TRTkoek badakite gasolinazko Seat Leon autoen aurrean, pistan, ezer gutxi dutela egiteko: "Baina horiek 45 minutu egin ostean depositua bete behar dute, eta guk denbora bikoitza egin dezakegu pistan. Horrekin jokatu behar dugu tartea txikitzeko, pistan euren kontra itsutu barik".



Seat Ibiza Cupra autoa, iazko Nafarroako Openean. | TRT RACING

ESANAK

"Erresistentzia proba izanda lasaiago irten beharko dugu"

IGOR OROBENGOA | PILOTUA

**Gonbidapena, guztiei**

Arrasatekoek motor mundua atsegin dutenak gonbidatu nahi dituzte abenduko lehen asteburuan lasterketa bertatik bertara jarraitzera: "Eta babesleren bat animatzen bada laguntzatxo bat ematera, ongietorria izango da, lasterketa honek gastu handiak dituelako eta autoan badugulako publizitatea jartzeko lekua".

SASKIBALOIA

# Natra Oñatik Euskal Kopa du jokoan asteburuan Bilbon

## Bihar jokatuko dute finalerdia Aurtenetxeren kontra

XABIER URTZELAI | OÑATI

Oñatiko klubarendako asteburu historiokoa izan daiteke taldeak Euskal Kopa irabazten badu; egunero ez da halako txapelketa bat jokatzen, ezta finalerdira sailkatzen ere. Pena, Natra Oñatiko mutilendako –eta zale oñatiarrendako– ez delako sasoirik onenean iritsi hitzordu polit hau.

Oñatin Herri Eguna ospatuko dute bihar, eta horrek zaildu egingo du zaleak Bilbora gerturatzea. Seguru, baina, Eneko Blancoren mutilek zapatuko finalerdia gainditzen badute, domekako finalean Oñatiko zaleek etxeko taldea animatuko dutela, biharamun galantarekin bada ere.

### EBAko ordezkari bakarra

Natra Oñati taldea da finalerdietara sailkatu diren taldeen artean EBAkoa den bakarra, gainontzekoak goragoko mailakoak direlako, LEBekoak.

Bihar, zapatua, Oñatikoek Aurtenetxeren kontra jokatuko dute Bilbon (17:30, Zorroza). Duela 15 egun txantxikuek mendean hartu zuten talde hori, baina ordutik arabarrek taldea indartu dute bi fitxaketa on eginda. Hala, orduko balentria errepikatzea gaitzagoa izango da. Lortuz gero, domekan jokatuko lukete finala, La Casilla kiroldegian (12:15). Iraurgi eta Cafes Aitona dira finalerako beste hautagaiak.



Gorka Kintana, iazko partidu batean. | JULIO CALLEJA

MENDIA

# Besaide elkarteak gertu du mendi hamabostaldia

X.U. | ARRASATE

Arrasateko mendi elkarteak prest du urrian zehar egingo duen mendi hamabostaldia. Proiekzioei dagokienez, urriaren 17an –eguaztena– Aloñako mendi espeleologia taldearen eskutik *Uraren bidea* lana egongo da ikusgai. Eta, urriaren 24an, berriz, Adolfo Madinabeitiak Acopan Tepuyn oinarritutako *Mundo Perdido* lana erakutsiko du. Hala, bi proiekzio horiek Kulturaten egingo dituzte, biak 19:00etan hasita.

Mendi irteerei dagokienez, Urriaren 12tik 14ra arte Besaidekoak Picos de Europara egingo dute irteera, eta gertuago ibiltzeko, urriaren 27an, zapatua, Arrasateko bide zaharretatik ibiltzeko irteera egingo dute, 09:00etan Musakolako San Isidrotik irtenda.

Urriaren 28rako Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatuta Mutrikun egingo dute mendi zeharkaldia; urriak 22 eta 23 dira izena emateko egunak (19:00-20:00). Eta urriaren 20an egingo dute mendi bizikleta irteera [Behean informazio gehiago].

PILOTA

# Aitor Mendizabalek Arretxe II.aren kontra egingo du debuta lau t'erdikoan

X.U. | ANTZUOLA

Iaz bigarren mailako Lau t'erdiko txapelketa irabazi ostean Aitor Mendizabalek onenekin jokatzeko txartela lortu zuen; hala dio idatzi gabeko arauak, eta araua bete egin dute. Onenekin izango da, bihar bertan Ogetako pilotalekuan hasiko duten lehenengo mailako Lau t'erdiko Txapelketan.

### Neurriko txapelketa

Aspeko pilotariari iritsi zaio ondo moldatzen den txapelketan parte hartzeko ordua, onenekin neurtzeko ordua. Afizionatu mailan, besteak beste, Elgetan eta Bergaran erakutsi izan du Lau t'erdia dela bere txapelketa, hori dela bere neurria. Eta profesionaletara salto egindakoan berretsi zuen hori, bigarren mailako Lau t'erdikoa irabazita.




Aitor Mendizabal. | GOIENA

### Arretxeren kontra, 14an

Aspeko eta Asegarceko pilotariek eguaztenean aurkeztu zuten torneoa Donostian, eta nobedadea da final-laurdenetako ligaxka errekuperatuko dutela. Zozketak aurrez-aurre jarri ditu Aitor Mendizabal eta Iker Arretxe. Hala, txapelketa bihar hasiko dute Gasteizen Gonzalezen eta Urrutikoexearen arteko lehiarekin, final-hamaseirenak izango dira. Antzuolakoaren txanda, berriz, urriaren 14an izango da, datorren domekan, Eibarko Astelena pilotalekuan.

MENDIKO BIZIKLETA

# Urrian datoz Oñatiko, Arrasateko eta Eskoriatzako martxak

X.U. | ARRASATE

Debagoieneko mendiko bizikleta zirkuituaren barruan egutegiko hurrengo hitzorduak Oñatin, Arrasaten eta Eskoriatzan egingo dituzte. Oñatiko lagunek urriaren 14an, domeka, egingo dute Iban Altuberen oroimenezkoa, eta Arrasaten, Besaide Mendi Elkartearen hamabostaldiaren barruan urriaren 20rako egin dute hitzordua. Hurrengo egunean, hilaren 21ean, Eskoriatzakoek 23. mendiko bizikleta martxa egingo dute.

### Oñatin umeendako ere bai

Oñatiko antolatzaileek martxa hasi aurretik Iban Altube omentzeko tartea hartuko dute goizeko lehen orduan (09:00), eta ondoren egingo dute irteera. Bi ibilbide prestatu dituzte, eta umeendako ere 5 kilometro izango dituen irteera prestatuko dute, 10:30ean hasita.

### Dobletea, iaz moduan

Urriaren 20an eta 21ean, berriz, Arrasaten eta Eskoriatzan egongo da mendiko bizikletan ibiltzeko aukera. Arrasatekoa 10:00etan hasiko dute eta Eskoriatzakoa, 09:00etan. Iaz asko izan ziren biak egitera animatu zirenak, jendea gogotsu zegoen seinale.



# Jatetxe Gida



## 15 urte zuekin, mila esker!

## Ondo ibili Maritxutan!



Larrinetxe
JATETXEA



## Dragon Oriental

Fraiskozuri 7 / BERGARA
Tel.: 943 25 06 77

**Eskaintza**
- Jatetxe txinatarra
- Wi-fi gunea
- Etxera eramaten dugu (Bergara + Antzuola + Soraluze)
- Din sun, ekialdeko tapak
- Eguneko menua, karta

**Egunero zabalik.**



## Erreka jatetxea

Zerrajera 4, behea / ARRASATE
943 53 32 72
*www.errekajatetxea.eu*

**Eskaintza**
- Eguneko menua
- Menu bereziak astebukaeretan
- Ezkontzak
- Jaunartzeak
- Enpresa bazkariak

**Igande gauean eta astelehenetan itxita**



## Iturrieta

Arraga auzoa / ARAMAIO
945 44 53 85 / 685 72 15 93
*iturrietasagardotegia.blogspot.com*

**Eskaintza**
- Eguenetik domekara irekita. Erreserbatuz gero beste egunetan ere bai.
- 90 lagunendako lekua.
- Etxeko sukaldaritza bailarako produktuekin.
- Karta zabala. Menu bereziak.
- Bertako sagardoa Eusko Labelarekin.

Larrinetxe
JATETXEA

## Larrinetxe

Udala auzoa / ARRASATE
943 79 22 15
*www.larrinetxe.com*

**Eskaintza**
- Aukera zabaleko karta eta astebukaeretan menu bereziak
- Sasoiko okelak, arrainak eta etxeko postreak
- Bokatak eta plater konbinatuak ordu guztietan.

**Martitzenetan itxita.**



## Lasa jatetxea

Ozaeta jauregia, Zubiaurre 35. / BERGARA
Tel.: 943 76 10 55 / *www.restaurantelasa.es*

**Eskaintza**
- Jangela: 250 lagunendako.
- Karta.
- Astearte, asteazken eta ostegun gauetan 16:00ak baino lehen eskatuz gero zabalik (6 pertsona min).
- Menu bereziak asteartetik ostiralera(eguardietan).
- Kongresuetarako aretoa eta parking-a.

**Gipuzkoako bankete-jatetxerik onenaren saria Mas Gastronomia 2009.**



## Santa Ana Hotela

Uribarri auzoa 37 (Udalara bidean) / ARRASATE
943 79 49 39
*www.santaanamondragon.com*

**Eskaintza**
- Familiako bazkariak eta kinto bazkariak dantzaldiarekin.
- 100 pertsonarentzako jangela, menu berezia eta karta.
- Terraza eta jangela: ogitartekoak, etxeko hanburgesak eta plater konbinatuak.
- Kafe eta pasten catering-a, era askotariko tortillak eta pintxoak.

KULTURA

# 'Inpertinentzia goxoa', Iban del Campo zuzendariaren azken lana

## Europako bost zinemagile aukeratu dituzte Belgikako zinema jaialdi original baten parte hartzeko; arrasatearrak ezagutzen ez zuen lantaldearekin egin du film laburra

**MAIDER ARREGI** | ARRASATE

Belgikako *Le Festival 5 sur 5*: Europako 5 zuzendari, 5 aste, 5 film labur eta gai bakarra: *Inpertinentzia*. Erronka paregabea edozein zuzendarirendako. Eta aukeratutako bat Iban del Campo arrasatearra izan da.

Belgikako abentura *inpertinentea* gogorra izan dela azaldu digu Iban del Campo zinemagileak. Helburuak beteta, une gogorrak pasatu behar direla gehiago gozatzeko kontatu digu.

Bost asteko abentura *inpertinenteak* asko irakatsi dio eskarmentudun zinemagileari. "Lantaldeak eta bertako herritarrek frantsesez hitz egiten zuten; hori izan da erronka nagusia niretzako, frantsesez espresatzeko gai izan arren, lan egitea denbora gutxian". Lantalde ezezagun batekin lan egitea egokitu zaiola dio Del Campok: "Festibalaren proposamena hori zen. Europa osoko bost zuzendari aukeratu eta eurek jarritako lantaldearekin lan egitea. Film laburra zuzentzeko bakarrik zaude bost astean. Egoera nahiko irreala da, baina gozamena da". Lantaldearen konfiantza lortzea ezinbestekoa dela dio; baita film laburrean parte hartu duten aktoreekin kimika izatea ere.


Iban del Campo *casting*-a egiten.


Walter, aktorea.




Arsenic antzerki talde ibiltariaren karpan grabatzen.


Del Campo, grabaketaren une batean. | ARGAZKIAK: IBAN DEL CAMPO

### Ezohiko gaia

*Inpertinentzia* izan da *Le Festival 5 sur 5* film jaialdiak proposatutako gai mamitsua eta aurpegi askokoa. "*Inpertinentziak* esanahi asko ditu; nik esanahi positiboa landu dut. *Douce impertinence*, *inpertinentzia* goxoa jarri diot izenburua. Hala, *casting* faltsu bat antolatu nuen; *casting*-era zetozenek uste zuten pelikula baten parte hartzeko zela; haiekin jolas egin nuen eta *casting* horri buruzko filma egin dut. Aurkeztu den jendeak pelikula baten parte hartzeko aukera izango zuela uste zuen, baina, era berean, pelikulan parte hartzen ari zen. Joko bikoitza da eta jendeak harrera oso ona egin dio, oso umoretsua da".

### Arte eszeniko pozoitsua

Arsenic Belgikako antzerki talde ibiltariarekin topo egin zuen Del Campok. Aukera aprobetxatu eta film laburreko protagonista bilakatu ditu. "Zirku karpa erraldoian egiten dituzte antzezlanak Arseniceko kideek. Gainera, bi zentzurekin jolas egiten dute: arsenikoa pozoiarekin eta arte eszenikoekin. Arte eszenikoen pozoiarekin eta ikusleekin jolastu gura izan nuen. Konpainiaren hitz jokoarekin, duten espirituarekin eta karpa barruan egindako *casting* faltsuarekin, ikusleekin jolas egin nahi izan dut pozoi gozoa zabalduz".

*Douce impertinence* film laburrean, Walterren presentzia ere garrantzitsua izan da. "*Casting*-era bat-batean azaldu zen, bukatzear geundela. Berriro kamera piztu eta harekin lanean jarri ginen. 80 urte ditu ia; pelikula askotan hartu du parte. Bizirik dagoen entziklopedia da. Ez nuen *inpertinentzia* zinemaren gaietan ezagutzen; originala iruditu zitzaidan. Azkenean, kontatzeko formak –*casting* faltsuak– gaia bideratu du", dio Del Campok.

ESANAK

**"'Casting'-a egin dutenek ez zekiten filmaren parte zirela"**

IBAN DEL CAMPO | ZINEMAGILEA

### 15 minutuan zer konta daiteke?

*Le Festival 5 sur 5* jaialdiaren oinarriek diote 15 minutuko lana egin behar dutela zuzendariek. "15 minutu asko dira, ze proiektu mota planteatzen duzun arabera. Luis Buñuelen *Un perro andaluz* film laburra ikusi besterik ez dago. Oraindik jendearengan inpaktu handia dauka, aspaldikoa bada ere. Norberaren saiakeran eta talentuan zein baliabideen arabera lor daiteke inpaktu hori; baita zortearen arabera ere!", dio Iban del Campok.

DEBAGOIENA EZAGUTZEN

Irailaren 22an herri lasterketa bat izan zen, euskararen alde.
Gure bailarako zein herritan izan zen? Argazkia eta galdera > Joxefe Diaz de Tuesta



SMS bidez:
Bidali KLUBA ERANTZUNA [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.



Jakionek emandako
Produktu sorta *
* Jakioneko produktuz osatutako otarrea.

Parte hartzeko

Telefonoz: 943 25 05 05
E-postaz: kluba@goiena.com
WhatsApp bidez: 688 69 00 08
Parte-hartzaile guztien artean zozketatuko da.

DVD

'Arrasate 1936: emakumea, gerra eta errepresioa'
SMS bidez:
Bidali KLUBA DVD [bazkidearen zenbakia] 215800 zenbakira.
Parte hartzeko epemuga: Urriak 10.

Intxorta 1937 Kultur Elkartea




goienakluba
Abantailaz betetako kluba!

goienakluba 2012
Tel.: 943 25 05 05
e-posta: kluba@goiena.com
goienakluba.com
Urteko kuota: 50 €.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: kluba@goiena.com

**Floren Untzueta** | Organo-jotzailea

# "Edozein organistaren ametsa da katedraleko organo-jotzaile izatea"

## Gasteizko Santa Maria katedraleko organista ofizial izendatu dute Untzueta aramaioarra

USOA AGIRRE | ARAMAIO

Gasteizko Santa Maria katedrala zaharberritzen ari dira eta gurtzarako laster zabaltzeko asmoa dute. Berriz ere mezak esaten hasten direnean, Floren Untzueta aramaioarra izango da bertako organo-jotzaile ofiziala; Gasteizko gotzainak egin dio izendapen hori.


Floren Untzueta. | GOIENA

**Izendapen handia da egin dizutena?**
Edozein organistaren ametsa izaten da katedraleko organo-jotzaile izatea. Espainian ez hainbeste, baina Alemanian eta Frantzian, adibidez, ikasketekin batera esaten da katedral bateko edo besteko organo-jotzaile zarela, lorpen handi moduan.

**Nola izan da izendapena?**
80ko hamarkadan, Ameriketatik etorri berri nintzela eta kontserbatorioan nengoela, katedralean organoa jotzen lagundu nahi nuen esan zidaten. Orduan aritu nintzen Santa Maria katedralean organoa jotzen, baina zaharberritzeko itxi zutenean, haren funtzioa egiten duen Maria Sortzez Garbiaren katedralean aritu naiz organoa jotzen, baita San Pedro elizan ere. San Pedroko organoa oso ona da eta bertako organista naizelako egin didate izendapena. Ospakizun handirik ez da egingo; zapatuan joango naiz kargua hartzera eta gero familia artean ospatuko dugu.

**Ze berezitasun du katedraleko organoak?**
Oso organo ona da. Hiru teklatu ditu eta Walker markakoa da, Alemaniatik ekarria 1940. urtean.

**Erretiratuta egon arren, organoaren mundua ez duzu laga.**
Kontserbatorioko lanetik erretiratuta nago, baina eskola partikularrak ematen dizkiet zortzi ikasleri. Horrez gain, Arabako organo guztien ikerketa bat egiten ari naiz. 190 organo aurkitu ditut eta guztien datuak biltzen ari naiz: zein egoeratan dauden, nork eta non egin zuen, non dagoen, nork jotzen zuen... Hiru urte daramatzat horretan eta Gabonetarako argitaratuko da liburua.

**Nondik datorkizu zaletasuna?**
Sei bat urte nituela, Aramaion, baserritik kalera bidaltzen ninduen aitak solfeoa ikastera. Gogoan dut, nola zegoen Aramaion organista zahar bat. Hura ikusi eta nire buruari esan nion: "Egunen batean nik ere joko dut". Abade izan nintzen garaian, seminarioan jotzen nuen organoa, baina inongo eskolarik jaso barik. 40 urterekin hasi nintzen kontserbatorioan ikasten.

**Pieza kuttunen bat baduzu?**
Bachen Koralak, Brahms eta Cesar Franck dira nire gogokoenak eta horiek jotzen ditut. Hiletetarako etorri izan zaizkit pieza bat edo beste eskatzera. San Pedro elizan, gainera, nire garaian sartu den ohitura bat badago: hileta-elizkizunaren amaieran, abadeak Bachen Koral bat eskaintzen dio hildakoari. 3-4 minutuko pieza izaten da.


Eriz magoa, Antzuolan egindako erakustaldian. | JULIO CALLEJA

# Musika, magia eta beste, Errosaixo jaietako kultura hitzorduak Oñatin

U.A. | OÑATI

Oñatiko jaietako azken txanpa izango da aste bukaera honetan eta ez da kultur hitzordurik falta izango bertan.

Txosnagunean musika izango da nagusi gaur eta bihar gauean. Gaur, egubakoitza, Obstruccion Nasal, Endemaño eta Zuen Azkena taldeek eskainiko dute kontzertua, 22:00etan hasita. Bihar, zapatua, erromeria izango 23:00etan, Egurra eta Kitto taldeekin.

Plazan, berriz, Joselu Anaiak taldearen dantzaldia izango da bihar, zapatua, 23:00etan. Domekan, Varadero taldearekin dantza egiteko aukera egongo da, piroteknia ostean.

**Balkoitik balkoira bertsotan**

Musikaz gainera, bestelako ekitaldiak ere izango dira jaietan kulturaz gozatzeko: etzi, domekan, 20:30ean, azken urteotan ohitura den moduan, balkoitik balkoirako bertso saioa egingo dute Kale Zaharrean Agin Rezola eta Sustrai Colina bertsolariek.

Txosnagunean umeendako eta ez hain umeendako magia ikuskizuna antolatu dute etziko, domeka. Eriz magoa arituko da bertan erakustaldia egiten, 17:00etan hasita. Eta iluntzean, berriz, 21:30ean, *Euskal memoria* izeneko bideoaren proiekzioa egingo dute txosnagunean.



# Nestor Basterretxea artistaren artelanak iragarriko du aurtengo Durangoko Azoka

Abenduaren 6tik 9ra izango da Liburu eta Disko Azoka; aurten, hiru egunera murriztu dute, krisiagatik

**AMAIA GARATE** | ARRASATE

Asteon aurkeztu dute 47. Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azoka. Aurten, Gerediaga elkarteak Nestor Basterretxea euskal artista bermeotarrari eskatu dio kartela egiteko.

Basterretxeak azaldu duenez, "telebista pantaila matxuratzen denean agertzen den kolore aberastasun ikaragarria da karteleko irudiaren oinarria". Azkenaldian irudi horietan oinarrituta egiten ditu *collage* lanak. Kartel "moderno bat teknika berri batekin egiteko" aukera bezala ikusi zuela Gerediagaren proposamena esan du Basterretxeak.

Nestor Basterretxeak azokari esker oneko hitzak eskaini zizkion: "Bihotzez, azoka antolatzeko egiten duzuen lana eskertzea baino ez dagokit". Oteitzari eta euskal nortasunari buruz ere egin zuen berba: "88 urte dauzkat, eta, zalantza barik, heriotzean pentsatzen dut. Borrokatzen jarraituko duzuela jakinda noa beste mundura, eskerrik asko".

Aiert Goenaga zuzendariak, berriz, azaldu zuen azken urteetako kartel lehiaketa alboratu, eta Durangoko Azokaren kartela artista bati enkargatzeko hautua egin dutela aurten.



Aiert Goenaga eta Nestor Basterretxea aurtengo kartelarekin San Agustin kulturgunean. | *ANBOTO* ASTEKARIA

**ESANAK**

> **"Borrokatzen jarraituko duzuela jakinda, noa beste mundura"**

> **"Kartela, gazteengana errazago helduko dela uste dut"**

**NESTOR BASTERRETXEA** | IDAZLEA, MARGOLARIA ETA ZUZENDARIA

### Kalitatearen aldeko apustua

Iaz baino egun bat gutxiago iraungo du 47. Durangoko Azokak: abenduaren 6tik 9ra egingo da. Aiert Goenagak krisiaren ondorioa zela azaldu zuen: "Krisi ekonomikoak guri ere eragin digu, eta ezin dugu bost eguneko iraupena duen azoka baten aldeko apusturik egin aurten; izan ere, kalitatean galduko genuke, eta ez da gure helburua hori. Horregatik, eta kalitatean galdu aurretik, nahiago dugu aurten lau eguneko azoka egin", nabarmendu zuen Goenaga zuzendariak.

## Espresio modu berritzailea

Nestor Basterretxea euskal sortzaile eta artistak pixelak erabili ditu bere lanaren ardatz gisa. "Telebistako irudietako pixelei argazkia atera eta haiei forma emanez, egitura geometrikoak egin ditut; hortik beirateak osatzeko lortutako kolore bizi–biziak". Estetikoki artistaren ikurra igartzen da. Kartel horrekin gazteengana gehiago hurbilduko dela uste du Basterretxeak. "Kartela, literaturarekin zerikusirik ez duen arren, espresatzeko modu berri bat da eta gazteengana errazago heltzeko bidea izango dela uste dut", gaineratu du.


iKER
SUKALDEAK: ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43 • OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48
FAGOR



Martin Arriolabengoa, Mailluetako kobazuloan.

MARTIN ARRIOLABENGOA

Martin Arriolabengoa | Geologoa

# "Baliozko ondare geologikoak badaude, baina ez da jende askorik mugitzen haiek ikertzeko"

**PERU ARREGI** | BILBO

Martin Arriolabengoa (Gasteiz, 1986) Geologian lizentziaduna da eta *Geología Ambiental y Recursos Geológicos* masterra dauka, Madrilen ateratakoa. Orain, *Deba bailararen Kuaternarioko bilakaera geologikoa* tesia egiten ari da.

**Zergatik aukeratu zenuen geologia? Arrazoi bereziren bat?**

Natura gustatu izan zait betidanik: paisaiak, mendiak... Geologia ikusi nuen aukeratzat, eta, nolabait esateko, abenturara sartu nintzen aurre-ezagutza handirik gabe. Zortea izan nuen.

**Eta orain zein etorkizun ikusten diozu aukeraketa horri?**

Tesia bukatu ondoren, Ameriketara joan nahiko nuke. Euskal Herri edo Espainia mailan, behintzat, ez dago lan aukera handirik. Horrenbestez, bi aukera dauzkat: edo ikerketan jarraitu edo kanpora joan.

**Ikusten al duzu geologiarekiko interesik Euskal Herrian? Eta Debagoienean?**

Egia esan, orain arte geologia ez da oso zabaldua egon Euskal Herrian, eta, nire ustez, gure errua izan da, geologoen errua, ez baitugu maneiatzen edo saltzen jakin.

Gaur egun, ordea, suspertzen ari dela esango nuke. Debagoienean, zehazki, ez, baina, adibide bezala, Zumaia eta Deba inguruan ireki berri duten Euskal Kostaldeko Geoparkea daukagu. Formazio geologiko asko aurkitu dituzte bertan, eta parke bilakatzea erabaki dute.

**Beraz, gure inguruan aberastasun geologikoa sumatzen da.**

Bai, sumatzen da. Geoparkearen harira, kostalde horretan ondare geologiko ugari daude: flyschak (milioika urteko geruza harritsuak), *karsta* (kareharrietan urteen eraginez eratutako zuloak)... historia handia dago haien atzean.

Debagoienean, esaterako, Aramaio inguruko AHTren obretan, arrain fosilak aurkitu dituzte duela gutxi. Bertan ikertzeko aukera bilatzen ari gara, orain arte aurkitu ez diren fosilak baitira, baina, oraingoz, ez digute utzi. Bestetik, kobazulo formazio asko ere badaude [hemendik gertu Oñatin daukagu bat]. Euskal Herrian baliozko ondare geologikoak badaude, baina ez da jende askorik mugitzen haiek ikertzeko.

**Lezetxikiko indusketetan ibilia omen zara, baina horren ikuspuntua arkeologikoa da... lotuta daude zientziaren bi arlo horiek, geologia eta arkeologia?**

Bai, lotura dago. Azkenean, arkeologoek gizakien edo beste izaki batzuen aztarnak bilatzen dituzte, eta aztarna horiek sedimentu bati daude lotuta. Sedimentu hauek geologoek aztertzen dituzte; beraz, eskutik doazela esan dezakegu. Biak batera ikertzea garrantzitsua da.

**Zer esango zenioke geologian sartu nahi duen gazte bati? Merezi du?**

Bai, merezi du, gustatzen bazaizu, noski. Kuriositatea izango balu harriak atzean duen historiari buruz, animatzeko esango nioke, zalantzarik gabe.

**Espeleologian ibiltzen zarela badakigu. Noiztik duzu zaletasun hori?**

**Zertan gauzatzen duzu zaletasuna?**

Zaletasun hori ez da oso zaharra niretzako, egia esan. Karreran hasi nintzenean, irakasle batentzako lanean hasi nintzen, eta honela sartu ninduen mundu horretan. Orduan hasi nintzen espeleologian, eta, azkenean, zaletu egin nintzen.

Orain asteburu batzuk hartzen ditut aktibitate horretan jarduteko; batzuetan lagunekin, beste batzuetan lankideekin... Hala ere, espeleologia ez da oso ohikoa izaten niregan.

**Zer izaten da ohikoa orduan? Zein beste zaletasun dauzkazu?**

Mendira joatea betidanik gustatu izan zait. Gurasoek eramaten ninduten lehen, eta harrezkero zaletasun hori daukat.

Bestalde, musika ere gustatzen zait, noizean behin gitarrarekin ibiltzen naiz, irakurtzea gustatzen zait, eta abar.

### PERTSONALA

**Bidaiatzeko toki bat:** Islandia.

**Bizi izateko herri bat:** Aramaio.

**Gogoko musika talde bat:** Lou Reed.

**Gogoko liburu bat:** *Los santos sin agentes.*

**Gogoko jarduera bat:** Mendira joatea.

**Gogoko janari bat:** Amama Krispinaren kroketak.

**Beldurra, zeri?** Familiari, lagunei edo ezagunei huts egiteari.

**Etorkizuneko erronka bat:** Tesia amaitzea.

## 1. ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Aramaio.** Aukera ona. Gantzagan etxe bakarra salgai. Egoera onean. 8.000 metro koadroko lursailarekin. Lorategi, ortu eta fruta-arbolekin. 300.000 euro. 636 94 81 31

**Aramaio.** Baserria salgai Zabola auzoan. Hiru etxebizitza egiteko aukera eta 1.415,44 metro koadroko lursaila. 629 513 922 edo 636 494 689

**Arrasate.** Etxebizitza salgai Erguin kalean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta komuna. 170.000 euro. 606 86 71 97

**Arrasate.** Prezio berria! 174.000 euro. Etxebizitza salgai. Eraberritua, guztia altzariz hornitua eta oso eguzkitsua, denak kanpoaldera ematen du. Hiru logela, bi komun, egongela eta sukaldea. Hiru igogailu eta gas naturala. 650 01 05 15

**Arrasateko erdialdean.** Aukera. Hiru logela, balkoi luzea, hormigoizko egitura, hirugarren pisua, dena kanpoaldera, sukalde hornitua, gas indibiduala, komuna, egongela eta ganbara. Oso argitsua. Bikoteentzat aproposa. 138.500 euro. 662 18 25 73

**Bergara.** 50 metro koadroko etxebizitza salgai. Logela, sukaldea, komuna eta egongela. Balkoiarekin. Oso argitsua. 75.000 euro. Bikoteendako aproposa. Errentan hartzeko aukera ere bai. 679 45 57 62

### 103. ERRENTAN EMAN

**Antzuola.** Etxebizitza ematen da errentan, Antigua auzoan. 649 07 97 56

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan Bolun. Interesatuok deitu zenbaki hauetara: 662 56 95 37 edo 673 84 08 73

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logela eta bi bainugelakoa. Igogailuarekin. Erosteko aukera ere bai. 675 71 50 36

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan erdigunean. Hiru logelakoa. Berokunda indibildual eta igogailuarekin. Kanpoaldera ematen du. 943 76 04 58 edo 664 73 49 60

**Bergara.** Etxebizitza ematen da errentan, erdialdean. Bi logela, gasdun berokuntza, PVCzko leihoak, eguzkitsua. 72 metro kuadro. 606 65 58 08 edo 660 04 25 25

**Oñati.** Etxebizitza ematen da errentan Kurtzebide kalean. Hiru logelakoa. 615 73 29 83

**Oñati.** Etxebizitza errentan ematen da erdigunean. Hiru logela, egongela, sukaldea eta igogailua ditu. Interesatuak arratsaldez deitu zenbaki honetara: 652 77 87 15

### 104. ERRENTAN HARTU

**Aretxabaleta.** Pixu bila gabiltzan Aretxabaletako bikote gazte bat gara. Nahiago dugu txikia izatea. Eskerrik asko!. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 656 71 31 09

**Baserrian bizi nahiko genuke.** Baserrian bizitzeko desiatzen gauden bikote bat gara. Ateak irekita ditugu edozein proposamenetarako: konpondu, zaindu.. Auzoak bizirik mantendu behar ditugu, baserriak ezin dira hutsik egon! Interesatuok deitu zenbaki honetara: 652 76 73 39

**Bergara.** Familia batentzat etxebizitza behar dugu errentan, prezio ekonomikoan. Marijose. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 696 70 55 09

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela ematen da errentan Erguin kalean, unibertsitatetik gertu. Bi logela, egongela, komuna eta sukaldea balkoiarekin. Prezioa: 250 euro. 660 31 37 28

**Arrasate.** Unibertsitate ondo-ondoan, logela bat ematen da errentan, bi neskekin etxea osatzeko. Kalefazio zentrala prezio barruan. Lorea. 620 52 94 98

**Bergara.** Logela edo etxebizitza behar dut errentan. Mutil batentzat. 635 74 84 23 edo 635 74 84 15

**Bergara.** Logela ematen da errentan. 699 09 46 26

**Oñati.** Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. 110 euro gehi gastuak. Lau logela, egongela, komuna eta sukaldea. Mendiko kalen. 615 00 67 60

**Oñati.** Logelak ematen dira errentan San Lorentzon. 943 78 31 42 edo 688 60 30 52

## 2. GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** Zerkaostetan, Iturbide egoitza parean, garajea salgai. 600 75 54 18

### 204. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje edo lokal bat behar da errentan, biltegi gisa erabili ahal izateko. Ahal dela, erdi aldean. Deitu zenbaki honetara: 688 69 00 07

## 3. LOKALAK

### 304. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Garaje edo lokal bat behar da errentan, biltegi gisa erabili ahal izateko. Ahal dela, erdi aldean. Deitu zenbaki honetara: 688 69 00 07

### 305. BESTELAKOAK

**Oñati.** Kale Zaharrean bulegoa konpartituko nuke. Guztiz egokituta dago. Egokia izan daiteke bulego zein jendea atenditzeko. 651 70 17 41

## 4. LANA

### 401. ESKAINTZAK

**Bergara.** Pertsona arduratsua behar da etxeko lanak egiteko. Hasieran, astean 2 ordu. Interesatuek deitu 19:00etatik 21:00etara. 654 05 91 77

### 402. ESKAERAK

**Arrasaten, Eskoriatzan edo Aretxabaletan.** Neska euskalduna esperientzia handia duena, prest haurrak zaintzeko, eskolara eramateko edota etxerako lanak egiten laguntzeko. Magisteritzan diplomatua eta hezkuntza berezian espezialista. 600 39 47 77

**Bergara, Arrasate eta Aretxabaleta.** Neska boliviarra gertu nagusi eta umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Egunez, gauez zein asteburuetan. Paperak eguneratuta dauzkat eta esperientziaduna naiz. 618 14 71 34

**Bergara.** 47 urteko pertsona lanerako gertu. 606 24 79 09

**Bergara.** Neska txakurrak paseatzeko eskaintzen da. 943 53 29 18

**Debagoiena.** Administrazioan lizentziatu gaztea lanerako prest. Esperientzia daukat. 629 06 93 60

# ZURE IRAGARKIAK

**IRAGARKIA JARTZEKO BIDEAK:**

943 25 05 05 | sailkatuak@goiena.com | www.goiena.net/sailkatuak

Eguazteneko 12:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.
GOIENAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

**ORDAINTZEKO ATALAK DIRA:** **PREZIO BEREZIA** GOIENA KLUBEKO BAZKIDEENDAKO

**- Etxebizitza Saldu/Errentan. Garajea Saldu/Errentan. Lokala Saldu/Errentan. Irakaskuntza eman. Motorra Saldu/Alokatu.**
Egubakoitzean + Astelehenean: 22 € (BEZ barne).
Astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
**- Profesionalen moduluak.**
Modulu bakarra egubakoitzean EDO astelehenean: 22 € (+BEZ).
Egubakoitzean + Astelehenean: 29 € (+BEZ).

**Debagoiena.** Astebukaeran lana egingo nuke, etxeak edo tabernak garbitzen. Deitu 699 09 46 26 telefonora.

**Debagoiena.** Asteburuetan lan egingo nuke nagusiak zaintzen edo garbitasun lanetan. 699 09 46 26

**Debagoiena.** Bertako neska nagusiak edo umeak zaintzeko gertu. Egunez zein gauez. Dispobilitate osoa. Esperientzia. 618 00 08 28

**Debagoiena.** Emakume esperientziaduna gertu garbitasun lanetan jarduteko. Deitu 695 58 88 63 telefonora.

**Debagoiena.** Emakumea gertu garbiketak egin edo etxean bertan bizi izaten lan egiteko. Hamar urteko esperientziaduna. 646 78 81 40

**Debagoiena.** Emakumea gertu nagusiak zaindu edo garbiketak egiteko. Tituluduna. 680 77 06 46

**Debagoiena.** Emakumea gertu orduka edo astebukaeretan pertsona nagusiak zaintzeko, baita ospitaletan ere. Tabernak ere garbituko nituzke. Disponibilitate osoa. 699 60 91 90

**Debagoiena.** Emakumea gertu, arduratsua eta esperientziaduna, umeak zaintzen, garbiketak orduka egiteko edo nagusiak zaindu edota paseoan laguntzeko. 943 71 53 74 edo 695 73 87 95

**Debagoiena.** Emakumea lanerako gertu. Garbiketan zein nagusi edo umeak zaintzen. Legezko paperak ditut. 672 96 08 22

**Debagoiena.** Erizaintza laguntzaile tituludun emakume arduratsua eta esperientziaduna pertsona nagusiak zainduko lituzke etxean bertan bizi izaten edota orduka, ospitalean, eta abar. Interesatuok deitu 646 05 58 88 edo 943 79 79 49 telefono zenbakira.

**Debagoiena.** Etxeko lanak egin, nagusiak zaindu, garbiketa zein sukalde laguntzaile lanetarako gertu. 697 20 00 86

**Debagoiena.** Garbiketak egingo nituzke. Baita zerbitzari lanak ere. 662 08 22 03

**Debagoiena.** Igeltsari, zerbitzari, lorazain edo segurtasun zaintzaile gisa lan egingo nuke. 622 59 92 14

**Debagoiena.** Lan egiteko emakumea gertu. Umeak edo nagusiak zaintzeko. Deitu zenbaki honetara: 610 34 97 88

**Debagoiena.** Mutil gaztea eta esperientziadunak sukaldari laguntzaile moduan eta garbiketan lan egingo luke. eitu zenbaki honetara: 616 62 85 91

**Debagoiena.** Mutila gertu nagusi zein umeak zaintzeko, garbiketak eta abar. Baita baserrietan ere. 622 77 60 65

**Debagoiena.** Neska arduratsua etxe, atari eta abarren garbiketa lanak egin zein nagusiak zaintzeko gertu. 616 62 85 91

**Debagoiena.** Neska arduratsua gertu nagusi zein umeak zaindu, garbitasunak egin eta abarretarako. Etxean bertan bizi izaten ere bai. Eskarmentua dut zerbitzari, sukaldari eta hoteleko lanetan, okindegian, lorazain, hiltegian edota harrobian lan egiten. 665 98 29 55

**Debagoiena.** Neska euskalduna haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko prest. eitu zenbaki honetara: 606 05 11 99

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi eta gaixoak zaintzeko. Klinika laguntzaile tituluarekin, egoitza eta abarretan esperientziaduna. Ospitale zein etxean gauak egiteko ere gertu. 943 25 02 96 edo 662 58 96 11

**Debagoiena.** Neska gertu nagusi, gaixo edo umeak zaintzeko. Baita garbitasun lanetarako ere. Egunez. Urte askotako esperientziaduna. Yesenia. 634 12 56 87

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaindu, denetariko garbiketak egin edo bestelako lanetarako. Etxean bertan bizi izaten, orduka, gauetan zein asteburutan. Esperientziaduna. 626 91 49 04

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko edo garbitasun lanetan jarduteko. Baita tabernan sukaldean ere. Erreferentziak ditut. Autoa ere bai. Interesatuok deitu zenbaki honetara: 680 87 38 66

**Debagoiena.** Neska gertu nagusiak zaintzeko edo garbitasun lanetan jarduteko. Baita tabernan sukaldean ere. Erreferentziak ditut. Autoa ere bai. 634 40 64 65

**Debagoiena.** Neska gertu orduka, asteburu zein egun osoz lan egiteko. Etxeko lan eta garbiketak egiten edo sukalde laguntzaile. 662 26 71 41

**Debagoiena.** Neska gertu sukalde laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Edozein ordutegitan. eitu zenbaki honetara: 630 20 12 03

**Debagoiena.** Neska gertu sukalde laguntzaile, nagusiak zaindu edo garbiketa lanetarako. Edozein ordutegitan. Deitu zenbaki honetara: 679 29 78 89

**Debagoiena.** Neska gertu taberna, atari eta abarren garbiketak egiteko, nagusiak zaintzeko edo bestelako lanetarako. 679 30 65 28

**Debagoiena.** Ostalaritzan lan egingo nuke: sukaldari edo laguntzaile. 634 41 90 51

**Debagoiena.** Senar-emazteak, erizaintza laguntzaile tituluarekin, pertsona nagusiak zainduko lituzke: etxean bertan bizi izaten, ospitaletan, eta abar. 697 35 62 49 edo 943 79 04 69

**Debagoiena.** Sukaldari edo sukalde laguntzaile lan egingo nuke. Zortzi urteko esperientzia daukat. Elikagaiak ibiltzeko titulua daukat. Autoa ere bai. 634 40 64 65

**Debagoiena.** Sukaldari esperientziaduna lan egiteko prest. 943 53 34 24

**Debagoiena.** Sukalde laguntzaile gisa lan egingo nuke. Sei urteko esperientzia. Elikagai erabiltzaile titulua daukat. Miguel. Deitu zenbaki honetara 634 41 90 51

**Honduraseko neska langile eta arduratsua.** Honduraseko 22 urteko neska bat naiz. Berehala lanean hasteko prest nago, langile fina naiz eta arduratsua. Pertsona nagusi zein haurrak zaintzen eta garbiketa lanak egiten esperientzia daukat. 616 84 89 26

KOROSTI INMOBILIARIA
Ibargarai 3 • BERGARA
Tel. / Faxa: 943 76 97 97
www.inmokorosti.com

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**BERGARA:**
**150.000€ baino gutxiagotan pisuak salgai egoera onean.**
- Bidekurutzeta 65 m². 2 logela. Trastelekua. 120.000€. PREZIO JEITSIERAREKIN.
- Matxiategi 65 m², 3 logela. Berogailua, igogailua eta trastelekuarekin. 150.000€.
- Koldo Eleizalde 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 160.000€. Aukera ona
- Zabalotegi 80 m². 3 logela. Igogailua. 154.760€.
- Azkarruntz 75 m². 3 logela. Berrituta. Oso ondo. 144.243€.
- Zubieta 60 m², 3 logela. 126.213€.
- Zubieta 70 m², 2 logela. 150.253€.
- Zubiaurre 52 m², 2 logela. 141.238€.
- Masterreka 45 m². Logela bat. 150.253€.
- Martoko 70 m². 2 logela. 110.000€.
- Eskusarte 74 m². 3 logela. Trastelekuarekin. 130.000€.
- Ibarra 65 m². 3 logela. Berriztua. 150.000€.
- Bolu 66 m². 2 logela. Trastelekuarekin. 150.250€.
- Artzamendi 70 m². 2 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 154.760€.
- Zubiaurre 82 m². Igogailu eta berogailuarekin. Egoera onean. 132.223€.
- Zabalotegin 2 eta 3 logeletako pisuak 120.000€ baino gutxiagotan. AUKERA BIKAINA
- Ramon M. Lili 92 m². 3 logela. Terraza eta garajearekin. Berriztua.
- Fraizkozuri 100 m², 4 logela, 2 balkoirekin. Igogailua. Prezio jeitsierarekin.
- Fraizkozuri 78 m². 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 205.000€.
- San Lorenzo 85 m², 3 logela. Balkoia, trastelekua eta garajearekin. 210.354€.
- Boni Laskurain 90 m², 3 logela. Trastelekua eta garajearekin. Oso ondo.
- Simon Arrieta 75 m², 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin.
- Ibargarai 90 m². 3 logela. Igogailua eta berogailuarekin. 240.405€.
- Zubiaurre 65 m². 3 logela. 57.000€. AUKERA BIKAINA

**ANTZUOLA:**
- Errekalde 94 m². 3 logela. Igogailu eta berogailuarekin. 120.202€.
- Zurrategi 83 m². Oso ondo. Prezio ona.
- Sagasti 90 m². 3 logela. Oso ondo. Prezio jaitsierarekin.
